

II. JAGON JARDUNALDIAK

Tolosa, 1996-X-18/19

EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK

Aitzolen mendeurrena eta II. Jagon Jardunaldiak

Tolosa, 1996-XII-17/19

Beñat Oihartzabal

Euskara batua eta euskalkiak

Jagon sailak antolatzen dituen II. jardunaldi hauen irekitzeko, galdegina izan zait zenbait hitzen erraitea euskalkien eta euskara batuaren arteko harremanez, Euskaltzaindiak horri buruz orain artino zer adierazi izan duen gogoratuz bereziki.

Gibelera urrunegi itzuli gabe, erran daiteke Bergarako biltzarrean onartu zen adierazpenean finkatzen dela Euskaltzaindiaren printzipiozko jarrera euskalkiei buruz.

Hona hitzez hitz zer zioen Bergarako biltzarreko adierazpen hartako 5. puntuak:

Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.

Geroztik Euskaltzaindiak behin eta berriz berretsi du jarrera hau, argi eta garbi jakinaraziz, hor gaindi kurritzen zuten ustekeriak gezurtatzen zituela, ez zela harentzat euskara batua euskalkien aurka eginikako zerbait, baina aitzitik. euskararen grafia eta egitura errespetatuz geroz, batak eta besteek beren tokia bazutela, eta behar zutela, euskararen eremuan.

Bi dokumentutan bereziki azaldu zuen bere jokabidea Euskaltzaindiak:

1979ko martxoaren 30ean onartu zen agiri batean lehenik: Aita Villasantek prestatu zuen agiri hau, K. Mitxelenaren eta beste zenbait euskaltzainen iritzia jaso ondoan, Bergarako adierazpenaren argitzeko eta zehazteko.

1979ko irailaren 28an onetsitako beste agiri batean gero, honen tituluak zer gai zerabilen argiki erakusten baitu: *Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan.*

Argi da dokumentu horien arabera, zein den, euskalkien lantzerakoan, Euskaltzaindiak gomendatzen duen bidea: hitzak eta morfologia funtzionala eus-

kalkiaren arabera hautaturik edo moldaturik ere, ortografia eta euskararen oinarrizko erregela morfosintaktikoen errespetatzea. Adibide gisa, deklinabide mugagabea aipa dezakegu. Dakigun bezala, puntu hori ez zaigu euskalki guzietan berdin agertzen egungo egunean; ordean, ez hain aspaldiko garai batean gertatu aldakuntzengatik azaldu zaizkigu oraingo diferentziak, anitzetan erabilera bikoitzak gelditurik, gutiago edo gehiago, mudantza egin duten euskalkietan. Manera horretan, beren euskalkiari bizkarra emanarazi gabe ere galda dakieke zenbait baxenabartar lapurtarri, *anitz gizoni* izkiria dezaten beren euskalkiaren erabilera zainduan, aspaldi honetan nagusitzen ari den *anitz gizoneri* bazterrean utzirik.

Egia erran, Bergarako adierazpena onetsiz geroztik euskalkiei buruz egin diren urratsak edo finkatu diren jokabideak bizkaieraren kasua gogoan izanik egin dira bereziki.

Ez da harritzekoa gauzak horrela gertatu badira: alabaina ertzetako euskalkia da hangoa, eta literatura tradizio aski berria du, arras finkatu gabekoa, bestalde, oztopo bihurtu baitzaizkio horretarako mende hatsarreko zenbait gehiegikeria. Hargatik, zenbait bizkaitarrek batasunaren bideak urrun antzean uzten zituelako irudipena izan badute batzuetan, nola ahanztz, bestalde, bizkaitarrak izan direla euskara batuaren bultzatzaile sutsuenak, inork baino hobeki ikusten baitzuten haren beharra.

Gaur egun, badirudi, euskara batuaren inguruko adostasuna aski zabala dela. eta iritzi desberdinak agertzen badira zenbaitetan haren erabideaz, edo ezaugarriez, inork gutik zalantzan jartzen du haren beharra, eta, orokorki behintzat. haren eraikitzeo hartua izan den bidea.

Euskalki hitza bere usaiako adieran hartzen badugu, erran nahi baitu euskararen dialekto nagusien izendatzeko, eta Azkueren sailkapenari jarraikitzen bagatzaizkio, erran dezakegu egun sei euskalki baditugula: bizkaiera, gipuzkera, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera, zuberera. Literatura dialekto gutiago dugu, ordean, ezen behe-nafarrera eta lapurtera batera dabilta aspaldian tradizio idatzian, bai eta halaber mugaz honaindian, goi-nafarrera eta gipuzkera. Nola, bada, agertzen zaigu literatura euskalki horien egoera euskara batuaren aurrean?

Ez da ene ustez erantzun bakar batez erantzuterik galdera horri. Hizkuntzaren alderdi desberdinak alde batetik, eta euskalkien berezitasunak ere, beste aldetik, kontuan hartu behar baitira.

Hiztegiaren aldetik, argi eta garbi erran du Euskaltzaindiak, hitz guziak, euskalki guzietakoak, onartzen dituela, euskal altxorrekoak diren ber, inongo hitzik baztertu gabe. Horrek ez du erran nahi, halere, hitzen forma batuaren finkatzerakoan, ez dituela seinalatu behar batzuetan, zein diren literatura tradizioan eta egungo erabileran zabalduenik daudenak, edo zein diren hitz horiek izan dituzten erabil-eremu nagusiak. *Etorri* aditza *jin* aditza baino zabalduago

dela, eta *hitz* izena ere *berba* baino hedatuago, jakitea eta euskaldun guziei mintzarerakoan kontuan hartzea komeni da. Ez dira horregatik erabil eremu mugatuagoa duten hitz horiek inola ere euskara batutik baztertzekoak eta oker legoke Euskaltzaindiak horrelakorik dioela uste izan lezakeena. Hitz berrietan kontua bestelakoa da, noski. Ezen, maiz eta maiz muga ez da agertzen orduan euskalkien artean, baina estatuen arteko muga, nork ondoan dugun erdaratik abiaturik moldatu baititugu hitz berriak. Horrela sortu zaizkigu hainbeste bikoizketa, egia erran ez denak berri-berriak: *kaier / kuaderno, ezantza / gasolina; denda / magasin; boligrafo / bika* etab... Euskalkien gainetik iragaten dira orduan bereizkuntzak, gustatu ala ez ezin gutiets ditzakegunak, baina ene iduriko denborarekin berez itzaliko direnak. Oraingotz, ez litzateke gaizki indar eman bageneza horrelako bikoizketa berririk ez gehiago sortzeko, edo behintzat ahal bezain guti.

Muga mota bera edo bertsua kausitzen dugu askotan estilistikako kontuetan ere. Honetaz deusik ez du erran oraingoz Euskaltzaindiak, ez behar ere, zeren euskararen joskera errespetatzen den puntutik, nork bere esku baititu osoki adierazpideak eta espresamoldeak. Kaltegarri litzateke oso, ene ustez, batasunaren araugintza hizkuntzaren alderdi honetaraino heda ledi, eta dakidanaz segurik, inork ez du horrelako xederik erakutsi. Elkarren berri izanez, eta literatura euskal irakurleria guziari begira egitean, gaundituko, edo eztituko dira, piskanaka, maila horretako diferentzia dialektalak, anitzetan mendebalde-ekialde zatiketaren arabera egiten direnak, eta maiz aski handiak izaten direnak.

Grafia eta morfologiako kontuei buruz itzultzen bagara, haatik, gauzak bestelakoak dira, ezen kontu hauetan batasunak nekez onartzen du poliformismo dialektala: ergatibo plurala nola egin (-*ak* ala -*ek*) erabaki behar zen, halaber datibo pluralarentzat (-*ei*, -*eri*, -*er*, ala -*ai*) eta beste anitz punturentzat. Ez da harritzekoa elementu hauetarik abiatu baldin bada euskara batua, eta erran daiteke orain oinarrizko elementu hauetan ez dela gibelera itzultzerik.

Ondoriorz euskalkientzat hemen agertzen zaizkigu arazo larrienak. Zenbatetaraino literatura euskalkiek beretu behar dituzte elementu hauek?

Iduritzen zait, euskalkien egoera franko desberdina dela kasu honetan eta beste sailkapen bat egin beharra dugula. Alde batetik, erdialdeko euskalkiak baititugu (nafar-gipuzkera, eta lapurtar behenafarrera), eta bestetik bi muturretako euskalkiak, erran nahi baitu bizkaiera eta zuberera.

Arazo guti agertu da erdialdeko euskalkietan, aski errazki iragan baitira euskara batuaren moldera beren funtsezko izaera galdu gabe. Nafar gipuzkerraren kasuan ulertzekoa da, hango moldeak izan baitira euskara batuaren oinarrian, eta beraz bide guti egiteko baitzuten harainotzeko. Iparraldean ere iduritzen zait morfologiako egokitzapenak eginik hango tradizio idatzia, zerbait kanbiatu bada ere, ez dela hautsi batasuneko bidean sartu ondoan. Hango idazle gehienen lanak edo *Herria* astekaria bera, euskara batuari jarraikitzen zaizkion parteetan, horren lekuko garbiak dira, ene ustez...

Haatik gauzak bestela gertatu dira Zuberoan. Ez naiz gai horretan barnegi sartuko hemen, zeren ene ondotik mintzatuko diren hizlariek jorratuko baitute, aurkitutako zailtasunak agerian emanez. Erran dezadan halere, bizkaierarentzat erabaki batzuk aski goiz hartuak izan baitziren, ez direla sortu harekin, zubererarekin agertu nahasketa izigarriak, oraindik ere, dakidala, konpondu gabe dirautenak. Ezen ez da grafia kontu horietan makur makurragorik, erabakirik eza edo elkar ez aditzea baino. Ez du zentzurik euskara batuaren eta zuberera batuaren printzipioa onartzen duten jendeen artean, tradizio idatzi aski luzea izan duen euskalki horrek, hiru molde desberdin balia ditzan *buruaren gainean* sintagma idazterakoan. Bizkaitarrak zuhurkiago jokatu dira horretan bizkaiera batu baten formen gainean ados emanez morfologian.

Euskalkien arabera aldatzen bada egoera, erabilguneak ere kontuan hartzeko dira.

Alabaina, lehen literatura euskalkiak aipatu baititugu, ikusi behar da noiz erabiltzeko diren hauek, bai eta haietarik desberdin diren herrietako hizkerak ere.

Euskara batuari dagokion berezko eremua euskalkien mugen gainetik dagoena da; euskalkiei eta tokiko hizkerari dagokiena, berriz, herriaren edo herrialdearen mailako eremuari dagokiona. Baina, eremu geografikoarekin batean, eremu soziala ere aipatzekoa da, bestea bezain garrantzitsua, garrantzitsuago gisa batez.

Euskara batua, berez, maila gorako erregistroari dagokio. Baina aberasgarri da, are gehiago beharrezkoa da, izan daitezen, bestalde, etxeari, lagunarteari, herri mailako ekitaldiei dagozkien mintzamoldeak. Eta nahitaez hauek euskalkien eragina molde berezian nabaritutako dute.

Ezen euskara herrikoia ez da euskara txarra, erregistro herrikoia dagoz-kion egoeretan erabiltzen denean. Alderantziz, orduan goi mailako erregistro euskara gerta daiteke tokiz kanpokoia eta, neurri batean behintzat, herritarren artean desegokia.

Horiek horrela, maila horretan ere joera bateratzaileak beharrezkoak ditugu literaturako arlo batzuetan.

Alabaina gaur, nobeletan, telefikzioetan, eta filma bikoiztuetan ere, zailtasunak handiak izanagatik, nabarmen dira horretarako egiten diren indarrak. Egungo egunean euskaraz idazten dena edo ikusten dena ez da baitezpada euskal lurrari edo euskal jendeari lotua, nola baitzen lehenago erlijioaz kanpoko gaietan. Erregistro herrikoia doakie maiz horrelako lanci, ez, ordean, baitezpada hemengo edo horko euskalkia. Sortu behar da, orduan, dialektalki markatuegi ez den mintzamolde herrikoia, aski irekia ahal bezain euskaldun gutik izan dezan bazterrean uzten delako iduripena. Uste dut, hikako adizkera alokutiboen paradigmatik baturik Euskaltzaindiak lagundu dituela egileak maila horretako mintzamoldeak ere batasunerantz bideratzen.

Euskalkiei, eta tokiko hizkerari beren lekua aitorturik, Euskaltzaindiak ez du inola ere aditzera eman nahi onerako direla euskalkikeriak eta xokokeriak, denbora batez hainbeste kalte egin diotenak euskarari. Denok gogoan ditugu jokabide hertsia, deitoragarri haiek noiz ere iduri baitzuen hitz bat edo forma bat ezezagunago, bitxiago, eta zokokoago izan, eta jasoago eta erabili beharrekoago zela. Hitzen aradotasuna balore handia izan daiteke literaturan, eta izan dugu azken urteetan liburu bat edo beste arrakasta politik izan duenik euskararen hiztegi aberastasuna (bai eta zenbait euskalkiren berezitasuna ere) molde egokian baliaturik. Nornahik ikusi du, ordean, baliabide hori euskara batuak eskaintzen zuen kontrasteari esker sortzen zela, hitz batez, haren kontra bermaturik, eta ez haren aurka joanik.

Euskalkiak ez dira euskara batuaren etsai, ez eta hau haiena ere, eta ez luke itxurarik gaur egun elkarren aberasgarri eta osagarri diren mintzamolde horiek elkarren aurka jartzea, euskalkiak ororen euskarari eskua eman orde bizkarra emaiten baliote bezala.

Funtsean jokabidearen ardatza Euskaltzaindiak finkatu zuen aski argiki lehen aipatu agiritan, eta haietarik hartu hitz batzuk irakurririk bururatuko dut sarrerako ene mintzaldi hau:

Azken helburu nagusi eta bakarra euskara biziaraztea, sendotzea eta hedatzea delarik, inola ere ezin pentsa daiteke tokian tokiko euskara eta euskara batua elkarren aurkako gerta litezkeenik. (...) Hau honela delarik ere, tokian tokiko euskarak dituen desberdintasun eta ñabardurak ugari direla gogoan edukirik, lehen aipaturiko adierazpenean zioena bera berresaten du Euskaltzaindiak, alegia, tokian tokiko euskara eta eskalkia aintzakotzat hartzean eta lantzean, hizkuntzaren oinarri batuari leialtasuna gorde behar zaiola, euskalkiak indartzearen aitzakiaz joera zatikatzaile batetan gal ez gaitzean (1979ko irailaren 28ko agiria).

EUSKARA BATUA ETA BIZKAIERA IKASGELAN

Lekuan lekuko euskara, euskalki literarioa eta euskara batua, ikasgela barruan, guztiz konpatibleak eta interaktiboak dira

Tolosa, 1996-X-18

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta,
euskaltzain urgazlea eta Txorierrri
Batxilergo Institutuko irakasle katedraduna*

Oinarri teorikoa: “Ikasketan eraginik inportanteena duen faktorea, ikasleak jadanik badaukan ezagutza da”. Aprestuzia adierazkor edo signifikatiboaz, Ausubelek (1993, 1).

Printzipioa: Umeak etxetik dakarren euskara mota —lekuan lekukoa—, Euskal Herriko ikastetxe orotan landu behar da, eta euskalki literarioa hala erabakitzen den tokietan.

Helburua: Euskalkiak irakastearen helbururik azpimarragarriena, hezkuntzaren kalitatea jasotzea.

Mauleko ikastolara joan naizenean nahiz Bermeoko Eleizaldera edo Bergarako Aranzadira, bizi-bizi aurkitu izan dut euskalkiaren presentzia. Kanboko Lizeoan, Askartza Ikastetxean zein Kirikiño Ikastolan inkestak egin ditudanean, frogatu dut euskalkian eta batuan, bietan idazten dakitela, biak erabiltzen.

Itziar Idiazabalengandik hasi eta Xabier Amurizarenganainokoei itaundu diedanean, erabat agertu dira bizkaiera irakastearen alde.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko txostenean ere irakurtzen dugu: “Irakasleak indartu egin behar du haurrak etxetik ondo dakarrena, oker dakarrena zuzendu eta hutsuneak osotuz joan; ohartu egin behar du, umearen ezaguera gaitasunetatik urrun dagoen eredurik ezartzen saiatzeak berekin duen arriskuaz, etxetiko euskararen eta euskara batuaren zilborrestea etetearenaz” (1982).

Nolabait laburtzeko, baieztatu daiteke XX. mendearen goienean euskalkiek bizirik dirautela ikasten jarduteko adinean diren gazteengan ere. Alegia, euskara batuak berarekin bizi dituela euskalkiak ere.

Frogak eskuratzeko, ez daukazu magnetofonoa eskuan ikasgelaren batera hurreratzea baino, neuk Bermeokora bezala:

- Tentela zara?
- Ikustenzu zelakue dan nire irakaslie!
- Sartun barrure!
- Barrabasa! Atarakotzutez eztizenak atara be!
- Ama txarrixen umie!
- Beti zeu izen bizara!
- Ez ikutu botoi bapez eh!
- Ene bada, ze inzu ba?
- Urteten zuniko ikuskozu!
- Hónek umiek burutik atrapakostie!
- Trankil egon, urtengo zu ta!
- Eta zer esantzuie?

Izan ere, nik baino arterago idatzi du Hualdek nahiz eta ez Bermeokoaz aritu: “The basque dialect of Lekeitio” liburuan: “To conclude, Lekeitio Basque does not appear to be in imminent danger of extinction. It certainly does not seem that it will be replaced in its functions by Standard Basque in the near future”. (J.I. Hualde 1994:5).

Hala ere, irakaskuntzako arduradunek ez diote gaiari behar den neurrian oratu. Oraindainokoa, zenbait ikastola eta ikastetxe pribaturen batek erantzun dio euskalkiak ikasgelaratzearen arazoari. Irakaskuntza publikoa —salbuespenak albuespen—, uzkur agertu da errealtate honen aurrean, zoritxarrez. Abian daukagun Hezkuntzaren Erreformatik ez du euskalkiekiko ibilbidea ez erostu, ezta seinatu ere. UBIko kurtsioan bertan, euskalkien gainean lantzen zen arlo interesgarria desagertu egin da selektibitateko hautaprobek berregituratzearen aurrean.

Hala dira ulertzen, oraindik orain, deskribatuko ditudan tankerako gertaerak:

- 1995.eko martxoa. Bilbo inguruko eskola:
- Maisu, guk etxean siesta esateko bixagoa erabilten dogu!
 - Eta hori nola idazten den badakizu edo nondik datorren?
 - Ez, nik ez!

Inguruko begirada zorrozpean, ixildu egin da ikasle hamar urtekoa eta irakaslea bereari jarraiki zaio.

1996.eko irailaren 26an, batxilerreko lehen mailako ikasleak besteen aurrean beren buruaren aurkezpena egiten dihardute:

“... eta gero arrastien, bueno arrastien ez, arratsaldean...” jarraitzen du. Etxetik dakarren “arrasti” berba hori zuzendu egin behar duela jaso du irakas-kuntzatik

Guzti horrek horrelatsu darraielako jakinik, adierazteko moduan gara, irakaskuntzan euskara batu idatziaren nagusigoa onetsi dela ahozkoaren gutxies-tearekin batera, “Verba volant, scripta manent” sinestuko bagenu bezala jokatuta. Jokabide honek bi problema, behintzat, planteatzen dizkigu: bata soziolinguistika arlokoa; didaktikari lotua, bestea.

Soziolinguistika arloko problema dator, idatzia gramatikako kriterio normatibo bakartzat hartzetik. Jarrera normatibo hau, hizkuntzaren eredu unitario eta aski selektiboan oinarritzen da, eta ez du aintzat hartzen aurrez ezarritako eredu honetatik inolako digresio eta saihesterik, direnak direla komunitatearen bizitza linguistikoko baldintza objetiboak. Hor, hizkuntza literarioa aukeratu da eredutzat, hala espresamoldeetan nola aplikatzen den area geografikoan. Ondorioz, beste estrato edo hizkuntza mailak gainerako modifikazio dialektalak —inguru geografikoak inposatuak—, mespresatu egiten dira.

Problema hau are da larriagoa alboetako euskalkien kasuetan, zeinetan eredu unitario eta selektibo hori oso urrun geratzen den. Euskalkietako ikasle edo irakaslea, bere espresioeko forma naturalak zuzentzen saiatzen da.

Hemendixe dator arestian aipatu dugun didaktikari lotutako bigarren arazoa. Irakaslea, oro har, eredu idatzi horrekin identifikatzen da, inguru geografiko zein soziolinguistikotik abstrakzio eginda, eta berbeta normalizatu eta ikasgelakoa identifikatuz.

Hori horrela, ikaslea ikasgelako teoria eta bizi duen praktikaren artean nahasita, noraezean aurkitzen da; batez ere, irakasleren batengandik edo telebistatik izan ezik, beste inon belarriratuko ez zaizkion arauak ikasi behar ditue-nean.

Nik txosten honetan aipatu nahi dudana da, ezen eskolaren barruan hizkuntza honenbeste faktore estralinguistikoren menpe dagoela, zeinak pedagogiak kontuen hartu behar dituen.

Esandakoak esanik, gaia egoki bideratzeko, ahozkoaren garrantzia zorrotzago aztertu beharra dago. Gramatikaren kontzeptzio berrietan, ahozko formak azpimarratzen dira. Ideia hau berez, Saussure-engandik datorkigu, linguistikaren objektua berba dela onartu zuenean. Gramatika tradizionalen forma idatzitako literarioa izan zen behinena, baina gramatika estrukturalen, esate baterako, ahozkoak hartzen du inportantzia. Ildo honetan, oso egoki dator D. Girardiren lekukotasuna: “Ahozkoa idatzizkotik banatzeak aprendizaiaren prozesua erraztea dakar”. (Paris 1972:17). Batez ere, ahozko hizkeratik abiatuta eraiki daitekeen

hizkuntzaren irakaskuntza, subjektuaren esperientzia linguistikoan finkaturik egiten delako.

Garbi dagoela dirudi, oinarritzko eskolak berbete erabiltzen irakatsi behar duela. Beraz, eskolako helburu linguistikoaren formulazioak hizkuntzaren funtzioak kontsideratzetik abiatu behar duela. Hau da, berarekin burutzen diren erabilerak zein premiari erantzuten dion kontuan hartzetik. Erabilera eta komunikazio egoera desberdinak bere baitan daukan ideia da, ez dela hitz egin edo idazteko modu bakar bat eta zuzena, eta beste batzuk ez zuzenak eta okerrak, baizik eta gauzak esateko forma egokiak eta desegokiak daudela, egoera aldagarrien arabera, solaskide edo xedearen arabera. Lagun bategaz berba egiterakoan hizkera formala, desegokia izan daitekeen era berean dela desegoki hizkera kolokiala pertsona ezezagunari mesedea eskatzerakoan.

Esperientziak irakatsitakotik suposa dezaket, Mendebaldeko pertsona eskolarizatuaren gaitasuna altuagoa izango dela aspektu batzutan euskalkian eta beste batzutan batuan. Eta ahozko/idatziari loturik, posible dela pertsona bat gaituago agertzea ahozko erabileretarako euskalkian eta idatzietarako batuan edo bizkaiera literarioan. Baita, bere lexiko usuala eta afektiboa euskalkian aberatsagoa izatea eta zientifiko teknikoetan batua.

Irakaskuntzako praktikan, ikasgelako mintzatze denboratik %80a irakasleak hartzen du eta, ondorioz, ikasle bakoitzari hitz egiteko lagatzen zaion denbora %1 inguru da. Halako egoeran, jarioz berba egiten ikastea gatxa da oso. Edo atzekoz aurrera esanda, euskara jarioz erabiltzeko gai den neska edo mutila, etxetik dakiena da ia gehienetan —nahiz eta kalifikazioetan bikaina den ikaslea honetan ere bikaina izan—, eta, logikaz, dialektoan. Giro honelakoan, hezkuntzako arduradunen jokabidea euskalkien arazoan “Laissez faire, laissez passer” bada, etxetiko berbete dakitenen inguruan antolatzen ez bada mintzamenaren, mintzamen horren %1a baizik erabiltzen ez duen multzoa da euskaraz doi-doi arituko dena, etxetikoak multzo horretan edolkuratuz. Edozeinek luza dezakeen objektzioa da, ahozko berbetan indar eginez gero, hizkuntza idatziaren erabilerarako aukerak murriztu egingo lirakekeela. Baina, gaurkoz, antipodetan dihardugun bitartean, ez dago horren arriskurik; oharturik gaudenean, gainera, hala irakurketak nola idazketak ahoz topa ez ditzakeen lexiko eta egituretara eramane dezaketela ikaslea.

Bestalde, ahozkoaren garrantzia seinalatzerakoan, non geratzen da gramatikaren zeregina eskolan? Esku artean darabilgun gaian, ez litzateke egokiena izango gramatika estrukturalaz edo generatiboaz elestatzea, gramatika eskolarraz baizik.

Ahalegin didaktiko guztia zuzendu behar da, ikasleak jadanik badaukan hizkera (aspektu soziolinguistikoa) eta aprendizaiarako eskaintzen zaizkion nozio gramatikalak egokitzea.

Umearen berbetako faktore subjektiboei jartzen zaien arreta maila (aspektu sikologikoa) izango da erabakiorra kontzeptu gramatikalen jabekuntzan.

Orain artean aipatutakoaren ondorioz, teknologiaren garai honetan, ahoz-kotasun berri baten nagusigoak inguratzen gaituenean, eskolak ahozkoa indartu behar badu eta ahozko hori Euskal Herri zabaleko ikasle askorentzat euskalkikoa bada, euskalkiak eskolan lantzea eskatuko du, ezen Anna Camps-ek dioskunez, “... no es suficiente el uso de la lengua sin una reflexión sobre ésta” (1990).

EGOERAK BENETAKO ALDAKETA ESKATZEN DU

Ez da errraz ulertzen behar diren aldaketak gauza daitezen zeren zain dauden Hezkuntzako arduradunak, ezen errealitatean, bizkaieraz irakatsi gura dutenak material gabezia gorrian bizi baitira. Hainbestean non DBH-tik aurrera bizkaieraz argitaratzen diharduen Ibaizabalek ere euskara eta erlijioa baino ez dituen argitaratuko.

EUSKALTZAINDIAREN ZEREGINA

Euskalkiek irakaskuntzan behar hinhateko bermea izan dezaten, Euskaltzaindiari legokioke normalizazio bidea finkatzea, argi utzirik zein liratekeen formarik egokienak euskalkiek batutik hurbilen funtziona dezaten, ezen Leioan hiru urte eta erdiz ari garen Mendebalde taldekook premia bizia nabarmendu baitugu. Zerbaitegatik dio Aita Villasantek “Euskararen Auziaz” liburuan: “Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz” (1988).

Azken finean, Txillardegik dioen “Geure endoglosia antolatu behar dugu euskararen barruan” (1990) baliozkotzat harturik, baina batua kontzeptu absolutu moduan gainjarrita baino hitzunen adostasuna eta bihotzak irabaziz.

HERRI-EUSKARAREN EREMUA

Tolosa, 1996-X-18

Juan Martin Elexpuru

Euskalzale gehientsuek diote euskalkiei eutsi egin behar zaiela, indartu eta erabili egin behar direla, baina egin, gauza gutxi egiten da. Jende gutxi da gai honetaz arduratzen dena, eta arduratzen garen apurrok, askotan, sermoia desertuan agiten ari garen sentimentua dugu. Normalean begi onez ikusten dira gure asmoak, baina inor gutxi dago zezenari adarretatik heltzeko prest. Eta aurrez esan beharra dago gipuzkeraren eremutik etorri ohi dela oztopo gehien, beste lurraldeetan harrera hobea duela gai honek.

Herri-euskara, adineko jendearen ahotan oraindik indartsu badago ere, gainbehera dator, eta ez gatz eta ez berakatz duen hizketa hibrido bat, ez batua ez euskalkia, nagusitzen ari da eskualde askotan, belaunaldi berrien artean.

Gure ustez, herri-euskarari eutsiz euskarari berari eusten diogu, herriko euskararen aberastasunak euskara batua ere aberasten baitu, iturriak erreka bezalaxe. Gainera herri-euskara ondo dakienak oso erraz ematen du baturako saltoa.

Aho-hizkuntza biziari eustea da helburua, aho-hizkuntza prestijiatzea, aho-hizkuntza oso erreferentzia inportantea (ez bakarra) dela sartzea jendearen buruan. Bere berbetaz harro sentiaraztea, eta ez konplejuz blai, askotan gertatzen den bezala.

Gainera berbeta ez da komunitateko bakarrik. Berbetan gozatu ere egin behar da, jolas egin, bakoitza “etxean bezala” sentitu bere jardunean. Eta hori hitza barru-barrutik irteten zaigunean gertatzen da; orduan arnasa bezalakoa da, berezkoa, naturala. Eta hori, batik bat, txikitatik geureganatuta daukagun berbetan dihardugunean gertatzen da; eta “hika” ari garenean oraindik gehiago.

1. HERRI-EUSKARAREN ERABILERA EREMUA

Herri mailako ihardueretan presentzia inportantea euki behar luke herri-euskarak. Komunikabideetan eta eskolan, bereziki.

Komunikabideak: gure herri eta eskualdeetan aldizkariak, irratia eta telebistak sortu zaizkigun une honetan aukera aparta dugu herri-euskara mintzatu zein idatzia erabiltzeko. Honek ez du esan nahi dena herri-euskararen egin behar denik. Nire ustez, %20-40 inguru eman behar zaio herrikoari, eta gaitikoa batuari.

Herriko euskara egiten duen pertsona bat elkarrizketatzen denean, herrikoan egin behar da, elkarrizketatua hala mintzatzen bada, behintzat. Elkarrizketa idatzia bada, zilegi izango da, eta beharrezkoa ere bai askotan, elkarrizketatuaren euskara apur bat ikutzea, herriko euskara normalizatura hurbiltzeko.

Elkarrizketa, umoreko gauza, eta horrelakoetan erabiliko da, gehienbat, baina ez bakarrik; gauza “serioago”etan ere bai. Sarri batuko lexikora jo beharra izaten da, baina hau ez da problema.

Eskola. Eskualde askotan, batetik urrun dagoen hizketa bakarrik dakitela hasten dira haurrak eskolan. Ez du inongo logikarik haur horrekin batu hutsean jarduteak. Eskualde horietan herri-euskara erabili beharko litzateke, gehienbat, lehenengo urteetan; eta geroago ere presentzia on bat ziurtatu.

Beharrezkoa da, jakina, irakasleak herri-euskararen trebatzea eta haur eta guraoen artean herri-euskara hau prestijiatzea. Materialak ere sortuz joan beharko dira. Atzeko eraskinean dator Bergarako ikastolarako prestatutako txosten-txo bat non herri-euskara eskolaratzeko zenbait orientabide ematen den.

Hirugarren eremu bat aipatzearren, lehen **alfabetatzea** deitzen zitzaiena. Gaur egun EGAK esparru hori jana du erabat, eta ez da erraza ganorazko ezer egitea. Dena dela, **hika** ikasteko (eta gaizki ikasitakoa berrikasteko) eskabide eta behar handia dago, zenbait eskualdetan, behinik behin. Herriko hika, jakina; ikastaro horiek aprobetxatu behar dira herri-euskara potentziazteko; izan ere ez du zentzu gehiegi hikako aditza ikasten saiatzeak, zukakoarekin eta beste hainbat alderdirekin gauza bera egiten ez bada.

2. HERRI-EUSKARAREN NORMATIBIZAZIO PROZESUA

Gaur, orain 15-20 urte ez bezala, euskara batuak ez du agiriko etsairik, ez dago gatazkarik batuzaleen eta euskalkizaleen artean. Euskaltzaindiaren bidetik eginez doan batua guztiz onartua dago. Euskaltzaindiak ez du inolako arazorik herri-euskeraren problematikari arreta gehiago jartzeko.

Euskaldunen parte on bat bi erregistrotan mintzatzeko gauza da: batuan eta herri-euskeran. Idatziari dagokionez, batua normatibizatu den bezala, herri-euskarak ere gauza bera egin beharko du. Baina herri-euskara asko dagoenez, eta normatibizazio prozesu honetan aniztasun honekin kontaktu beharra dagoenez, goazen arazoari bere zabalean begiratzen.

a) **Berbeta-eskualdea**

Deba-arrotik begiratu dut (eta neure ikuspegitik, jakina, han ere denek ez gatozelako bat). Nortasun handiko herriak ditugu gure eskualdean, euskara aldetik diferentzia nabarmenak dituztenak. Ez dugu Deba-arroko euskara baturik nahi; herri (edo *berbeta-eskualde*) bakoitzak bere euskara mantentzea litzateke helburua. Baina beti ere amankomuna denari indar gehiago emanez, bereizten gaituenari baino.

Gure euskalkia bizkaiera izan arren, bizkaiera batuak ez digu askotarik balio. Gure eskualdeak harreman gutxi izan du bizkaiera ofizialarekin, lehen gipuzkera eta orain batua direlako gure erreferentzia kultoak.

Berbeta-eskualdea har daiteke agian unitatetzat. Diskutigarria izan daitekeen arren, gurean hauek ikusten ditut: **Leintz** (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza. Agian Aramaio), **Oñati**, **Bergara** (Antzuola barne), **Eibar** (agian Sorraluze eta Ermua barne), eta **Elgoibar**. Kontu izan denak euskal hiztun askokoak direla (Leintz-ek 20.000tik gora, eta beste gehienak 10.000tik gora).

Ez dakit hau extrapolatu daitekeen Euskal Herriko beste lekuetara, baina agian, Txorierri, Goiherri, Malda-erreka, Baztan... izan daitezke berbeta-eskualde...

Garbi gera bedi euskalki batua aski balitz eta funtzionatuko balu (agian Zuberoan edo Bizkaian?) prozesu honek ez lukeela joan behar oztopo egitera.

b) **Normatibizatorako pausuak**

1. **Korpusa jaso.** Herri edo berbeta-eskualde bakoitzak bere korpusa jaso beharra du: aditza, deklinabidea, fonetika, sintaxia, lexikoa ahal den heinean, etab. Hau Deba-arroan neurri handi batean egin dago.

2. **Aukeratu.** Aldaerak —aditzean, deklinabidean, etab.— asko izaten direnez, aditz eta deklinabide tabla “batu” bat aukeratu behar da, beti ere formarik borobilena eta “zentzuzkoena” onetsiz. Lan hau tokian tokiko aditu taldetxo batek egin beharko du. Besteak beste, honek, luzera, aho hizkuntzari ere mesede egingo lioke, aldaera basoaren erdian bat, forma ofiziala, nagusituko litzatekeelako.

3. **Idatz-arau amankomunak ezarri.** Hau proposatzera ausartuko nintzateke:

Euskara batua izango da erreferentzia nagusia: H, S-Z, TS-TZ, etab., euskara estandarrean bezalatsu erabiliko dira. Euskaltzaindiaren arau eta gomen-dioei jarraituko zaie, kontrako motiborik ez dagoenetan, behintzat.

Dena dela, ozen esan beharra dago gauza bat dela transkribaketa fonetiko zehatza egitea —dialektologiako lanetan egiten den bezala— eta beste bat, oso ezberdina, herri-euskara normalizatuan idaztea. Baina, edozein modutan ere, herri-euskara idatziak mintzatutik hurbil egon behar du. Adibidez, nire ustez:

Ez + b, d, g = ez + p, t, k: *ezpadator, eztau, ezkoiaz.*

Ez + j = etx (gure eskualdean): *etxat, etxuat, etxoiak*

Ez + z = etz: *etzeukan, etzeban, etzekixen.*

Ez + l, n = el, en: *eleuke, elitzake, eneuke, enintzake.*

In, il = iñ, ill: *iñun, iñor, mailla, makilla.*

Hitzari artikulua eransterakoan sortzen direnak:

a + a = -ia, -ie: *gauzia, alabia, alabie.*

e + a = -ia, -ie: *etxia, etxie.*

o + a = -ua, -ue: *astua, astue.*

i + a = -ixa, -ixe: *astixa, ogixa.*

Jakina, fonetika arau hauek betetzen ez diren eskualdeetan, ez lirateke erabiliko. Tokian tokikoak, alegia.

Oharra: Bideak nahikoa urratuta daude gure eskualdean. Deba-arroko aldizkari gehienetan (*Eta kitto, Elgoibarren, Kontzejupetik, Berrigara...*) goiko eredu honi jarraitzen zaio, gutxi gora behera. Toribio Etxebarria, Juan San Martin, etab. ere, ez zebiltzan oso urruti beren herri-euskarazko lanetan.

4. Beste zenbait irizpide.

— Ahalik eta kontrazio gutxien egitera joko litzateke, adib.: “gehixei” esan arren, *gehixegi* idatziko da. Txiste, elkarrizketa eta horrelakoak idazterakoan “libreago” ibil daiteke.

— Herrian hitz “formal”ik topatzen ez dugunean batuko lexikora joko da erreparurik gabe.

— Ez da estuegia izan behar ezartzen ditugun arauekin, bestela atzeratu egin dezakegu idazteko prest dagoen jendea. Zuzendu bai, baina neurrian eta zabaltasunez.

— Kasuistika oso zabala, eta ezin da pretenditu lehenengo egunetik denok berdin idaztea. Ibiliaz egiten da bidea.

3. EUSKALTZAINDIAREN ZEREGINA

Jende askok Euskaltzaindia euskara batuarekin identifikatzen du. Badaki honi euskalkiak interesatzen zaizkiola, baina aztergai filologiko gisa, edo ba-

tuaren hornitzaile moduan, bakarrik. Euskalkian edo herri-euskeran idazten duena ortodoxiatik apur bat desbideratua dabileneko ustea oso zabalduta dago.

Egia esan, nik dakidala behintzat, Euskaltzaindiak ez du ahalegin handirik egin ez herri-euskara normatibizatzeke, ez erabilera bultzatzeke. Beste lehen-tasan batzuk izan ditu.

Ordua du, nire ustez, honi ere arreta puxka bat jartzeko. Lehenengo eta behin “babes politikoa” emanez, jakina; eta bigarrenik normatibizazioa bultzatuz. Euskaltzaindiak ezingo du eskualde bakoitzaren kasuistikara heldu, baina bai irizpide orokorrak ematen, lan-taldeak bultzatzen, jardunaldiak antolatzen, etab. lagundu. Ez legoke gaizki, ezta, literaturan zein beste alor batzuetan sariketak antolatuko balitu, hauen argitalpena bideratuko balu, etab.

(Eranskina)

BERGARAKO EUSKERA ESKOLAN

1994-X

Aranzadi ikastolarako txostena

Juan Martin Elexpuru

1. ZERGATIK

Eztago esan biharrik. Uste dot argi daukazuela. Hor dago nere artikulua be nahi dabenak irakurri.

2. BATUA-BERGARAKUA

Eztago burrukarik, ezta gauza diferente moduan planteau bihar. Euskeria ikasi eta sakontzeko modua da herrikua ikastia. Hemengo lexikoa, modismuak, esaera zaharrak, sintasia, hori be batua da, beste edozein euskeran maillakua da. Euskeraren mamina da hori, berdintsua euskera guztietan. Aldatzen dana azala da: fonetika eta aditz laguntzaillia, gehixenbat.

Horregatik ikasi eta sakondu bihar dana ezta azala bakarrik, diferentia dana, aditza, mamiña be bai.

3. ZELA PLANTEAU

Hau gauza serixua da, planteamentu serixua eskatzen dau, prixa barik egin bihar da, baiña espontaneismuan jausteke.

— Irakasliak gertau egin bihar die, talde bat sortu bihar da irakasliei klasiak, materiala eta orientabidia emongo dotsena. Zerutik ezta jausten jakindu-

rixia, eta euskera batua ikasten orduak emon badittugu, ba ezta gaizki etorriko ordu batzuk herrikuai emotia. Herriko beste ikastetxiekin be kontau bihar litzake. Pentsatzen dot Cia de Mariakuak eta Publikokuak behintzat interesauta egongo diela.

— Arduradun bat komeniko da, lanez arindua, hontara dedikau dadin. Materiala sortu biharko da. Lan dezente dago egiña. Egokittu egin bihar.

— Presupostutxo bat izendatu biharko da.

4. ZELA PRESENTAU

Gauza biharrezko eta atsegin baten moduan presentau bihar jakue irakasle eta ikasleei., ez inposiziño modua. Irakasleei be denporia emon bihar jakue eta batzuk kontra samar badare be, ez gehixegi presionau eta hasi konbentziduta darenekin. Materiala eta girua sartu ahala animauko die. Klasiak antolatzen badie, jakiña, danak joan biharra izango dabe.

— Ikasleei be gauza gustagarri baten moduan azaldu, erei egitten jakuen konzeziño baten moduan, ixa jolas moduan.

— Gurasuak be hezi biharko dittugu. Esplikau, beren euskera prestijiau, aitta-jauna-amandrien euskeria balorau.

Azken batian prestijiau egin bihar da edadekuen euskeria. Horrek hizkuntza aldeko bentajez gain beste gauza batzuk be hobetuko littuzke: belausaldeen arteko komunikaziñua, esate baterako.

5. LEHEN PAUSUAK

— Haurren akats nabarmenenak. Amaia, Gotzon, Justinak... hasittako lana. Lan horri heldu, problemak ikusi.

— Ortografia eta fonetika. Zela idatzi. Bada nik egindako txostentxo bat.

— Deklinabidian eztago problema haundirik. Batuan bezelatsu.

— Aditza. Ikusi zeintzuk diren erabillienak Ondo aukeratu. Ikasi, baiña matxakau barik. Beste aditzen notizia bakarrik emon 7. edo 8. mailan. Jakiña, irakasliak gehitxuago jakin bihar dau.

— Esaera zaharrak, txisteak, kantuak, ipuiñak.

— Lan polita: haurrak beren guraso edo amandria edo tiari grabau, norberak gioi bat emonda: kontaizu ipuiñak, gaztetako kontuak, erromeixak, jolasak, gerratia. Gero entzun, zati batzuk transkribidu.

— Hika. 7. eta 8. mailatik aurrera. Ahozko ariketak egin, neska eta mutil.

6. NOIZ, NOLA

Eztakit. Euskerazko klasian behintzat bai. Gizarte edo Izadin be igual. Uste dot euskerako programaziñua goittik behera aldatu biharra dagola. Azaleko gauzei inportantzia gehixegi emoten jakue eta mamifiñai ez. Ipuinak, poesiak, erredakziñuak idazten ikasi bihar dabe, liburuak irakurri eta gozatzen. Beste guztiak gutxi balio dau.

Ahozkuai emon bihar jako inportantzia baiña idazten be ikasi bihar da.

— Zer da Bergarakua eta zer batua? batuko hitz teknikuak erabili leizke bergarakuan; beti ikuspegi positibua emon, ez sortu tentsiñoik huskerixengatik; gauza naturala izan bihar da.

7. MATERIALA

Zerbait badago:

“Bergarako euskera”: deklinabidia, aditza, lexiko puxkat, kantuak, aho-ko-rapilloak...

Hiztegia. Erdi makinaratua. Datu basera pasatzea komeni.

Txistiak: Berrigaran eta Arrasate Press-en agertutakuak.

— Material hau moldatu eta berrixa sortu biharko da.

8. LAN-TALDEAK

Proposamen bat: Lau arlo sortu:

1. Kantuak.
2. jolasak eta berba-jolasak.
3. Esaera zahar, modismo, txiste.
4. Lexikoa

Pertsona bat arduratu arlo bakoitzaz. Bakarrik edo bere lan taldea sortuaz lan egin. Besteei materiala ornitzea bere helburua.

Ortografia, deklinabidea eta aditza koordinatzailearen ardura litzake.

EUSKALKIEN ETA EUSKARA BATUAREN ARTEKO HARREMANA NOLAKOA DEN IPARRALDEAN

Tolosa, 1996-X-18

Jean-Louis Davant

Oso zabala da gaia eta frango azaletik ibili beharko dut 20 minutu laburrez. Badakigu iparraldean lau euskalkietatik biga direla publikoan erabili: zuberera eta lapurtera. Idatziz bederen, ez dute hanbateko tokirik ukan ekialdeko behe-nafarrerak eta mendebalekoak.

Ordainez lapurterak mendebaleko behe-nafarrera horren eragina jasan du XX. mendean eta bereziki bigarren partean. Aita Lafitte zenari bota zaio lapurteraren baxe-nabartatze horren errua, baina alderantzizkoa halaber erran daitaie: behe-nafarrera lapurtartu duela. Bilakaera bat ikusirik euskal munduan soziologiari lotua, hori kudeatu du, behe-nafarrera hein batean mugatuz, eta horrela itxasaldeko euskara mehatxatuaren bizia salbatuz, beso bat galdurik baldin bada ere. Hor dugu beraz Lafitteren nafarro-lapurtera, hamarretatik zortzia lapurteratik ene ustez.

Iparraldeko bi euskalki nagusiak kontutan harturik, azter dezagun bakoi-tzak Euskara Batuarekin duen harremana alor hauetan: liturgian, erakaskuntzan, prentsa idatzian, irratigintzan, telebistan, literaturan eta kantu-bertsogintzan.

I. ZUBERERA ETA EUSKARA BATUA

1. **Liturgian.** Liturgia osoa zubereraz dugu, frantsesez ez delarik bistan dena. Baina bi atal berezi behar ditugu.

a) Mezaren bizkar-hezurra Batutik hartua da hitzez-hitz, Zuberoako aditzari eta fonetikari egokituz. Hiztegi batua du, adibidez “Sinesten dut” eta “Gure aita” otoitzetan. Esaldiak ere Batutik, ez beti egokiak zubereraz: hala nola “egin beharrak” esaldia “Kofesatzen nitzaio” edo “Confiteor otoitzean”, “beharren egite horrek zubereraz adierazten baitu komunera joaitea...

b) Mezako “Canon” hortarik kanpokoa, ohiko zuberera klasikoan emaiten da. Aita Junes Casenavek gure euskalkira egokitu ditu “Egun oroetako ira-

kurgeiak” liburu mardul batean: aita Hiriart-Urruty zenak eman zion Baionako Elizaren on-iritzia, nire aburua hartu ondoren, baina Zuberoako apaizek bazter uzten dute, baizik eta puristegia dela, ulergaitza. Beraz nafarro-lapurterazko idazkiak zubereraz egokitzen dituzte jin arau.

c) Kateximarik ez da gehiago euskaraz egiten Zuberoan. Orokorki, gero eta gutiago euskaraz egiten da elizan. Zuberera hiltzen du frantsesak, ez Batuak.

d) Grafia xaharra atxikitzen du Zuberoako elizak: ez da hain xaharra ere, duela berrogei bat urte moïdatu baitzuten gure aintzineko Guillaume Eppherre eta Lafont euskaltzainek.

2. Erakaskuntzan, zubereraz egiten da euskara derabilten eskoletan, hots nagusiki Seaskan, Ikasbin eta A.E.K.an.

a) Seaskaren mende daude bi ikastola: Basaburuko ama-eskola, Mauleko ama-eskola eta lehen maila. Batuko grafia erabiltzen dute, hitz berriak Batutik hartzen dituzte. Azken bi urteetan, ikasleak Batuari buruz idekitzen dituzte irakurgaien bitartez, hegoaldeetik baitituzte liburuak. Horrela Kanboko 2. mailean sartzera prestatzen dituzte.

b) Ikasbi sare publikoak halaber bi eskola ditu: bat Barkoxen, bestea Maulen. Hor ere Batuko grafia eta hitz berriak. Bestalde ordu batzuk egiten dituzte hantxe-hortxe errient ibilkariek.

c) Mauleko Saint-François kolejio-lizeo katolikoan, ez dago sail elebidunik: batxilergorako aukera bati buruz prestakuntza ttiki bat egiten du garatar apaiz betek, literaturako testu batzuk aurkeztuz ikasle zuberotar eta baxe-nabartarrei.

d) A.E.K.-ak dituen taldeetan, grafia eta hitz berriak Batutik (Gaurko bizi modua adierazten dutenak, alfabetatu gabeek erdaretatik hartzen dituztenak).

e) Unibertsitatean hein bat mugatua da zubererak har dezakeen tokia, orokorki, idazle batzuen testuetan edeitan eta kokatzen baita, edo zuberotar xahar zenbaitz egiten diren grabaketetan. Baina bere tokia badu dialektologian eta antzerkian, pastoralari esker.

3. **Prentsa idatzian:** zuberera guti, gehiena Batuko grafian eta hitz berriekin.

a) *Egunkarian* Junes Casenaveren zutabe batzuk, Batuko grafia eta hitz berriekin.

b) *Herria* astekarian, Zuberoako berriak zubereraz, grafia eta hiztegi berriekin, Panpella Etchebarne-ren lumatik (Allande Sokarroz-en segida hartu du). Bestalde Jean Hiriart-Urruty zenak ideki zuen “Jainkoa Bizia, Gizona” sailean, noiztenka nire artikulu bat zubereraz. Elizaren konduko denaz, elizako

grafian idazten dut, kontsonanteen ondoko H gehienak ezabatuz berriki. Hitz berriak ahal bezain urri, heren adineko irakurlea baitu Zuberoan sail horrek.

c) *Autour du clocher - Zeinützülian*, Zuberoako parropien hilabetekarian, artikulua bakar bat euskaraz, enea: elizako zuberera klasikoan ahalaz eta haren grafian hau ere.

d) “Le Miroir de la Soule” da hamabostetik frantsesez agertzen den kazeta bat. Elkarrizketa batzuk dakartza Pettarreko zuberera mintzatuan, ahoskatzen diren bezala hartuak, ortografia guzietatik ate.

Bestalde kazetetan, hala nola *Egunkarian*, maiz idazten dugu Batuan Peillen, Sokarroz eta nik.

4. **Irratietan.** Bi irrati libre daude Maulen: “Xiberoko Botza” eta “Mendi-Lilia”. Azken hau frantsesez ari da kasik beti, bestela Pettarreko zuberera arruntean; gutiz gehienetan euskaraz lehena, zuberera nahiko landuan, hizlari batzuegan bederen. hitz berriak Batutik hartuz. Horrela batzuk eguneroko zubereran sartzen ari dira, belaunaldi gazteetan bederen: hala nola “talde” hitza.

5. **Telebistan.** Oso toki guti du zubererak, bai hegoaldean, bai iparraldean, eta ulertzekoa da urritasun hori: elkarrizketa bakan batzuk, emankizun berezi zenbait, pastoral batzuen errepikapena. Hor ez dut ulertzen zertako testua Batuan agertzen den, edo hobeki erranik gipuzkera osatuan. Gauza bat zubereraz entzun eta beste euskalki batean irakurtzeak ez dut uste publikoa laguntzen duenik, alderantziz, gainera neurtitza buruz-behera jartzen delarik, edo zinez aldatuak, gutiz gehienetan behar gabe, ez baita Batutik hain urruti gelditzen zuberera klasiko bat...

6. **Literaturan.** Hiru idazle gara nagusiki liburuak idazten ditugunak: Peillen, Casenave eta ni.

a) Peillen, aspaldiko idazlea dugu zubereraz eta gipuzkeraz, orain zubereraz eta Batuan. Elaberri andana bat idatzi du gipuzkeraz eta Batuan. Beste lan batzuk, bereziki azterketakoak, zubereraz ontzen ditu, grafia eta hitz berriak Batutik hartuz. Ordainez, zuberotar hitz batzuk sartzen ditu Batuan.

b) Casenave, pastoralean ari da gehienik, zubereraz. Hamabi baditu idatziak, sei taularatuak. Mail gorako zuberera derabil, garbizalea, batetik hitz xahar galduekin, besteetik hitz berri berak asmatuekin. Baina gaur Batutik hartzen ditu. Batuan ere saiatzen da, zuberera eta amikuztarra gipuzkerarekin ezkonduz, hala nola *San Mixel Garikoitz* pastoralean. Baina elgarretatik hurrin daude bi euskara mota horiek. Uste dut Batura joaiteko, ezin garela lapurteraren gainetik pasa.

c) Nik zubereraz idazten ditut pastoralak, olerki herrikoiak eta artikulua batzuk; Batuan aldiz beste lanak: entsaio, elaberri, olerki jasoagoak. Olerkirako oso egokia zait Batua, hiztegia zabaltzen baitu eta maila gorago bat errezten.

Zuberoako poeta kultoek ez dute zubereraz idatzi, edo hain guti: Mirandek olerki bakar batzuk, Oihenartek batere ez.

Bestalde saiatzen naiz zuberera klasiko batean idaztera, Belapeyrenen ondotik elizak eman digun zuberera batu, "igantenean". Idazki pertsonaletan, Batuaren grafia erabiltzen dut, U letrari bi ahoskera emanaz (u eta ü), ez hiru beste berrizaleek bezala (u, ü eta i).

Bestalde Baturantz noa lapurteratik, hiztegia zabalduz hegoalderuntz eta bistan dena, Euskaltzaindiaren erabakiak eta gomendioak betez ahal oroz, beziki aditzan. Ez ditut nahastekatzen Batua eta zuberera.

d) Aipatzekoak dira gainera beste lau pastoral idazleak: Allande Aguergaray, Jean-Michel Bedaxagar, Pier-Pol Berçaits eta Roger Idiart. Grafia xaharra atxiki dute Aguergaray, Bedaxagar eta Idiartek. Azken honek, bestalde, lapurteraz eta batuan idazten du. Halaber Berçaits-ek, baina grafia berria erabiliz euskalkian ere.

e) Grafien arazo bat badugu zubereraz, noizbait Euskaltzaindian aztertu beharko duguna nire ustez. Berriki arte denek atxiki dute grafia xaharra, nik ezik, Baiona eta Arantzazuko legeak hastetik aplikatu bainizkion euskalkiari ere. Gero bat-batean, Batukoa hartu dute gutiz-gehienek. Ni aldiz beldurtzen hasi naiz grafiaren eragina entzunez ahoskeran, irratiatan, antzerki eta kantuan, idatzia den bezala ahoskatzen baitute batzuek, zubererak duen fonetika berezia zaurituz.

7. **Kantua eta bertsolaritza.** Bertsolaririk ez da gaur Zuberoan. Kantuan, hitz berriak Batutik hartzen dira eta ez, bi Etzahunek bezala, biarnesetik edo frantsesetik. Noiztenka nahastekatzen dira zuberera eta Batua edo beste euskalkiak.

Orokorki: Batuaren eragin nabarmena du gaurko zubererak hiztegian eta grafian, belaunaldi nahiko berrietan bederen.

Bestalde iduri zait iparraldean Baturantz gehienik entsaiatzen garenak zuberotar batzuk garela, zehazki Peillen, Sokarroz eta ni, bestalde Itxaro Borda amikuztarra, zuberotartzen ari dena.

II. NAFARRO-LAPURTERA ETA BATUA

1. Lehenago, eta berriki arte, lapurtera klasikoa zen Elizako hizkuntza Lapurdi eta Nafarroa Behere guzian, "gare" bezalako aditza formekin.

a) Mezaren bizkar-hezurra Batutik hartua da, baina "zira" bezalako aditza forma ekialdetar batzuekin.

b) Gaineratekoa nafarro-lapurteraz, hiztegi batua beti kontutan hartu gabe. Grafia berria ere ez da beti errespetatzen: adibidez idazten da “Onhartu”, “konbertitzerat”, “bortz”, “bertze”...

Beraz nagusiki nafarro-lapurteraz egiten da elizan, agian lapurteraren lehenetasun batekin.

2. Erakaskuntzan:

A) **Seaskako ikatoletan**, egoera desberdina da toki batetik bestera, gu-raso, ikasle eta erakasleen arabera.

a) Euskal Herri barnean, tokiko euskaratik abiatzen dira; gero hura puska bat lapurtartzen dute eta Baturantz idekitzen 1. maila bukatzean, hegoaldeko liburuak erabiliz.

b) Kostaldean, ikasle batzuk badaude E.H. barnetik, erakasle batzuk hegoaldeetik, eta egoera nahiko nahasia da. Bi toki nagusi aipatuko ditut: Baiona eta Hendaia. Baionan erakasleak badira E.H. barnetik ere, beraz nafarro-lapurteratik abiatzen dira nagusiki. Hendaian aldiz hegoaldeko ikasleak daude gehienik eta gipuzkeran oinarritzen da ikastolako euskara.

c) Bigarren mailan Euskara Batuaz baliatzen dira. Hargatik iparraldeko idazleak ere aztertu nahi dituzte. Antologia tiki bat abiatua du Charrittonek.

d) Duela urte zenbait, eztabaidak baziren erakasleen artean: batzuk Batuaren alde, besteek euskalkia ere behar zela, hegoaldeko euskarak toki gehiegi hartzen zuela eta abar... Orain iduriz gairidituta dago giro hori. Euskararen politikaz arduratzen dena Seaskan, hego aldeetik etorria da duela urte asko, eta ederki menderatzen du horko euskara mota nagusia. Iparraldeko estandarta bi-latzen du, aditza batuari txertatua. Beraz Seaskako joera orokorra da euskalkitik abiatuz horren zabaltzea Batuari buruz.

B) **“Ikasbi” sare publikoan**. Goiko agintarieratik, tokiko euskararen mintzatzeko manua dute hezkuntza nazionalako erakasleek. Baina erakasleen joera da idazkeran Batura pasatzekoa.

a) Erakasle batzuk euskaldun berriak dira eta ez dute euskalkirik menderatzen. Aditza lapurteran baino errezagoa da Batuan. Ikasle askok ez daki euskaraz. Beraz oztoporik ez dago Batuan artzeko, Kosta partean eta hirian bederen.

b) Barneko aldean, kontutan hartu behar dute ikasleen euskalkia eta guziz gurasoen nahia. Baina horretan ere zabala izan behar da, zeren ez dute denek ber hizkuntza mota. Hazpainen ikasten dutenek adibidez, hiru euskara mota dituzte: Aiherrakoa, Hazparnekoa eta Beskoitzekoa. Beraz nafarro-lapurtera za-baldu batean hitz egiten die erakasleak eta idazterakoan Batura pasatzen da aditza, hilabeteen izenetan eta abar...

c) Orokorki beraz erakasleen joera da Batura igaitekoa idatzian.

C) **Eskola katolikoan** (Euskal Heziak). Euskararen arduradunak xaz formakuntza bat antolatu du Batuaz erakasleentzat.

a) Lehen mailcan, lapurteraz egiten da, erran didanaz (agian nahiko lapurteratua den behe-nafarrera horretan). Emeki-emeki Baturantz idekitzen has-ten dira.

b) Batuan ikasten dute gehienik bigarren mailcan.

D) Beraz hiru eskola sareetan ber joera nabaritzen dugu: tokiko euskara mintzatutik, edo hobeki, normalizatutik abiatuz, Baturantz joatea. Baturanzko joera hori, Seaskako ikastoletan azkarrenik dakusat, eta eskola publikoan iduriz ahulenik. Azken horretan, ez dago horretarako goienetik datorren gomendiorik. Erakasleen nahitik dator, bai eta euskalkien ahuleziatik, bereziki itsasaldeko hirian.

E) **A.E.K.an:**

a) Gomendatzen dute lehenik tokiko euskaratik ahal bezain hurbil artzea, familian eta inguruko jendearekin laster euskaraz egiteko.

b) Baina liburuak Batuan dira: idatziz Batuan egiten dute, edo Baturantz ibiliz, Euskaltzaindiak eman bideetatik. Aitortzen dute lan zaila dela bien el-garri egokitzea, zeren batzutan protestak entzuten dituzte: "etxean ez dugu ho-rrrela erraiten..."

F) **Unibertsitatean:**

a) Peillen gehienetan Batuan, baina iparraldeko etsamenetara prestatzeko, lapurteraz ere ari da. Beste erakasle gehixenak berdintsu.

b) Orpustan nafarro-lapurteraz, lapurterari leku ederra emanez eta hitz berriak Batutik hartuz.

3. **Kazetetan:**

a) "Herria" astekarian, euskara desberdinak badaude: zubereraz jada erran guti haiek, Mariano Izeta baztandarraren lapurtera gozoa, Dirassarren Hazparneko behe-nafarrera mendebaltarra... eta nagusiki nafarro-lapurtera. Emile Larre eta Jean Haritschelhar euskaltzainek Baturantz bideratzen dute adiz-tzan, erakusleetan eta ahal bait hiztegian ere. Denetan euskara ona du Herriak eta euskaraz idatzi nahi duten guzientzat irakurri beharra dela iduri zait.

b) "Ekaitza" eta "Enbata" abertzale astekariek eta "Har Hitza" 15-ekoak arras euskara guti dute. Baturantz idatzitako editorial edo berri laburrak da-kartzate, baxe-nabartar kutsu gehiagorekin Ekaitzak, lapurtera gehiagorekin Enbatak eta H.H. ak.

c) Nafarro-lapurterazko editorial bat dakar iparraldeko Berdeen hilabe-tekari xumeak, hiztegi nahiko zabalarekin.

d) “Maiatz” literatura aldizkaria, belaunaldi berrien adierazgarri dugu. Olerkiaren eremua da gehienik. Baturanzko ildotik doa nagusiko. Hor aurkitzen ditugu bestalde nahiko ezagunak diren izenak, hala nola Eñaut Etxamendi, Itxaro Borda, Aurelia Arcocha, Jakes Ahamendaburu, Henriette Aire (Xalbador zenaren alaba), Lucien Etcheçaharréta...

4. Irratietan:

a) Irulegiko Irratian (gaur Donibane-Garazitik), mendebaleko behe-nafarreraz egiten dute, hitz berriak Batutik hartuz.

b) Gure Irratian (Baionatik), nafarro-lapurteraz egiten dute hiru mintzari nagusiek, “euskara batu(a) kotsiarekin artetan, edo hala hautaturik edo ohartu gabe ere” (Arbelbide). Animatzaileak euskara batuan edo baturantz, euskaldun berriak baitira edo Ikastolatik jinak. Herrietako berriketariak, beren euskararen: Elçhamendy garaztar osatuan, Olhagaray nafarro-lapurteraz. Elkarrizketak, bakoitzak bere euskararen.

c) Euskadi Irratian, Baionatik, Agostin Errotabehere Batuan ari da, edo gutienez baturantz doan euskara zabalean.

d) Radio France Pays Basque delakoan, egunean minuta zenbaitez ari da Marie-France Hégu, nafarro-lapurteraz, hitz berriak Batutik hartuz.

5. Telebistan, Baionatik:

a) Euskal Telebistan, Guillaume Irigoyen ari da nafarro-lapurteraz, Batutik hartuz hitz berriak (iparraldean ez ditugularik), ez hargatik aditza eta erakusleak. Haren laguntzaile den anderea, Tolosakoa, bermatzen da bere jatorrizko euskararen iparraldekotzera hiztegiaren aldeetik.

b) Akitaniako berrietan FR3 frantses 3. Kateak, arratsetan bizpahiru minuta ditu euskaraz, Allande Boutin-en ahotik. Parisko zuberotar baten semea, euskaldun berria, Batuan ari da, gipuzkeran oinarrituz gehien bat.

6. **Literaturan.** Idazle guziek, edo guti eskas, Batuko grafia derabilagu eta hitz berriak Batutik hartzen ditugu. Hortik at, diferentziarik badago gutartean Batuari begira.

Joeren aztertzeo, 33 idazle (1) begistatu ditut Nafarroa Beherean eta Lapurdin: heren bat ekialdekoa, beste bat mendebalekoa, azkena Lapurdikoa, baina 3 idazle baizik ez dut lapurteraren eremutik. Multzo gutiztik, 11 dira (beraz heren bat) euskalki batean idazten dutenak:

(1) 1994.eko martxoko “Maiatz” aldizkarian (n.º 21) Lucien Etcheçaharretak 50 idazle kondatzen ditu Iparraldean, Charrittonek 60, libururik idatzi ez duten kazetari batzuk hartuz. Nik bazter utzi ditut gazte batzuk, ez ditudalako aski ezagutzen idazle bezala, bai eta libururik ondu ez duten luma on batzuk, hala nola Mixel Itçaina, Mixel Lecuona eta Jean Hiriart. 40 gelditzen zaizkit beraz (33 + 7 zuberotarrak).

— Bi gizon garaztarrez: Dunipétre olerkian (Piarres Héguitoa), Etchamendy narratiban.

— Biga lapurteraz, olerkian: aita Iratzeder eta Agostin Zamora senpertia.

— Hazpandar bat (beraz lapurtarra), Dirassar, horko behe-nafarrera berezian ari da, narratiban.

— 6 baxe-nabartar, dela ekialdeko, dela mendebaleko, nafarro-lapurteraz ari dira, gehien bat narratiban, hitz berriak Batutik hartuz iparraldeak ez dituenan, hargatik beren aditza eta erakusleak atxikiz: Xan Irigaray, G. Irigoyen, Echarren, Orpustan, J.M. Malharrin eta M.J. Minaberry andereak.

Beste bi herenak Baturantz doatzi, nafarro-lapurterari erantsiz aditza eta erakusle batuak, hilabeteen izenak eta hitz berri batzuk, hala nola “talde, elkarte, irrati, antzerki, antzoki, elaberri, opor, egunero, ulertu, erantzun”, eta abar... Baina hor ere arterik badago idazleen artean. Adibidez G. Lantzirik itzulpenetan gipuzkera hartzen du oinarritzat, beste batzuk aldiz behe-nafarretatik oso hurbil egoiten dira Euskaltzaindiaren arauak bete ondoren. Hor gora heldu zait galdera bat: zein dira Batutik hurbilenak, azken horiek ala, Etcharren bezala, nafar aditza eta erakusleak atxikiz, oso hiztegi zabala dutenak?

7. Bertsokak eta kantua:

a) Bertsolari munduan egoera nahasia ikusten dut euskararen aldeetik, bereziki Euskara Batuari begira. Mattin eta Xalbadorren denboran, Batuari buruz urrats eta pauso handiak egin zituzten elgarri buruz joanez ipar eta hegoaldekoek. Orain iduri zait konbergentzia horretatik urruntzen ari garela, gipuzkera mota hertsia bat Euskara Batutzat hartuz: adibidez entzuten da “det” hara eta “det” honara, iparraldekoek horretan amor emanez, eta “det” hori ez da etsenplu bat baizik beste askoren arteetik. Ez dut erran nahi gaurko bertsolariak atzokoak baino ahulagoak direnik, ez gutiago ere, baina euskararen batasunaz dugu solasa.

b) Kantarien mundua orokorki Baturantz ibilki dut ikusten Iparraldean, hinki-hanka, maiz olerkiarekin eskuz-esku, hargatik zehaztasun eta zorroztasunik gabe. Baina akats hori, anarkia hori ez ote da orokorra, ez ote da euskarak iparraldean bizi duen bilakaera guziarena?

III. IKUSPEGI OROKORRA

Hegoaldean iduri zait euskararen mundu hau adi-adi dagola, Euskaltzaindiak zer erranen duen zain, haren arauen berehala betetzeko. Iparraldean ez da horrelakorik. Horko ereduak, “Académie Française” famatua da: jaun zahar batzuen arteko “club” ohoragarri bat, errana baita lauren lana egiten dutela, baina

berrogei direla. Praktikan inork ez daki zertako diren, zer debru ari diren. Beraz ez dugu, ohoreaz kanpo, helgoaldean bezalako itzalik.

Baina Euskara Batua abertzaleen ideologian dago eta hortarantz doa ba-koitza bere bidexkatik. Gainera jende askoren muinetan sartua da, aldekoen ala aurkakoen artean, gipuzkera dela Euskara Batua. Beraz gazteen artean badago gipuzkerara xuxenka joaiteko joera, gaizki menderatuz eta beren herri euskaldunetik urrunduz. Badago ere kasu bakar batzuetan ekialdeko euskalkietatik abiatzeko joera, gipuzkera pozi bat haietan txertatuz, gaztelaniatik ere hitz batzuk hartuz, hala nola “espektakulo”, badugularik “ikuskitun” edo “ikusgarri”. Ez da hor koherentziarik, orekarik ez egiazko batasunik.

Orokorkiago, lapurtera gehiegi bazter uzten dugu iparraldekoek ere, gure literaturaren ardatza delarik, huts handia baita baturako bidean eta batuaren mian, gipuzkerak bezainbat leku behar duelarik hor lapurterak.

EUSKARA BATUA / EUSKALKIEN ERABILERA IPARRALDEKO HIRU EUSKAL IRRATIETAN

Tolosa, 96-X-18

Jojo Bidart

Lehen-lehenik, erran behar dizuet ez dugula gaia funtsez aztertu eta ez dugula beraz politika finkaturik Iparraldeko hiru euskal irratietan (Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegiko Irratia) baina eguneroko egin molde bat dugu eta hori dut aipatuko.

1. Irulegiko Irratia sortu delarik gure helburu nagusiak argi genituen:

1.1. Euskara komunikabideetan baliatua izatea etxetik kanpo. Eguneroko komunikazio funtzioa bete dezan euskarak, normaltasun osoz, gaurko tresnak (teknikak) baliatuz, 1981ean, irradi librean onartu zituen lege berriak emaiten zigun eskubidea baliatuz.

1.2. Irratia tokiko komunikazio tresna bat izatea:

— Jendeatarik hurbil, eremu hurbileko gazetaz ari.

— Jendeek baliatzen ahal dutena.

Komunikazioa ez baita norantza (sentsu) bakar batekoa izan behar. Komunikazioa hartua eta emana izan behar da. Entzuleak mintzalariak ere dira; entzuleek badituzte gauzak erraiteko eta jakinarazteko. Irratia entzuten da, irratia mintzatzeko ere da. Komunikazio interaktibo tresna izaten ahal da eta hala nahi genuke izan dadin.

Ipar Euskal Herri barnekaldean jende gehienek euskara badakite eta portzio handi batek du euskara ulertzen. Horregatik ez da sekulan arazorik izan (hizkuntzaren aldetik), nahiz eta Irulegiko Irratia irradi bakarra izan Baxe-Nafarroan, gure emankizunak % 90ean euskaraz egiteagatik.

2. Tokiko irratia - tokiko hizkuntza:

Entzuleek irratia heien tresna dela sendi dezaten nahi dugu. Hortarako, heien hizkuntza entzun behar dute eta beraz tokiko euskara, baxe-nafartarra, erabiltzen dugu irratilariak.

Ez dugu, mintzatzeko maneraren aldetik, zatiketarik sortu nahi irratiko lankide eta tokiko jendeen artean (mintzalari edo entzule izan).

3 arrazoin nagusirengatik dugu gure euskalkia erabiltzen:

- Hurbiltasunarengatik.
- Erabilgarritasunarengatik.
- Goxotasunarengatik.

Hurbiltasuna:

Entzuleekilako hurbiltasuna delako gure berezitasun baikorrenetakoa, hizkuntza hurbilena dugu erabiltzen egun guzietako emankizunetan, berri sail, magasina, mahin inguru edo gai berezi baten inguruko emankizunetan.

Hizkuntzaren hurbiltasuna atxiki nahi dugu irratiko lankideen eta irradian mintzaten diren Euskal Herri barnealdeko bizi sozial eta ekonomiko partaideen artean.

Erabilgarritasuna:

Bestalde, nahi dugulako gure entzuleak komunikazio partaide aktiboak izan daitezzen, ez ditugu hizkuntzarengatik beldurrarazi behar.

Konfiantza eman behar diegu, horiek ere irradian mintzatzeko gai direla sendiaraziz, egunero erabiltzen duten euskara baliatuz bixtan dena.

Maiz entzuten dugu: “Ni, ez naiz kapable”; “Ez dakit zuek bezala mintzaten”; zombait aldiz ere: “Ez dut zuen euskara emaiten”.

Behar ditugu entzuleak mintzalari izaten lagundu, batzuetan akulatuz, beste batzuetan konfiantza emanez. Hor baditugu adibide frango: teknikalari edo gai zehatz batetaz mintzatu behar dutenek, usaia eskasagatik ez dira menturatzten euskaraz aritzera bainan denbora hartuz, eta lehen grabaketak laburrak eginez, segurtasuna hartzen dute pixkanaka (gauza bera politikariekkin eta beste...).

Goxotasuna edo irratia-entzuteko plazerra:

Hori baitezpadakoa da nahi baditugu entzuleak atxiki edo berri batzuk gureganatu, irradi bat ez baita nehoiz ez nihun bortxaz entzuten baina plazerrez.

Eguneroko animazioetan, jokoetan, sortzen eta muntatzen ditugun irrati antzerkietan (*Antton eta Maria* bezala), lortzen dugu gure entzulegoaren “fidelizatzea” edo atxikimendua, besteak beste tokiko hizkuntzak emaiten duen goxotasuna eta berotasuna baliatuz.

3. Ez gara gure eskualdean isolatu behar. Euskal Herriko partaideak garelako, gure euskalkia Euskal Herri guziko euskararen egoerari lotua delako.

Lehenago, tokiko irrateria eta tokiko hizkuntza aipatu dut bainan irratiko uhainak ez dira probintzia batean edo euskalki baten lurretan mugatzen.

Irulegi Irratiko entzuleen parte inportante bat (heren bat) Lapurdin bizi da.

Baxe-Nafarroan egoitza eta hedagailu nagusia duen irrati bakarra baldin bada ere Irulegiko Irratia, irrati bat baino gehiago entzuten dute baxe-nafarrek.

Baxe-Nafarroko jendeek eremu hurbileko berriak entzun nahi dituzte gu bezalako irrati bidez bainan ez bakarrik Baxe-Nafarrokoak, biztanle aintzek badituelako eguneroko harremanak auzo probintzietan:

- Batzuek egun guzietan kostalderako bidea egiten dute lanean aritzeko.
- Eskualde esberdinetako laborariak gero eta gehiago elgarretaratzen dira.
- Euskal herri barnealdeko herri nagusien arteko loturak moldatzen ari dira.

Eguneroko bizia ez da bakotxa bere herrian, probintzian edo euskalki baten eremuan mugatzen. Jendeak gero eta gehiago mugitzen dira. Lotura gero eta gehiago bada Iparraldeko probintzien edo/eta kostalde/barnekoaldearen artean, bai eta ere Hegoaldearekin (oraino ez arras errealtatera pasatua) eta euskal irratiek ere izan behar dute errealtate horren islada eta gehiago dena, bultzatzaile.

Ondorioz, euskalki bat baino gehiago entzuten da gure irratiaren. Lotura bereziak ditugu Xiberoko botza eta Gure irratiarekin. Xiberoko Botzak, Irulegiko Irratia bezalako egin moldea du eta emankizun asko egiten dugu elgarrekin.

Baxe-Nafarroko eta Lapurdiko entzule aintzek xiberotarra eta Xiberoko entzuleek manexa entzuten dute egun guzietan. Hastapenean bitxi iduritzen bazitzaie ere, azkenean onartua dute. Usaietan sartua da.

Programazioaren erdia baino gehiago elgarrekin dugu, ez da batere elgar ulertzeko arazorik mintzalariak hemeki aritzen badira.

Gure irratiarekin ez da sekulan hizkuntz arranguririk izan, ez baita halako desberdintasunik Arrangoitze edo Miarritzeko euskara eta Aldudekoaren artean.

Emankizunak ere baditugu Baztango Xorroxin irratiarekin: goiz guzietan be-ri sail bat eta astean behin emankizun luzeago bat.

Emankizun horiek gure bi entzun eremuetan hedatuak direlako, ez dugu gure mintzatzeko manera aldatzen eta ukan ditugun entzuleen oharrak mintzalarien boz doinuaz edo eritmoaz, batzuetan aipagaietaz izan dira, sekulan ez erabilitako hizkuntzaz.

4. **Eta euskara batuaz, zer?**

Euskal Herriko komunikazio tresna bat izanez, euskara batuaren erabiltzera ere behartuak gara hein batean.

Hegoaldeko jendeak etortzen dira gure irratietarat; Hegoaldetik gero eta usuago deitzen gaituzte Iparraldeko berrien ukaiteko.

Ulertuak izaiteko, gure euskara batua erabiltzera entseatzan gara. Bestalde, Hegoaldeko komunikabideak egunero erabiltzen ditugu: irratia, egunkariak, aldizkariak, euskal telebista... eta egunero normalizatzen eta batzen ari den euskara irakurtzen eta entzuten dugu. Ondorioz, nahi ala ez, erran molde eta hitz batzuk gureganatzen ditugu.

Gainera, gure entzuleen belarriak ideki eta usatu nahi ditugu, hein batean, euskara batuari, manexak xiberotarrari usatu ditugun bezala:

— Alde batetik, hegoaldeko euskaldunak pixkanaka uler ditzaten.

— Bestaldetik, behartuak garelako: eguneroko bizian erabiltzen ez den hitz tekniko edo espezializatu bat baliatu behar dugularik konparazioe.

Orduan, hitz berriaren segidan bere erran nahia emaiten dugu edo frantseskeria erabiltzen, ulertuak izateko. Adibidez: *aurrekontua orekatu edo aitzin budjeta ekilibratu dute*; hauteskundeak = bozak (gehienen usaian sartua).

Egia erran, ez dugu hori gehiegi egiten ahal, sobera aspergarria ez izateko. Bainan erran molde eta hitz batzuk hasten dira entzuleen usaietan sartzen, nahiz eta entzule batzuek erraiten diguten oraino ez dugula egiazko euskara mintzatzan (osoki heien herrikoa bixtan dena).

Preseski, entzuleen irizpidea garrantzitsua delako, interesgarri da berriki Iparraldeko hiru euskal irratiek eginarazi dugun inkestaren behatzea.

Inkesta joan den primaderan egina izan da, euskara ongi ulertzen duten Iparraldeko 76.000 jendeen artean, 1.200 dira galdezkatuak izan.

Iparraldeko euskaldunetarik, % 60a (45.000) hiru euskal irratien entzulea da.

Horien artean, entzule fidelak —egunero entzuten dutenak— erdia baino gehiago (23-24.000) dira.

— Irratietan erabiltzen dugun euskararen ulermenari buruzko balorazioa:

	Irulegiko I.	Xiberoko botza	Gure irratia	Bataz beste
Euskara egokia eta konpreni errexa	% 80	% 72	% 57	% 69
Egokia bainan konpreni nekea	% 17	% 26	% 38	% 27
Konprenitzeko nekeak	% 0,3	% 1,2	% 1 (erdal. % 4)	% 0,8

Konprenitzeko neke gehien dutenak Gure Irratiko entzuleak dira. Ez da errex jakitea zergatik izan daitekeen:

- Erabilitako hizkuntzarengatik.
- Entzuleen ulermen mailarengatik.
- Etab...

— Lekuko euskara/batua (entzuleek irratian entzun nahi luketen euskara)

	Irulegiko irratia (Baxe-Nafarroa)	Xiberoko botza (Xiberua)	Gure Irratia (Lapurdi)	Bataz-beste
Orain arte bezala	% 66,5 (75)	% 45 (38)	% 42	% 51
Lekuko euskara (+)	% 24 (12)	% 47 (58)	% 42	% 37
Batua (+)	% 3,7 (3,4)	% 4,8 (2,8)	% 11	% 7

Adinka: batuaren aldeko joera handiena gazteen artean da.

Irulegiko Irratia: % 8.

Xiberoko Botza: % 15.

Gure Irratia: % 17.

Ez gara bakarrik entzuleen nahikerietan mugatu behar bestenez, Xiberotar gehienek hola nahi dutelako, xiberotarra bakarrik entzunen da Xiberoko Botzan.

Gure helburuak argitu eta jokamoldeak hautatu behar ditugu entzuleak onart ditzan, batzuetan berak nahi duen alderat joz, beste batzutan pixka bat akulatuz, batua gehiago sartuz, baina beti homeopatia erabiliz, entzuleak ez galtzeko gisan.

Bururatzeko, Iparraldeko euskal kasetariek Euskaltzaindiarekin abiatu duten lana garrantzitsua iduritzen zait:

— Komunikabideetan beharrezkoak ditugun erran nahi zehatzeko hitz tekniko edo berrien itzulpena elgarrekin finkatzeko (atxemaiteko).

— Bestalde, eremu tipia duen Iparraldeko euskal prentsan ez ditugulako hitz ezberdin gehiegi erabili behar gauza bera erraiteko.

Nahiz ez dugun euskalkien aberastasuna ezeztatu behar, hautsi-mautsi bat atxeman behar dugu, aberastasuna/pratikotasuna edo entzuleen ulermenaren artean. Gainera, gure euskalkiek dute hazi behar egunero moldatzen eta aberasten ari den euskara batua.

Hori guzia gure ahalekin arabera. Egin beharra handia dugu (emankizunak egiterakoan, hizkuntza erabiltzerakoan) eta ez ditugu irratia profesionalen ahalak.

Egun guzietako lana segitu behar dugu, hautuak eginez, lehentasunak hauek ditugarik:

- Euskal irratietako entzuleen kopurua emendatzea.
- Mintzalari gero eta gehiago ukatea.

EUSKALKIAK EITBn: ORAIN ARTEKO JOKABIDEA ETA ONDORIOAK

Tolosa, 1996-X-18

*Igone Etxebarria,
EITBko euskara arduraduna*

EITBren sorreratik bertatik erabaki zen Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan euskara batuaz egingo zela. Nik dakidala, erabaki horretarako arrazoi bi hartu ziren kontuan batez ere: alde batetik Euskal herri osoko eta era guztietako euskaldunentzat zenez, eredu bateratua zen egokiena, euskararen batasuna ere helburu horrekin egin zen eta. Bestetik, euskara batuak aurrera egitea nahi izanez gero euskara horrek komunikabideetan lekua eduki behar zuen, ezin zen aurrerapen bide horretatik kanpo geratu, bestela ez zuen nahikoa zabalkunderik hartuko.

Horrek eragozpen nagusi bi zituen. Alde batetik euskararen batasuna egin barik zegoela, aditz laguntzailea, deklinabidea eta ortografia kenduta, ez zegoen zeri heldu handirik. Horrez gainera, batasuna eredu literarioari begira sortua zen, eta gure esparrua ahozkoa. Beraz, gero argi ikusi denez, ondo bereiztu beharreko esparru ezberdinak dira idatzia eta ahozkoa, eta bakoitzak erregistro eta eredu bereziak behar ditu. Horrek ez du esan nahi batak eta besteak loturarik ez daukatenik, baina esateko bada ezin da idatzi literarioa egin beste barik.

Horrez gainera, telebista bera medio berria zen behargin gehientzat, eta euskara ere berria zen erabilera horretan. Irratian bazegoen tradizio apur bat, asko ez bazen ere, baina telebista guztiz berria zen bai euskararako, bai beharginentzat eurentzat ere. Beraz, gure hizkuntzak ordura arte erabili gabeko medioan sartu behar zuen, eta bide batez hizkuntzaren batasuna egin. Argi dagoena da ezin dela dena aldi berean, arin eta ondo egin.

Dena den, hamabost urte dira ia EITB sortu zenetik, eta bide luzea egin da denbora horretan, onerako eta txarrerako.

Alderdi onak aipatuz hasiko naiz. Alde batetik lehenengo ikusten dena da normaltasun maila bat lortu dugula. Orain hamabost edo hamar urte arraro ematen zuten hainbat espresio, berba eta esamolde gaur egun normal-normal entzuten eta ulertzen ditugu, entzuleetarako askok behintzat. Horrek esan nahi du ohitura batzuk erroto eta oinarri batzuk finkatu egin direla.

Honekin lotuta dago gero eta jende ikasi gehiago dagoela. Oraindik euskaraz alfabetatugabeak badira, baina dagoeneko, 30-35 urtetik beherako gehienek gutxi-asko, baina zerbait ikasi dute. Ikasketa modu eta mailetan sakabakak eta tipologia askoz ere ugariagoa da gaurkoa, baina alfabetatu ez alfabetatuen arteko bateraezintasuna gero eta kasu gutxiagotan gertatzen da.

Hamabost urte ez da denbora asko historian zehar, baina halako medio batean nahiko epe zabala da bilakabidea ikusteko. Ez dago dudarik hainbat kazetari, aurkezle eta aktore dagoeneko medioetako profesionalak direla, eta ez ofizioan hasiberriak besterik gabe. Profesionaltasun horrek, aldi berean, eragin handia du lanaren kalitatean. Besterik gabe, mikrofono eta kamarari beldurra galtzeko ziurtasuna dakarkio esatariari, eta kamararen pentzutuan egon beharrean hobeto jabetuko da zer eta zelan esaten ari den.

Urteotako ibilbidearen beste ondorio bat lan egiteko sistema eta bitartekoetan egin diren aurrerapausuak dira. Zenbat eta bitarteko hobeak izan eskuartean hainbat eta aukera gehiago lana hobeto borobiltzeko. Eta era honetako arloak ziurtatuta edukiz gero, errazago da beste batzuetan ardura handiago jarzea.

Hizkuntzari berari helduta, nik aldaketa progresiboa eta nabarmena somatzen dut ahozko komunikabideetan hasieratik hona. Lehenengo urteetan uste dut hizkuntza lotuegia, estuegia egiten zela. Bat-batean dena berriren berri sortzen hasi beharrak lehendik geneukanetik abiatu eta apurka-apurka egokitzeko betarik ere ez zuen eman. Informatiboak, filmeak, dena zen orokorrean oso lotua.

Gaur egun beste jokaera batzuek agintzen dute komunikabideetan. Egia esan, hizkuntzaz kanpoko faktoreek ere eragin handia daukate: kateen arteko kompetentzia, modako irrati eta telebista ereduak, eta abar. Gaur egun orokorrean herrira hurreratzeko joera da nagusi. Pertsonengana jo, herriko gai hurrekoak erabili, jendeak zuzenean parte hartzea... halako irizpideak nagusitzen ari dira. Gero eta saio gehiago dago herririk herri egiten direnak; edo, bai etxetik telefonoz bai bertara joanda, jendeak parte hartzeko leihaketa eta eztabaidak; edo eskaintza eta antzekoak egiteko programak.

Beraz, bi faktore nagusi daude: alde batetik hasierako nondik norako eta bitarteko eskasak ekarritako hieratismotik apurka apurka askatzen joatea (jazkeran bertan ere nabaritzen da gero eta alde gutxiago dagoela kanpoan eta pantaillan jatzeko moduan); eta bestetik komunikabideek herriarengana hurreratzeko gaur egun dagoen joera. Faktore bi horiek ekarri dute hizkuntza ere gero eta soilagoa, eta batez ere komunikatiboa izan beharra.

Bide honetatik nik uste dut asko aurreratu dela urteotan. Adibide moduan Administrazio hizkuntzatik hartutako hainbat berba aipatu daitezke. Informatiboetan sarritan erabiltzen dira halako gaiak, eta "arduralaritzea, kudeatu, kudeaketa, ekimen" eta antzekoak asko erabili izan diren arren, berriro atzera egin

da eta “administrazio, gestionatu, gestio, eta inizatiba” ere lotsarik gabe erabiltzen dira. Hizkuntza, gainera, bizia den neurrian, berak aukeratzen du. Horrela bada, “ekintza, egitasmu” eta halakoak hobeto bereganatu ditu. Gauza bera gertatu zen Sabino Aranaren neologismoekin. Gaur egun nahiko baztertuta daude *urrutizkin*, *bultzi*, *txadon*, *urrunbegi* eta *izparringi* berbak, baina geureganatuta dauzkagu *espetxe*, *aberri* eta *ikurrin* esaterako.

Lehen aipatu dudan hieratismo eta estutasunaren eragile nagusienetarikoa bat zera zen: ahozko komunikabideak izanik, beti dena aurretik idatzita egotean, ahozkoa barik idatzizko eredu erabiltzea. Hau da, telebistan batez ere, dena idazten da, beti dago paperaren soportea: informatiboak, bikoizteko itzulpenak, erreportaien gidoiak, baita elkarrizketetarako galderak ere, gutxi gorabehera baino ez bada ere. Horrek, gura barik eta konturatu barik ere, idatzizko erregistrora errotan gaitu beti, nahiz eta ahaleginik handiena egin hortik asartzeko.

Behin horrekin konturatuta, eta lehen aipatu dudan profesionalen ziurtasun eta soltura handiagorekin, asko aurreratu da hortik aldentzeko bidean. Ez behar beste oraindik, baina honezkero lehengo eredutik urrun gaudela esango nuke.

Ahozko hizkerak baditu hainbat bitarteko loturak egiteko, bizitasuna emateko, adierazgarritasuna intentzio ezberdinekin erabiltzeko, etabar. Sarritan nahikoa da “edo, eta, gero, bada” edo antzekoren bat behar den lekuan eta behar duen doinuaz sartzea, testu baten bizitasuna guztiz aldatzeko eta euskal doinu naturalagoa lortzeko gauza bera esanez. Ez dira berdin entzuten “Ez ezazu hori egin!” eta “Ez ezazu hori egin gero!”.

Baina aitortu beharra dago paper baten aurrean, gainera itzulpena eginez sarritan, eta normalean asti handi barik, zaila dela gauza onik ateratzea aipatzen ari garen haritik.

Lehenago esan dut gero eta profesional gehiago dagoela, eta horrek erraztu egiten du gidoitik atera ahal izatea eta inprobisaziora jo ahal izatea. Eta bestetik, gaur egiten diren saio-motak ere askatasun hori zabalago uzten dutela esango nuke. Beraz, hiztuna euskaldun ona bada emaitza askoz biziago eta naturalagoa izango da dudarik gabe.

Behin hona helduz gero, euskalkien presentzia eta erabilera handiagoa eta garrantzitsuagoa izango da. Herrira hurbiltzeak eta inprobisaziorako atea zabaltzeak, biek jotzen dute bete-betean herri-hizkera eta euskalkiekin.

Edozein modutan ere, irratia eta telebista medio ezberdinak dira, eta honetan ere ezberdin jokatu izan da batean eta bestean. Irratia beti izan da medio biziagoa, arinagoa, eta jendearengandik hurrago egon da beti. Horrek erraztu egin dio irratitari gaur egun telebistara ere heltzen ari den komunikazio zuzena lortzea entzuleekin. Eta beste alde batetik, irratia bat baino gehiago entzuteko

aukera daukagu baita euskaraz ere, beraz, gure euskalkia edo beste eredu bat erabili, gustokoagoa zein dugun hura aukeratzeko modua daukagu. Telebista bakarra izan da, eta horretan batu behar izan dira bai ikusleen gustu guztiak bai hizkuntza eredu guztiak. Egoera hau ere asko aldatu da eskualde edo herri mailako telebistak agertzen hasi direnetik. Orain leku askotan daude halako telebistak, eta herriko berriak ematen dituzten moduan, hizkuntzan ere herrikoari heltzea daukate, euskaraz lan egiten dutenean behintzat.

Orain arteko ibilbidean euskalkiek eduki izan dute lekua bai irratian bai telebistan saio berezi batzuetan. Esaterako, aldi batzuetan Euskadi Irratiko korresponsalietako kazetariak lekuan lekuko hizkera erabili izan dute. Gauza bera egin izan da Euskal Telebistako informatiboren batzuetan inoiz. Hau da, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionako berriak lekuan lekuko hizkeran ematen ziren, informatiboaren barruan berri lokalak emateko zegoen atalean.

Baina hortik aparte ezer gutxi egin da. Gonbidatuak eta programetako parte hartzaileek dakarten hizkera alde batera utzita, bertako esatariek ez dute ia inoiz bakoitzak bere euskalkia erabili izan.

Baina gauza jakina da euskalki bateko hiztuna denak, batuaz egiten duenean ere, bere hizkerako iturritik edaten duela. Hortaz, sarritan agerikoa da berbaz dabilena bizkaitarra den, gipuzkoarra, edo Iparraldekoa, nahiz eta batuaz hitz egin.

Dena den, orain arte esandako guztia alderdi ona izan da, baina dena ez da ona. Orain arteko honek beronek irakurketa ezkorrerako bideak ere ugari ematen ditu. Nik hala ikusten dut behintzat.

Jokaera hauek arrisku bat baino gehiago dute. Besteak beste, herrira jotzeak lokalismoetara jotzea ekar dezake. Zenbat eta herriko hizkeratik hurrago ibili herri jakin batera jotzea errazagoa da, eta halakoetan norberaren etxeko berba, esamolde, ahoskera eta entonazio bereziak tentazio handia dira edozeinentzat. Bestalde, gauza jakina da norberaren hizkera bizitasun eta adierazkortasunerako bide hobea dela moldean sartutako hizkuntza baino. Jakina, bien arteko lotura eta erdibidea izango litzateke onena, baina hori da gaitzena izan ere.

Beste alde batetik, orain arte egindako ibilbideak hizkuntzaren hainbat esparru finkatzea ekarri du. Eta, jakina, beti ez dira formarik zuzen eta egokienak finkatu. Beraz, onerako eta txarrerako izan da eragin hori, eta aurrera begira indar hartu duten zenbait erabilera euren lekura ekartzea izango da eginbeharretariko bat.

Finkatze horren bidetik, nik nahiko argi ikusten dut honezkero eredu moduko bat eginda dagoela neurri batean. Hala ere, ez dut uste euskalkien batasunaren emaitza denik. Azken batean, hizlari dabilenak egiten duena, horrexek hartzen du indar, eta sarritan pertonekin ere lotzen dugu, hau da, hizkera horri esatariaren izena edo aurpegia ipintzen diogula esango nuke.

Euskadi Irratia eta Euskal Telebistan, argi eta garbi, esatariak batez ere gipuzkoarrak dira, eta Irratian Telebistan baino gehiago. Beraz, egiten den euskarari, nahiz eta batua izan, oinarria gipuzkera da.

Hau neurri batean berezko fenomenotzat uler daiteke, nahiz eta dena berezkoa izan ez. Mikrofono eta kamara aurrean lan egiteko, hizkuntzari lotuta kontuan hartu den kriterioa, batuaz ondo mintzatzeko gai izatea izan da. Horri gehitzen badiogu *s* eta *z* ondo bereiztuta ahoskatzea ere garrantzitsua izan dela, emaitza berezkoa da. Hau da: baturako aukeratu diren formak darabiltzaten euskalkietako hiztunak beti egokiagoak dira pantaila eta mikrofonoen aurrean berba egiteko. Normalean askoz doinu naturalagoa darabilte, hizkera berezkoagoa egiten dute, eta batuaren ereduari hobeto moldatzen dira.

Eta hori horrela den moduan, kontrakoa ere gertatzen da. Hau da, zenbat eta norberaren hizkera baturako aukeratu diren formatatik urrunagokoa izan, orduan eta gaitzago batuaz ondo moldatzea. Arrazoi horregatik beragatik, sarritan euskaldunberriek ere esaterako bizkaitar euskaldunzaharrek baino itxura hobea ematen dute. Puntu hau oso argi igartzen da doinuan. Eman dezagun aktore edo bikoizle euskaldunzahar bat, etxetik euskara dakiena, edozein euskalkitakoa. Interpretatzeko beti testu bat izango du aurrean, eta azkenean testu hori dagokion doinu, intentzio eta zentzuaz bota beharko du. Berbak osorik esateak, besterik gabe, berak berez daukan ahoskeratik urruntzea ekarriko dio, eta horren eraginez sarritan indarra edo azentua jarri behar ez den lekuan jarriko du. Badakigu denok entonazioan aukera bat baino gehiago izan daitezkeela egokiak, baina batzuk ez egokiak dira denontzat, erdal doinua adibidez. Eta berbak osorik esateak doinuan eragina daukan modu berean, aditz forma arrotzak, joskera-egitura ezezagunak, hiztegi berriak eragin bera dute. Hala-koetan sarritan gertatu da, berezkoa entonazio jatorra eduki eta halako egoeretan inflezio bortxatuak egitea.

Baina prozesu honek jarraipena dauka, eta hurrengo pausua zera izan da: era bateko hiztunak nagusitzean, hiztun horiek ekarri dituzte euren hiztegia, joskera, esamoldeak, eta abar, eta gaur egun inork ez dauka zalantzarik hori batua den ala ez den, erabiltzen denez bada. Zalantza dago erabiltzen ez diren formatan, ea baturako egokiak diren ala ez.

Beraz, agirian esan ez arren, egon dago eredu bat, baturako aukeraturako formez gainera, hiztun horiek euren lexiko, joskera eta doinua ekarri dituztelako. Eta ondorioz, gaur egun molde horretako hiztun ez direnek ere imitatu egiten dituzte halako ereduak, horixe "eredu" direlakoan.

Euskararen batasunerako lehenengo pausuk egin zirenik eta hona, aurrera eta atzera pausu asko egin da. Prozesu luzea denez gero, jakina da erratzeko aukera edozein momentutan sortzen dela. Nik euskalkien eta batuaren arteko dikotomia honetan akats batzuk ikusi ditut.

Lehenengoa da euskara batua eta euskalkiak, elkarren osagarri barik, oposizioan ipintzea. Nire ustez euskara baturik ezin da egon euskalkirik gabe, ze orduan ez litzateke euskara izango, eta euskararik gabe ez dago batasunik.

Beraz, elkarren kontra ikustea kaltegarria da euskararentzat. Sasoi batzuetan euskara batua progresoa eta modernitatearekin lotu izan da, eta euskalkia, ostera, erlijioa eta tradizionalismorik peioratiboenarekin. Horrek, jakina, eragin argia dauka bata edo bestearen alde egiteko orduan, hizkuntza ereduaren aukera beste arlo batzuetan egindako aukerekin bat dator eta.

Dena dela, lekuan lekuan arazo hau ezberdin bizi izan da. Nik Bizkaikoa ezagutzen dut batez ere eta han argi eta garbi hori gertatu da, eta oraindik ere asko geratzen dela ikusten dut. Hala ere esan beharra dago planteamentu horren azpian, azken batean, ezjakintasuna baino ez dagoela. Baina era berean emaitza guztiz txarra da, ze horrela pentsatuta, batua eta bizkaiera hainbeste bananduta, mundu ezberdin bi balira legez jokutzen da, eta bata ez du bestea osatzeko balio. Hona, ostera, Alfonso Irigoienek idatzitakoa, gure pentsakeraren erakusgarri:

“Beste alde batetik ez da ahaztu behar euskalki biziek normadun hizkuntzari eten gabe etekin eta aberasgarria txerta diezaioketela, behin betez gero batasun horretarako beharrezko diren minimoak, eta horrek polo bien arteko interkomunikaziorako eremu egoki bat sortzen du” (1).

Beste akats bat, nire ustez, da euskara batua txarto ulertu izan dela, eta forma batutzat eman izan da forma bakarra. Adibidez, arin ibiltzea era askotara esan daiteke: arin-aringa, arineketan, antxintxiketan, arinka, galapan, galapaka, lasterka, eta abar, herritik herrira modu bat dago eta. Baina deigarria da ikustea euskara batuaz idaztean gehienok gehienetan “korrika” esateko joera daukagula. Eta ez hori bakarrik, askok duda daukate ea beste moduren batean esan ote daitekeen.

Euskarak sakabanaketa handia dauka, eta sarritan berba beraren hainbeste bariante ikusita denok eskatzen dugu esateko zelan den erabili beharreko forma. Hori egia da, baina arazo hori grafiari hobeto lotzen zaio hiztegiari eta joskerari baino. Beraz, hor hainbat lan egiteko dago ideiak argitzeko.

Txarto ulertu honek euskara bera pobretzea dakar, sinonimoetan eta esamoldeetan daukagun aberastasuna galdu egiten dugulako batuan ez integratzearren. Eta egia esan, sarritan badirudi euskara ona egiteari baino batuaren arauak betetzeari garrantzi handiagoa ematen zaiola. Eta jakina, hemen ere neurria da kontua.

Pobretzeaz gainera, beste ondorio bat nahastea da. Batua eta euskalkia nahastu egiten dira, ez bata ez bestea ez da koherente betetzen. Jendeak ez daki zer den batua eta zer euskalkia. Hona esandakoa argitzeko erakusgarri batzuk.

(1) IRIGOIEN, A., “Euskararen normazko arauen inguruan”, *De re philologica linguae vasconicae*. Autorearen edizioa, Bilbo, 1985.

Iaz egin zen Euskal Telebistako hizkuntzalari lanpostu baterako deialdia. Aurkeztu ahal izateko eskatu ziren baldintzetako bat Euskal Filologian lizentziatu izatea zen, edo bestelako goi mailako titulazioa edukitzea gehi lau urteko esperientzia euskara-irakasle, itzultzaile edo antzeko zereginetan. Beraz, aurkeztutakoak euskara mailan kualifikatuzat jo ditzakegu. Ohar moduan esan narren bat bazegoela, baina ia denak Gipuzkoa eta Bizkaikoak zirela.

Euskarazko azterketan ariketetako batean aukera eman zitzaaien hautagaiei batuaz nahiz euskalki batean idazteko. Eta emaitza oso esanguratsua izan zela uste dut. Gehienek batuaz egin zuten, eta banaka batzuk bizkaieraz. Baina bizkaieraz idatzi zutenen artean askok laburdura eta guzti, alfabetatugabe berba egingo lukeen moduan idatzi zuten: umiek xandau, neuk ikusiot, esangostasu... (adibideak ez dira benetakoak, baina parekoak). Batzuek gainerako ariketak oso ondo egin zituzten batuaz. Gipuzkoarren artean batek bakarrik galdetu zuen azterketan bertan ea euskalkian idaztea "h gabe eta" idaztea zen.

Euskara arloan kualifikatuzat jotzen ditugun hauek, beraz, ez dakite euskalkia ere literarioa izan daitekeela, eta argi eta garbi ez dute Mogel, Txomin Agirre eta Agirre Asteasuaren lanik irakurri.

Beste anekdota bat oraintsu suertatu zait Euskal Filologiako azken kurtsoa egiten ari diren ikasle batzuekin. Ezagutzen dituzten arren, batuaz ez lukete *berba egin, gura* eta halako hitzik erabiliko. Hiztegi hori erabil daitekeela esan nienean harrirituta geratu ziren, baina baita neu ere halako zalantzak ikusita Euskal Filologoen artean. Baina ondo pentsatuz gero, normala da horrela pentsatzea, izan ere, non ikusi edo entzun dute hiztegi hori? Eskola-liburuak, irakurgaiak, itzulpenak aztertzen baditugu nekez aurkituko dugu halakorik, ezta prestigijoko hizlaritzat dauzkagunen artean. Beraz, halakoak batuaz baztertekoak direla pentsatzea berezko ondorioa da hainbat kasutan.

Ildo honetatik, eskolak zeregin handia dauka lekuan lekuko hizkera integratu eta prestigiozko bihurtzen. Gainerako eragileek ere bide horretan gehiago sartu behar dute, jakina, baina eskolak herrietan daude, eta hizkuntza aberas-teko norberarenari balioa ematea da eginbeharreko lehenengo pausua.

Beste dei berezi bat Euskaltzaindiari, eta zehatzago Hiztegi Batuko Batzordeari egin behar diot, hiztegi batuko zerrendak zelan erabili argi zabal dezan. Euskarari lotutako hainbat lanbidetan, irakasle, itzultzaile, idazleen artean, zerrenda hori batuaz erabil daitezkeen hitzen bildumatzat erabiltzen da, eta beraz, zerrenda horretan agertzen ez dena ezin da batuaz erabili. Jokabide horri jarraituta, aurrerantzean beti *apoarmatua* esan beharko da eta *dortoka* inoiz ez. Guk dagoeneko izan dugu eztabaidaren bat halako arazoak direla eta.

Honaino orain artekoaren gaineko oharra. Baina gerora begira zer. Ba, lehenengo eta behin orain arte egindako akatsak, behin akatsak direla aitortuz gero, zuzendu, arteztu eta bideratu beharko dira.

Horrez gainera, orain datozen gazteak ikusita, esango nuke eredu bakarra ikusten edo entzuten ohituta daudela. Eskolara hasten direnetik, irakasleek alde batetik, eskola-liburu eta irakurgaiek bestetik, eredu mota bat erakusten diete. Komunikabideetatik ere antzeko eredu hartzen dute, beraz, normala da eurek hori imitatu behar dela pentsatzea. Hala ere askotan ahozkoa ez dakit nahikoa lantzen den, euskaraz irakurtzeko arazorik ez daukana ere normalean hitz egi-tean askoz makalago dabil eta.

Etxean edo herrian euskaldun giroan bizi badira, mintzamenerako erregistro hori erabiliko dute normalean eta ez eskolakoa, nahiz eta sarritan bien arteko nahastea egin.

Aurreko ikasturtean hilean behin eztabaida-saio bat egiten zen Euskal Telebistan gaztetxoen artean. Gaztetxoak nongoan ziren halako hizkuntza erabiltzen zuten, batzuetan erdaldunagoa, bestetan euskara jatorra. Denen artean gogoangarriena bermeotarrena izan zen, beste guztiak baino askoz biziagoa izan zelako batez ere, baina baita hizkera-motarengatik ere. Parte hartzaileak 14-16 urte bitarteko gazteak ziren, ikastetxe batetik zetozen, eta ikasketak osorik euskaraz egindakoak. Beraz, euskara zaindua erabiltzeko arazorik ez lukete izan behar teoriarik, baina eztabaida oso bizia zenez herriko hizkera erabili zuten denek. Hemendik era askotako irakurketak egin daitezke, ziur, baina bat hau da: komunikazio-hizkuntza eta eskolakoa ez datozela bat. Hau da, eskolakoa ez da nahikoa harremanetarako, eta orduan, inguru euskalduneko hitzunez inguru horretakoa darabilte eguneroko zereginetarako, eta inguru erdaldunekoek gaztelerara, nahiz eta eskolako betebeharrak guztiak euskaraz betetzeko gai izan.

Gauza bera gertatzen da lan-giroan, beharlagunen artean normalean baikoitzak berea egiten du, egoera oso-oso berezietan izan ezik.

Nik hemen, neure arlorako kritikak eta eginbeharrekoak aldenitu barik, irakaskuntza arloan dihardutenei deia egingo nieke hizkuntzaren alderdi biri erreparatzeko batez ere: alde batetik norberarena, ikasleak etxetik dakarrena landuz hasteko, eta gero baturako pausua egin, askoz errazago egiten da gainera eta; bestetik erdal joskera eta gazteleraren kalkoetatik alde egin. Gero eta sarriago entzuten dira honelakoak kalean: *Goaz, ze da berandu! Zara handia?* eta abar. Umeen artean oso zabaldua dago hizkera mota hau, baina baita guraso eta irakasleen artean ere. Hala eta guzti ere, euskaraz egiten dutela eta pozik egon behar ei dugu. Halakoen errua orain arte beti izan du telebistak, baina oraingoan ziur esan dezaket hori ez dutela telebistan ikasi. Izan ere kontrakoak gertatzen hasi zaigu. Kanpoan horretara ohituta, esatari batzuek kamara aurrean ere esaten dituzte halakoak, eta guk ibili behar izaten dugu horien atzetik *Goaz* (*Goazen-en orde*) ez esateko gogoratzen behin eta berriro.

Jende honek lehenengoz eskolara hasi denetik ikasketak (baita unibertsi-tateko karrera ere) amaitu arte dena euskaraz ikasi du, baina gero eta gehiago dakartzate orain arte eduki ez ditugun arazoak: *goaz* eta aipatutakoez gainera, soinu batzuk ezin ahozkatzea, *tz* kasurako (hainbat lekutan *s/z* eta *ts/tz* berdindu

egin dira, baina halakoetan beti alde batera berdindu da: “atzo hil ziren hamar atzo” askok esaten du, baina inork ez “atso hil ziren hamar atso”. Beraz, orain hurrengo pausua gertatzen ari da: *etortsen*, *atso* (=atzo) eta antzekoak zabal-tzen hasi dira eta); entonazio bortxatuak euskararekin zerikusirik ez daukate-nak; eta batez ere hizkuntza mugatua eta eskasa, lau berba eta beste hiru egi-turarekin esaten dute dena.

Edozein modutan, hainbat arazo ez dira euskararenak bakarrik, ondoko hizkuntza handiek ere kezka bera dute, eta hala salatu dute behin eta berriro hizkuntzalaririk nagusienek. Hona Espainiako komunikabideetan kiroletan eze-goki edo behar izan barik erabilitako hitz eta esaldi berriak: *consigue* anotar, *cosechar* una derrota, *sprint*, *amateur*, *play off*, *set*... Zerrenda luzea da, baina euskaraz berdina dela esan daiteke. Gero eta eragin handiago dago hizkuntzen artean, eta batetik besterako aldaketak ere gero eta gehiago. Horrek neurri ba-tean ez dauka atzera egiterik, baina ahalegina egin behar dugu euskarak dituen esamolde jatorrak errekuperatu eta eguneroko erabileran lekua izan dezaten. Horretarako, euskara bizia eta bibliografia ondo aztertu beharra dago. Dagoe-neko hainbat lan eta bilduma egin dira han hor hemen, baina beharbada ez dira behar bestean ezagutzen eta erabiltzen. Hor dago beste zeregin garrantzitsu bat bai irakaskuntzan bai komunikabideetan. Iturriak zein diren eta zelan erabili ondo irakastea oso garrantzitsua da.

Niretzat hau oso kezagarria da orokorra delako. Aktore, aurkezle, nahiz idazkari edo teknikorako inor behar denean arazo bera aurkitzen dut. Beraz irakaskuntzan halako gauzak gehiago lantzeko eskaria egingo dut, benetan be-harra ikusten dudalako.

Gure aldetik ahalegintzen gara hizlari bakoitzari beretik daukana ateratzen. Bide horretan egin daitekeena desberdina da programa zein den eta pertsonak berak beretik zer daukan. Sarritan ez da erraza etxetik dakiena batuarekin bat egiten, hala ere oso garrantzitsutzat daukagu zeregin hori komunikabideetako euskara batua eredu zabala izan dadin.

Horrez gainera, deklinabidea, aditza eta ortografia batukoa eginez gero, gainerakoan zabal jokatu gura izaten dugu, hiztegian eta joskeran batez ere. Hala ere, argi dago badagoela oraindik zer egin.

Amaitzeko, eskerrak eman behar dizkiet Euskal Telebistako hizkuntzala-rici lan hau egiteko emandako laguntza, ohar eta aholkuengatik.

EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZA

Tolosa, 1996ko urria

*Miren Azkarate
II. Jagon Jardunaldiak*

Administrazioan, irakaskuntzan eta komunikabideetan euskaraz lanean dihardutenen artean egindako galdekizunaren emaitza da esku artean duzuen txostena. Bi helburu nagusi izan ditu Euskaltzaindiak eta Jagon Sailak galdekizun hau egiteko:

a) Batetik, azken urteetako araugintzak nolako harrera izan duen, zer zalantza sortu diren, zein puntu ilun dagoen arauotan... hori guztia jakin nahi genuen.

b) Bestetik, eguneroko jardunak sortzen dituen zalantzak zein diren ere jakin nahi genuen, Euskara Batuko batzordeak esku artean dituen gaiez gain, zalantzok dagozkien batzordeei helarazi eta ondoko hilabete eta urteetako araugintza beharrei ahalik eta gertuenetik egokitzeko.

Bi atal nagusitan banatu ditugu galderak: orain arte emandako arauen gaineko zalantzak, eta Euskaltzaindiak arautu gabeak bereiziz. Hartara, erraz argi daitezkeen puntuez gain, guztiok jakin ahal izango duzue besteen kezka zein diren, gaurko egoeraren ikuspegi orokorra lortuz.

A) ORAIN ARTEKO ARAUAK

1. Araugintzaren oinarritzko irizpideez

a) Zergatik aldatu “finkatuak zeuden egitura edo idazkera batzuk”:

berrogehi eta hamar (EGLU) / berrogeita hamar
Elkartea/Erkidegoa
eritzi/iritzi
bait naiz/bainaiz
bapatean/bat-batean
guzti hau/hau guztia

Arau bakoitzean ematen da, besteak beste, literaturako erabileraren berri, eta hor argi eta garbi ageri da kontuak ez zeudela hain finkatuak, ezta azken

urteotan ere. Datuak ikusirik, gaurkoak eta lehengoak, batasunerako egokientzat jo dugun bidea markatu dugu. Beste kasuren batean, *elkarte / erkidego*, azaldu da zergatik ez den egokia *elkarte* izena ‘comunidad’ adierazteko.

b) Zergatik baztertu gehien erabiltzen diren formak: hitanoa gehien erabiltzen den inguruetako formak ez omen dira onartu.

Hitanoa ez da Gipuzkoan bakarrik erabiltzen, Bizkaian eta Iparraldean ere badu indarra. Alde bateko eta besteko formak konparatuz, aditz laguntzailearen batasunerako erabili ziren irizpide berak aplikatzeko ahalegina egin da. Irizpide horiek dagokion arauan ageri dira.

c) Baturako erabaki diren formak, berriketan jardutean ere erabili behar al dira (*ohizko / ohiko, guzti hau / hau guztia, etab.*)?

Beti esan da euskara batua zein eremutarako den: euskara landu, zaindua, erabili behar den testuinguruetarako. Beraz, irriti edo telebistako esatariek erabili beharko lituzkete berriak ematean, etab. Lagunartean, kalean, etxean... egoera informaletan euskalkiak erabiltzea zilegi bakarrik ez, gomendagarria ere bada.

d) Grafia auzietan gertatzen ari diren aldaketak: *-il- / -ill'-*kontsonante ondoko *-h-a*

Salbuespenak dira, bide-aldaketarik markatzen ez dutenak. Lehen kasuan, *-ill-*proposatzen da nazioarteko forma denean, eta, beraz, Iparraldean ere palatala ahoskatzen dutenean (*artilleria, gillotina*). Bigarren kasuan, hitz gutxi batzuk onartuko dira, Iparraldekoak direnak, eta *-h-rik* gabe erabat ulergaitz gertatzen direnak (*ala / alha*); kontsonante ondoko *h-a* onartzen ez bada, praktikan Iparraldekoek ez dute hitz hori erabiltzeko aukerarik.

2. Maileguak

a) Erdaraz “x” idazten denetan, euskaraz zer idatzi behar da, *extra* ala *estra*?

Esana dago: bokal artean “x”, kontsonante aurrean “s”. Beraz, *estra*. Go-goan izan behar da, gainera, erdal *extra-* aurritzia, askotan, ‘x + *kanpoko*’ egituraz ordezka daitekeela; hala nola, *extrajudicial = judizioz kanpoko, estrajudizial*.

b) Gaztelaniaz *o-z* bukatzen diren hitzak nola bukatzen dira euskaraz: “produktu” ala “produktu”? Kasu konkretu honetan *produktu*, baina ezin da esan gaztelaniaz *o-z* amaitzen diren hitz guztiek euskaraz *u-* behar dutenik. Ikus, hitz amaierai dagokien araua. Oro har, iturri zaharra grekoa denean, amaierako *-o* gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez datorrenean. Nolanahi ere, hiztegiek argitzen dituzte horrelako zalantzak.

c) Noiz esan daiteke mailegu bat zaharra dela, edo berria? Nola jakin noiz *-sz-* multzoa eta noiz *-z-* soila? Edo noiz gorde *j* eta noiz egokitu mailegua *g* forman? Noiz du mailegu batek erabakigarria izateko adinako tradizioa?

Zaila da muga argia markatzea mailegu zaharren eta berrien artean. Zaharra, oro har, euskarak aspalditik bereganatua duena da, literaturan dokumentatua duguna, etab. Bi txistukariz osatutako kontsonante-multzoaz, *-sz-* edo *g / j* kontuez, emanak daude arau orokorrak. Hortik aurrerakoa, hitz bakoitzaren idazkera, hiztegietan begiratzekoa da. Euskaltzaindiak erabaki du Hiztegi Batuko zerrendetan *dizipulu* dela, adibidez (bere garaian esan bezala).

d) Kontsonante-multzoak: Euskaltzaindiaren arauen arabera *postpositio* behar luke, ala? (eta ez EGLUn ageri den *pospositio*); gaur egun idazle gehienek *substantzia* darabilte (Euskaltzaindiaren gomendioa *sustantzia* den arren); *-bsz-* multzoa (*abzisa* erabaki da: eta *abszesu*, *abszizio* hitz teknikoak, *-s-* gabe orduan?).

“Hitz mailegatuek jatorriz hiru kontsonantezko multzoa dutenean bere baitan, euskarak ere hiru kontsonanteak gordeko ditu (institutu, konstituzio). Ez, ordea, euskara idatzian aspaldidanik erabili diren hitzek hizkera arrunteko esanahia dutenean (sustantzia)”. Hala dio Euskaltzaindiaren erabakiak. Ez dut uste gaur idazleek darabilten *substantzia* izenak “esanahi arrunteko esanahia” duenik; beraz, ondo dago *substantzia*. Bestalde, hitz teknikoak diren neurrian, euskaraz erabili behar badira, ez dago *abszesu* edo *abszizio* erabili ezinik.

3. Letra larriak

Oro har araua berrikusi beharra azpimarratu du jendeak; administrazioan lanean dihardutenek, erdal eta euskal testuen artean sortzen den distantziaz kezka azaldu dute. Euskaltzaindiak badaki arau hau berriro aztertu beharko duela.

4. **Baitu, baikara, bainaiz** (2. araua) *Bait*-en kasuan ahoskera kontuan harturik eman omen dira idaztarauak. Zergatik ez da horrela jokatu beste hainbatetan *behinik behin*, *batik bat*, *-z gero*, *seietan* (*seiretan*), *alde* (*-kalde*)...

Arau horretan behin eta berriz esaten den bezala, *bait*- elkarturik idatzi behar dela erabakitzeko arrazoia ez da ahoskera izan, mendetako tradizio idatzia baino. *Testu* hitza eten gabe aipatzen da arauan.

5. Hau guz(t)ia (4. araua)

Hau guztia, deklinabide guztietan erabili beharko genuke? *Horietan guztietan*, *horiengan guztiengan*, *horienganako guztienganako*...

Biak deklinatu behar dira, arauan erakusten den bezala: *bide hartan guz(t)ian*, *horiekin guz(t)iekin*.

6. Zenbaki^{en} idazkeraz (7. araua)

“Bada puntutxo bat txostenean aipatzen ez dena, eta “bat” zenbakiari dagokiona da. Faktura bat egiterakoan, adibidez, kopurua bat ez beste edozein denean, ez dugu inolako arazorik. Baina kopurua bat, edo unitate osoa ez denean, hautsi egiten da “ordena” eta argitu beharko nola idatzi eta nola irakurri. Faktura edo dendarako ohar batean idatzi ohi dena:

Idatzi	Irakurri
1 metro soka beltza	metro bat soka beltza
2 kilo mandarina	bi kilo mandarina
1,5 kilo madari	kilo t’erdi madari
e.a.”	

Zentzuzkoa da hor planteatzen dena. Euskara Batuko batzordeak aztertuko du galdera eta ikusi araua osatu behar den ala ez.

7. *Nornahi, nonahi, non-nahi* (10. araua)

“Arauaren arabera: *edozein*-ek esateko moduak bi dira: *nornahi* (k kendua) edo *nork-nahi*. Nahasgarria da lehendabiziko adibidea. Gaizki emana dago araua?”

Presaka-edo irakurria dago araua, ez baitu inon esaten *nornahi* behar duela ergatiboan. Hauxe da esaten dena: “lehen osagaia *n-z*, *t-z* edo *k-z* bukatzen bada (hau da *non*, *nondik* edo *zenbat* bezalakoetan), hitz batean (*nonahi*, *zenbanahi*, *nondinahi*, *nonahitik*), edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi*, *zenbat-nahi*, *nondik-nahi*, *non-nahitik*) idatz daitezke”.

8. *Bat eta batzuk-en deklinabidea* (12. araua)

“*Bat* bakarrik agertzen denean eta *beste* hitzaren agerraldi baten eraginpean dagoenean, gaur egun ere forma mugatuan gertatzen da, batez ere Hegoaldean, eta badirudi horrelakoak gomendatu behar direla euskara baturako” (*bataren-gan eta bestearengan, batari nahiz besteari...*).

Araua, dagoenetan, gogorregitza jo dute batzuek. “Kasu absolutiboan, agian, ez da hain arrotza gertatzen, baina beste kasuetan urrunegi doa: Adib.: *Batek (batak!) ostikoa eman dit eta besteak masailekoa. Bati (batari!) ezetz esan diot eta baietz besteari. Bi lagun^{en} etxeetan izan naiz; batenean (batarenean!) hamaiketakoa egin dut eta bazkaria bestearenean. Batekin (batarekin!) badakit zer egin, baina bestearekin ez. Batengana (batarengana!) pozik joaten naiz, ez ordea bestearengana”. Orotariko Euskal Hiztegia-ren lekukotasuna ere aipatu dute. Hona, ordea, kontrakoa erakusten duten adibide batzuk:*

“Naikua zan batak eguna zala esatia, bestiak gaba zala esateko” (Kirikiño)

“Au da, ez batak eta ez besteak ez zioten egun onik eman” (Pernando Amezketarra)

“Baiña gero ongi ori era askotara ikusten eta asmatzen dute batak eta besteak” (Villasante)

“Hizkuntza hori berez baitzeturren ahora batarekin eta bestearekin mintzatzeko” (Mitxelena)

9. **Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri** (13. araua)

“Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du”. Irizpidetako identifikagarritasuna eta esanerraztasuna hartuz gero, nire eta beste irakasle batzuen uste apalean, silabaka zatitzeaz gainera, egokia litzateke lerro-amaieran bokal-multzorik ez haustea. Adib.: Ez: du-ela, gau-ean. Bai: due-la, gauean.

Bestela esanda, lerro-hasierako hitz hautsia beti kontsonantez hastea (h-ak barne: *be/rre/hun, le/hia*) egokiagoa litzateke, bai begietarako bai irakurtzeako lerroaren bukaeran beti egin ohi den pausatxo bideratzeko”.

Nola jokatu hitz elkartuko osagai bat lerro-amaieran gertatzen denean, eta bestea hurrengo lerroaren hasieran?

Gai hau dela eta, lerroz aldatzean marratxo nola jarri, Euskaltzaindiak ez zuen ikusi, bere garaian, arautu zuena baino gehiago arautu beharrik. Hala ere aztertuko ditu proposamenok, eta egoki baderitza, osatuko du araua.

10. **Partitiboaren erabilera okerra**. Partitiboa baiezkotzen perpausetan noiz eta nola (15 eta 30. arauak).

“Txostenari zertxobait falta zaio nire ustez. Hau da. hizkuntza-erabiltzaile berri gehienek kasuan ez da arazorik nagusia partitiboa baiezkotzen perpausetan nola erabili, baizik eta ez dutela erabiltzen ezezkotzen perpausetan. Kalkoak eginez, eta kasurik gehienetan ezezkotasunak daraman orokortasun mugagabe kutsua galtzen da: edo plurala barra-barra erabiltzen da, edo singular mugatua. Hau gertatzen da batez ere eskolako testuetan.

Beraz, ongi dagoelarik baiezkotzen perpausetan esaten dena, goraki esan behar da ezezkotzen perpausetan gehien-gehienek dutela partitiboa, eta, agian, argitu noiz den ezezkotzen perpausetan beharrezkoa partitiboa”.

30. arauaren amaieran, 167. orrialdean, esaten dena nahikoa argigarria da, nire ustez.

11. **Euskal Alfabetoaren Letren Izenak** (17. araua)

Euskaltzaindiak, euskal alfabeto letrak zein diren eta horien izenak nola diren argitu nahi zuen arau honetan. Egia da, hala ere, ezinbestean sortzen direla ahoskera zalantzak, etorri diren galderetan argi asko ageri direnak.

— X: “ixa” dela izena esaten du Euskaltzaindiak; hala ere, nola ahoskatu behar da mailegetan bokal artean gordetzen den “x” hori? taxi: taksi.

Ahoskeraz ez du oraindik ezer arautu Euskaltzaindiak.

— T, hitz amaieran, kontsonante-multzoa gertatzen denean nola ahoskatu: yogurt, Renault, Ford ... D/T ahoskatu?

Esan bezala, Euskaltzaindiak ez du oraindik ezer arautu; baina izen horiek, beste hizkuntza batzuetako izen propioak direnez, zentzuzkoa dirudi jatorrizko hizkuntzan bezala ahoskatzea.

12. Ordinalen eta banatzaileen idazkera (18. araua)

a) Ordinaletan “garren” ahoskatzerakoan puntua jarri. “Lehenengo”-ren laburtzeko modua “1.” al da nahiz eta “garren” ahoskatu ez?

Baietz esango nuke.

b) Zergatik *batgarren* eta ez *bostgarren*. -stg- kontsonante multzoagatik ote?

Bai, arauan bertan esaten den bezala, “batasunean kontsonante multzoak murrizteko hartu den erabateko jokabidea (*hiztegi* eta ez *hitztegi*) kontuan harriturik badirudi forma bakuna dela gomendatzekoa”.

c) 2 eta 3. atalean edo 2. eta 3. atalean?

2. eta 3. atalean, nahiz, 2. eta 3. ataletan.

13. *Betiko* eta *honen kideak* (20. araua)

Etziko eta *etzirako*, *datorren urteko* eta *datorren urterako*, *geroko* eta *gerorako*, *betiko* eta *betirako* bereiztearen aldeko iritziak azaldu dira, bi forma-sailak desberdinak direlakoan, eta biak ondo daudelakoan. Euskaltzaindiak 20. arau horretan ematen ditu ez bereiztearen aldeko arrazoiak: idazleen erabilera eta deklinabideko egituratze formala. Hala ere, arauak *aditzondoa* + *ko* dio; beraz, hortik kanpo geratzen da *datorren urteko*, izen-sintagma baita (edo adizlaguna, nahiago baduzue). Araua adizlagunetara ere hedatu behar den ala ez, aztertu gabe dago.

14. *Arazi* (23. araua)

“Beharbada komeni da osatzea -t- har dezaketenen zerrenda (*sortarazi* eta *agertarazi* bakarrik agertzen dira; ez da besterik?)”.

23. arauan, “bi hautakizunak -t-dunak eta -t- gabeak zilegi utzi behar dira” esaten da, aditz-erroaren forma nolakoa den erabakitzen den arte. Auzi hau, 28. arauan ebazten da, aditzoinen forma erabakitzen denean. Hain zuzen ere, galderan aipatzen diren bi kasu horiek -t- gabeak dira: *agerrarazi* eta *sorrazazi*.

15. *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* (25. araua)

Oro har, konplikatuergia omen da arau hau, errazteko modurik ez ote dagoen izan da heldu zaigun galdera; eta, aldi berean, askatasun gehiegi uzten omen da. Galdera konketuagoak:

a) *-ia* letra-multzoez amaitutako hitzak lehen osagai direnean, bereziki laburrak direnean (*kopia, biblia, grafia...*), *-a* galdu ala ez.

Araua eman zenean, datuak ikusirik, askatasuna eman zen *-ia* amaierako bokalarekin nola jokatu. Hala ere, Euskaltzaindiak *Autonomia Erkidego* erabakitzean, bide bat markatu nahi izan du.

b) “Maiz behartzen garelako sortzen zaigun zalantza bat: *soinu jole* edo *soinu-jole* elkarketa agertzen da adibideetan; hiztegietan, ordea, *soinujole* aukeratzeko da gehienetan (*soinujole* eta *pianojole*, esate baterako, *3.000 Hiztegi* eta Elhuyar-enean). Beharbada ez du garrantzi handirik (hor dago beti salbuespenen zakua) baina eztabaida bat baino gehiago ekarri digu. Guk denak bereiz idazten ditugu”.

Berez hitz elkartu mota horri buruzko arauak, elkarte sintetikoei buruzkoak, dioena da horrelakoak bereiz nahiz marrarekin idatz daitezkeela.

c) *Parte hartu, eskua sartu* eta horrelakoen nominalizazio eta eratorrietan nola jokatu: *parte hartze* ala *partehartze*, *esku sartze* ala *eskusartze*, *parte hartzaile* ala *partehartzaile*...

Marraz nahiz loturik *Hitz-elkarketa/4* liburuan ageri denez.

d) *Izena + puska/pixka/apur/poxi/amini/mordo/pila/izpi/pare...*, etab.: marraz? LEF batzordearen arabera, mugakizun bereziko menpekotasunezko hitz-elkarteak dira, marraz zein bereiz idatz daitezkeenak. Marra erabiltzea erabakiz gero, *lotsa-izpirik ez du* idatzi behar genuke, edo *jende-mordoa etorri zen, idi-para*, etab. Baina ondoan *bat* hartzen dutenean, nolabaiteko ‘zenbaitzaile zehaztugabe’-tzat jo litezke? (Batzuk behintzak: *pixka, poxi, amini, mordo, pila...*; baina *puska* ez, adibidez) (beraz, *lasaitasun pixka bat behar du*gu, *gatz poxi batekin*).

Erabat ados.

e) Marra letra larriz idatzitako hitz-elkarteetan: *Hezkuntza Saila* idaztea gomendatzen da; marra erabiltzen dutenentzat ez al da nahasgarri samarra? (letra larriak erabiltzeko izan ohi diren zalantzak kontutan hartuta). *Hezkuntza-Saila* idaztea gaitzesten da?

Letra larriz idazten diren hitz elkartuetan marra ez zuen hain beharrezko ikusten LEF batzordeak. Horixe adierazi nahi izan zuen gomendio horren bidez. Berez ez da gaitzesten marra erabiltzea; ez da araua, gomendioa baino.

16. *-z gero* (26. araua)

Heldu den proposamena: aditz jokatuarekin *-z gero*, gainerakoetan (adizki jokatuarekin, zenbakiarekin...) *ezkero: jo ezkero, igo ezkero, etorri ezkero, edan ezkero, hamar t'erdia ezkero*...

Idazkeraz gain, ahoskeraz ere zerbait esan beharko omen litzateke.

Literaturako erabilerak ikusirik, Euskaltzaindiak ez du ikusten araua aldatzeko arrazoirik. Ahozkerari dagokionez, gai honetako arauak ematean aztertuko da puntu honetaz araurik ematerik komeni den ala ez.

17. **Aditzoinen forma** (28. araua).

a) “Aditzoina jartzerakoan zailtasunak daude arauen arabera, memoria erabili behar da”.

b) “Nola idatzi behar dira *-t-z* amaitzen diren aditzoinak, *ert, ohart?*”.

Bai.

18. **Espainiako erresumako probintzia eta autonomia erkidegoen izenak** (32. araua)

Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak (36. araua)

Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak (38. araua)

Munduko geografiako zenbait izen (52. araua)

a) “Zergatik *Murtzia*, baina *Cadiz* eta ez *Kadiz?*”

Zerrenda honetako izenak erabakitzean, kontuan izan zen euskaldunek nola erabili dituzten, zein tradizio duten gure artean. Batzuetan, euskal fonologiaren arauetara egokiturik erabili izan dira (zati batean behintzat), *Valentzia*-ren kasuan, argi eta garbi. Ez hainbeste agian *Murtzia*-rekin, baina analogiaz jokatu zen. *Cadiz*-en kasuan ez dago inolako tradiziorik, eta bere horretan utzi da.

b) “Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak” atalean bidea erretzu: Kordoba, Eivissa...

Gure tradizioa eta beste hizkuntzetako izen ofizialak kontuan izanik, ego-kienak iritzi dizkiegun arauak eman ditugu.

c) “Eguneroko lanean oinarriturik eta ustez aplikazio egoki bati begira”, honako bereizketa ere proposatu du norbaitek:

— Izen ofizialak: legez duten izena (Iruña, Marcilla, Tudela...)

— Izen kulturalak: ofizialak ez izanagatik, gure esparruan izen propiotzat hartzen ditugunak eta nolarebait guztiok “onartuak” direnak. (Iruña, Martzilla, Tuter...)

Agian izenaren “izaera kulturala” heda liteke euskaldunontzat harreman handikoak diren herri izenetara (Paris, Madril, Bartzelona...), baina izen kultural gisa.

Kanpoko izenetan ere argi utzi beharko litzateke zein den izen horien euskal ordain ofiziala, hau da, jatorrizko izena (Madrid, Barcelona, Valencia, Cordoba...) eta zein kulturala. Izugarri sinplifikatuko genuke arazo hau”.

Euskaltzaindiak ez du ikusten “izen ofizial / izen kultural” bereizketaren beharrik. Inguruko hizkuntzek ere, hizkuntza horretan hiriburu eta hirien izen ofizialak ematean, ez dute beti errespetatzen jatorrizko izen ofiziala (*Londres / London*).

19. **Ongi etorri!** (33. araua)

“Ongi etorri” baina “zaretela ongi etorriak”. Lehenengoa esaten denean, ez al dago ulertzerik “elidituta” beti dagoela azpian “zaretela ongi...”?

Behar bada, bai. Baina arau horretan argi ikusten den bezala, literatura-tradizioak *ongi etorri!* dela erabiliena erakusten du, esplikazio logikoak esplikazio logiko.

20. **Hiru kiloko haurra...** (34. araua)

a) *hiru kiloko haurra...* galdera egitean ere erabili beharko genuke horrela? Esate baterako: *zenbat denborako / denboratako? Zenbat kilometrora / kilometrotara? 5 egunean legunetan.*

Bi galdera desberdin daude hor: batetik, *-ko* izenlagunari dagokiona, *zenbat denborako?* Beste bi kasuetan, aldiz, *-ra* eta *-n* adizlagunez egiten da galdera, eta hori arautu gabe dago. Bi erabilera-modu daude, euskalkien arabera: *zenbat kilometrora* eta *zenbat kilometrotara*; biak direla zilegi esango nuke, baina gaia xehekiago aztertu ondoren ikusiko da araurik eman behar den ala ez batasunerako.

b) *Sei urteko* ≠ *sei urtetako* (ardoaren kasuan ulertzen da baina bestelakoetan ez da hain argi suertatzen).

Adibidez, noiz ez da hain argi?

21. **Orduak nola esan** (35. araua)

a) *Erdia* adierazteko, bi modu aipatzen dira oro har, *sei t’erdiak* (Hegoaldean), *seiak eta erdiak* (Iparraldean). Laburpenean, ostera, Hegoaldeko forma baino ez da ageri.

Datuen eta azken laburpenaren artean, proposamena dator. Eta hor esaten da: “*Erdia* adierazteko, pluraleko marka bigarren osagaien bakarrik ezartzea gomendatzen da batasunerako (...). *Oren* ezartzen denean, berriz —Iparraldean maiz egiten den bezala— bi osagaietan emango da pluraleko marka”.

b) Ordu bat eta erdiak ala ordu bat eta erdia?

Arauren laburpenean *ordu bat eta erdiak* ematen da.

c) “Orduen” adibideetan ez dira agertzen honelako kasuak: 13,45tan (?).

Arauan hauxe esaten da: orduci pluraleko kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa”. Beraz, 13:45an.

d) 12.10 > 12:10. Orain arte aurrekoak erabili ditugu.

Nazioarteko konbentzioa: ematea da.

22. **Data nola adierazi** (37. araua)

Ondo al dago “Durango, 1983ko martxoak, 9”?

Arauaren hasieran berean garbi asko esaten denez forma hedatu eta erabilia da hor ageri dena. Baina hau baino erabiliagoa izan da bestea, *Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)*; eta hauxe da Euskaltzaindiak gomendatu duena.

23. **Zenbait aditzen erregimena** (39. araua)

“*Lagundu* nor-nork eta nor-nori-nork egin daiteke, baina gomendatua dago semantikoki bereiztea?” Ez dago halako gomendiorik, Iparraldean nor-nork bezala erabili baita bi adieretan, eta Hegoaldean nor-nori-nork bezala.

24. **Topikoa(a) bihurtu** (40. araua)

Arauaren testuan aipatzen diren adibideek nahasmena sortu dute antza denez; Izan ere *bat* daramaten adibideak badaudela adierazi nahi izan da, baina inola ere ez forma horiek gomendatu. Adibide-sorta hori, *bihurtu* aditzaren predikatu osagarria mugaturik ere erabili izan dela erakusteko zen batik bat. Beraz, *emakume eder(a) bihurtu* edo *bihotz sendoko gizon(a) bihurtu*.

25. *Batez beste, bataz beste, nola?* 54. arauan, *ba -belztura* hiztegi-zerrendan erantzuna: *batez beste*

26. *Digestio, digestio-aparatu*. Baina ‘digerir’: *txegosi*, eta honen haritik *txegoste-hodia, txegos-aparatu*. (*Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia* biak), *txegosi* erraza, *txegosgaitza*...

Digestio hiztegi batuan sartzekoa dela erakutsi nahi izan du Euskaltzaindiak. Bere garaian ikusiko da *txegosi* aditzak zein leku duen.

B) ERABAKITZEKOAK

Galdeketa egin, erantzunak jaso, eta txostena moldatzerakoan erabaki gabe zeuden galderak datoz ondoren. Horietatik bat edo beste erabaki ditu Euskaltzaindiak harrezkero. Bestalde, hiztegi-kontuetan, azken hilabeteetan argitaratu den I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-ko datuak emango ditut. Galderen artean, sintaxiari dagokion galdera mordotxo bat bada; Lafitte, Villasante, Azkue edo P. Goenagaren gramatiketan aurki daitezkeen argibideez gain, Gramatika batzordeak bere lana aurreratu ahala erantzun ahal izango diegu halako zalantzei. Izan ere, hemengo galdera bat baino gehiago argitzeko ez da beharrezko Euskaltzaindiak arau bat ematea; gramatika aski zabal bat nahikoa izan daiteke.

1. G eta Jren arazoa: nola idatzi zenbait mailegu, eta nola ahoskatu. Berziki, nola ahoskatu behar den “j”.

magia / majia (nola ahoskatu?)
 trajea (horrela idatzi, baina nola ahoskatu?)
 agentzia / ajentzia
 agenda / ajenda

Hiztegi Batuko batzordeak eta Ahoskera batzordeak, elkarlanean, eman beharko diete erantzuna galdera hauei. Ahoskera batzordeak aztertu du gai hau, eman ditu oinarrizko irizpide batzuk. Orain bi batzordeei dagokie “j”z idaztekoak diren hitzen zerrenda prestatu, eta ahoskerari buruzko proposamenak egitea, Euskaltzaindiak azken erabakia hartu ahal dezan.

2. **-aia / -aje:** sabotaia - sabotaje ?

Berriro ere Hiztegi Batuko batzordeak eta Ahoskera batzordeak jardun beharko dute elkarlanean, erdal maileguetako *-aje* amaiera, euskaraz *-aia* moduan egokitzea bultzatu behar den ala ez eztabaidatzeko.

3. **Aditzen erregimena**

a) Zalantzarik handienak aditzen erregimenean: *jarraitu zion/zitzaion* eta *segitu zuen?*

Jarraitu aditzak bi erregimenak ditu (*zaioldio*); *segitu* dio eta du ad. ‘jarraitu’ adieran (I. Sarasola, *Euskal Hiztegia*).

Jolastu, dantzatu, mintzatu, solastu... naiz / dut?

Dantzatu da ad. (oro har); du ad. (dantza jakin dantzatu); *jolastu* da ad. (Hiztegi Batuko batzordea, eta I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*). *Mintzatu* da ad. eta *solastatu* da ad. (*Euskal Hiztegia*).

b) *Errukitu, damutu, damu izan* aditzek zein erregimen behar dute? *damutu naiz, damutu zait, damu izan naiz, damu izan zait...*

Damutu naiz / damutu zait, biak onartu ditu Euskaltzaindiak.

Damu izan: *damu* dut nagusia; *damu zaio* askoz gutxiagotan ageri da.

Errukitu da / errukitu zaio, biak ageri dira literatura-tradizioan.

c) Aditz izenen erregimena finkatu. Erraza da eskalatzea = erraza da eskalatzen (ongi?). Konpontzen saiatu da = konpontzera saiatu da?

Erraza da eskalatzea ‘escalar es fácil’ esateko ondo dago; orobat, *mendi hori eskalatzea erraza da*. Baina *erraza da eskalatzen* ezin da izan ‘escalar es fácil’; bai, ostera, *mendi hori erraza da eskalatzen*. Labur bilduz, badirudi:

— *-tzea* erraza da (irakurtzen ikastea erraza da)

— 'zerbait *-tzea* erraza da (liburu hori irakurtzea erraza da)

— 'zerbait erraza da *-tzen* (liburu hori erraza da irakurtzen)

Azken adiera honetan *-tzeko* ere erabiltzen dugu (liburu hori erraza da irakurtzeko).

Euskal Hiztegia-n ageri den bezala, *-tzero saiatu* gaur gutxi erabilia da; gaur erregimen nagusia *-tzen saiatu*.

d) Zapuztu beharrekoak dira noski "gai honekin bukatu", "euliekin amaitzeko", "gai horrekin jarraitu" eta antzekoan.

Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-n ez da horrelako adibiderik ageri. Literaturan ageri diren *bizitza heriotza gaizto batekin bukatu* eta horren antzekoetan, *-kin* adizlagunak beste zerbait adierazten du, noski. Beraz, erabilera berriak dira hor aipatzen direnak; eztabaidatu gabe dugu zein maila eman, onartu ala baztertu. Luza gabe emango dugu erantzuna.

-ekin gelditu, halako orduan gelditu onargarriak? *Euskal Hiztegia*-n *gelditu* aditzaren sarreran jasotzen dira horrelakoak, Hegoaldeko marka emanik; 1855. urtea ematen da lehen agerraldiaren urtetzat.

-ekin ahaztu onargarria? Hegoaldean bai, *-z ahaztu* erabileraren pareko. *Ahaztu* sarreran ez du honetaz ezer esan Euskaltzaindiak.

e) *Txominen galde egin du*. I. Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-n jasotzen da *-(r)en galde(a) egin*. Beraz, ongi dago horko adibidea.

f) Aditzen erregimenak: *-tzea/-tzeko, -(e)la + aditza*.

-t(z)ea / -t(z)eko eskatu, agindu, exijitu. *-tzeko eskatu, agindu* (*Euskal Hiztegia*). *Orotariko Euskal Hiztegia*-k badakar *-tzea eskatu* adibide bat. Gramatika batzordeak aztertuko du gai hau. *Exijitu* ez dator bi hiztegiotan; Euskaltzaindiak ere ez du sartu *e* letrako zerrendan

-t(z)ea / -t(z)eko / -t(z)era aholkatu... gomendatu. *-tzea* eta *-tzeko* gomendatu ageri dira *Orotariko Euskal Hiztegia*-n; *-tzeko* bakarrik *Euskal Hiztegia*-n (gogoan izan I. Sarasolak erabilera nagusiak, maizenak, jaso dituela). *-tzero aholkatu* Ipar. eta *-tzeko aholkatu* (adibide bakarra *Orotariko Euskal Hiztegia*-n).

-(e)la informatu/mehatxatu? *Euskal Hiztegia*-k ez du horrelakorik jasotzen. Gramatika eta Hiztegi Batuko batzordeek aztertuko dute.

Etorriko dela espero dut / etortzea espero dut? *-(e)la espero izan* bai; nominalizazio adibiderik ez dator ez Mitxelena-ren ez Sarasolaren hiztegiatan.

g) *Hobe dut esan/esatea/esaten* bezalako esapideetan zein erabili behar dugu, zein kasutan bakoitza.?

Hobe izan + partizipio iragana (subjektu erreferentziakideekin): hobe dugu isildu, lotsagarri gelditu baino.

Hobe izan + *-zea*: hobe da ez izatea, gaizki izatea baino.

Hobe izan + *-zen*: ez dago adibiderik; ez da horrelakorik erabiltzen.

h) *Horrek bere horretan darrai* bezalako esaldietan “darrai” forma trinkoak onartzen du *nor-nork* erregimena? Aztertu eta erantzutekoa; *Euskal Hiztegia*-ren arabera, *jarraitu* aditzaren forma trinkoak *nor-nori* dira; beraz, *darraio* beharko genuke (ez *darra*). Erabilera berria bada, ikusi egin beharko da zenbateraino dagoen hedatua.

i) *-agatik ari izan* (nigatik ari zara). Ez dakit oso ondo zein den zalantza. *Orotariko Euskal Hiztegia*-k badakartza Chourioaren eta Duvoisinin adibideak, baina *-gatik* ‘por causa de’ adieran, jakina:

Lan hori hartzen dutenek bazkagatik egiten dute gehienek. Ez dira gero-koagatik ari.

Ari izan ‘ocuparse de, tratar (sobre)’ adieran, instrumentalarekin ageri da gehienetan. Adiera honi badagokio zalantza, hobeto aztertu beharko da zein leku izan dezaketen *nigatik ari da* bezalakoek, *nitaz ari da* egituraren ondoan.

-i ari izan (niri ari zara). Ez dut honen antzeko adibiderik aurkitu *Orotariko Euskal Hiztegia*-n. Testuinguru zabalagoa beharko litzateke bai ala ez esateko.

begiratu (*nor-nork*, *nor-nori-nork?*): dio ‘so egin’, du ‘zaindu, gorde’.

j) *kotxez aldatu* naiz esaten badugu *zergatik esan behar da ideiaz aldatu dut?* Zein erregimen erabili behar da *aldatu* aditzarekin?

Aldatu aditzaren erabilera ohikoena *kotxea aldatu dut* da (ikus *Euskal Hiztegia*), osagarria absolutiboan, alegia. Baina har dezake *-z* osagarria ere (ik. *Euskal Hiztegia* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*).

k) Existitu, eboluzionatu, entrenatu... *nor* ala *nor-nork* dira? Existitzen dut ala existitzen naiz?

Existitu da ad. *Entrenatu* du ad. bezala erabiltzen da, nahiz ez den Hiztegi Batuko zerrendan sartu. *Eboluzionatu* ere ez da sartu; badirudi hau ere du ad. dela.

Zein erregimen segitu behar dute aditz berriek? Esate baterako *eskiatu*, *eskiatuko naiz/eskiatuko dut*. Du aditzak dira oro har.

4. Aditzaren ingurukoak

a) *Izan* aditza erabiltzea *egon*-en ordeztu: Bilduta izan da goiz guztian, gaisorik izan da joan den astean... Ba al dago puntu honetan arau argirik jartzeko moduren bat?

Batez ere Hegoaldean oso zabaldua dago aspalditikegon aditza. Oraingoz ez da inolako araurik eman horretaz; aztertuko da gaia.

b) Dut/daukat. Diferentzia.

ez daukagu sartzerik: ez duzu sartzerik. Biak?
sinetsia dut: sinetsita daukat. Biak?
oso garbi dut: oso garbi daukat. Biak?
zerbait egin beharra nuen/neukan. Biak?

Bai, besterik erabakitzen ez den bitartean bi formak ematen dira zuzentzat.

c) *Joan berri naiz / joan berri dut.* Jende askoren zalantza izaten da, eta zerbait erabaki behar litzateke.

Joan berri naiz, zalantzarik gabe. *Berri ezartzeak ez du aditz laguntzailea aldarazten.*

d) Gose izan, goseak egon... gosea eduki. *Gose naiz, goseak nago* egiturak jatorrak dira; baina *gose handia daukat, izugarrizko egarria zuen* esaterik bai? (OEHN badaude *gosea izan / eduki* modukoak).

e) Inpertsionalaren erabilera orainarteko ohituren kontrakoa: esaten da, ikusten da...

Irauli: hiztegietan du, baina "txalupa irauli egin zen".

Du motako aditz askok onartzen dute *da* laguntzailea, subjektu jakinik adierazten ez denean, hau da, inpertsionala adierazteko.

f) *Ahal* eta *ezin* erabilera zuzena zein da:

etortzen ahal naiz, etorri ahal naiz, etorri ahal liteke
jokatu ahal dut = jokatzeko ahal dut. *Ahal* biak ontzat ote?
joan ahal nahiz - ez dut joaten ahal, ezin dut joan / ezin eraman de-
zaket
ezin naiz joan / ezin dut joan? *Ezin*-ek beti laguntzaile trantsitiboa eskatzen al du?

Ezin-ek eta *ahal*-ek ez dute laguntzailea aldatzen: ezin naiz etorri; ez naiz joaten ahal.

Ba ote dago ñabardurarik *egin dezake* eta *egin-egiten ahal du*-ren artean? Edo berdin-berdin erabil ditzakegu?

Gainerako galderak aztertuko ditugu.

g) *Oso* aditzondo gisa: zalantzarik ez maite izan, atsegin izan moduko aditzekin; baina *asko gustatu zitzaidan*. Orduan, *asko / oso beldurtu?*, *asko / oso haserretu?* Teorian *oso* behar litzateke horrelakoetan. Horrela erabiltzen al da? Gainera, *hain / hainbeste* arazoa ere horrekin lotuta dago: *hain maite nuen?* *Ez dakit zergatik beldurtu zaren hainbeste?*

Datuak ondo aztertu ondoren gomendatuko da batasunerako egokien ikusdena.

h) Behar izan: naiz / dut?

“Iaguntzaile iragangaitzak ia iragankorrek adina erabiltzen dira” (*Euskal Hiztegia*). Beraz, honetaz araurik ematen ez den bitartean, bietara.

i) Ez dakit *saiatzea merezi du* tipikoekin zerikusirik baduten honako beste hauek:

Egoki dirudi hori esatea / esateak?

Hori / horrek izan behar du (arazo baten) konponbidea?

Hori izan behar da konponbidea?

Aztertuko da eta erantzuna eman.

j) *Ohi*-ren tokia ezezko esaldietan: ez da esan ohi / ez ohi da esan

Aztertuko da.

k) **Aginterako adizki perifrastiko laburtuak**

— “Orain arteko arau-gomendioetan puntu hau ukitu ez bada ere, zerbait ukitua dago EGLUn, baina ukitua baizik ez”.

— “Zenbait esparrutan guztiz premiazoak gertatzen ari dira: harreman pertsonaletan, kirol ihardueretan, tailerretako lan harremanetan, etab.”

— “Egokia litzateke hainbat zalantza eta bikoiztasun gainditzea eta forma erabilgarriak zein liratekeen esatea, baina modu zabalean eta nola esateko hala idazteko balio dutelarik. Adib.: emadak/emaidak, uztak/utzizak, pasai-dak/pasadak... Eta eredu mordoxxka eman beharko litzateke, nolabaiteko “eredu osoa” eskainiz”.

Aztertuko da.

l) Aditzen bilakaeran, zergatik dugu iragangaitzetan (trinkoetan) bilakera osoa eta iragankorretan ez?

dabil > zebilen > balebil > dabilke/lebilke > zebilkeen / bebil

darama > zeraman > (balerama > deramaile/daramake > zeramakeen) / berama. Zergatik hutsune hau? EGLU-II

Aditza erabaki zenean horrela geratuko zela uste dut (aditz paradigmak bere garaiko erabakitik hartu ziren eta).

m) Aditzoia noiz erabili behar da?

Indikatiboko ez diren aditz formetan erabili ohi da; baina Euskaltzaindiak berez ez du ezer arautu horretaz.

5. Deklinabideaz

a) *Zenbait, hainbat* + mugatu pluralaren erabilera okerra —batez ere -a berea duten hitzetan— gero eta zabaltzenago ari dena: zenbait animaliek, hainbat gauzek, zenbait elizek...

Hala da. Gramatika batzordeak aipatu zuen “Okerrak Zuzenduz” txostean, Leioako biltzarrean aurkeztu zuen hartan.

b) Mugagabea eta aditza sing./plr.: 17 urte dut/ditut. Biak.

— *Asko*-dun sintagmen komunztadura. Zuhaitz asko landatu genuen/genituen? Biak.

— *Nahikoa, hamaika* eta horrelakoek zein konmuztadura behar dute: singularra ala plurala? Hamaika buruhauste izan ditut/dut. Biak.

c) Izen zenbakaitz eta neurgaitzek (*bero, gogo, maitasun, gorroto...*) *handi* edo *luze* hartu behar dute, eta ez *asko* (hala dio *Euskal Gramatika Laburra-k*). Baina *gogo gutxi* zilegi al da, edo *jaramon gutxi*? Bai.

d) Deklinazioko atzizkiaren aurretik, zenbait kasutan, -ren- epentetikoa edo nola eta noiz erabili ala ez erabili: aitarengandik < aitagandik?, semearekin < semeakin?...

Deklinabideko tauletan oso ondo ageri da noiz bai eta noiz ez. -*gatik* kasu-markarekin, esaterako, mugagabea eta mugatu singularrean ez da beharrezko. -*kin* kasu-marka, ostera, beti doa genitiboaren gainean; beraz, *semearekin*.

e) -*ko* eta -*ren* izenlagunak:

ikastolako/ikastolaren zuzendari
alderdiko/alderdiaren bozeramaile

agiriak faltsutzeko delitua/agiriak faltsutzearen delitua (ala saihestu?)
nobela euskaratzeko lana/nobela euskaratzearen lana

Askotan bi izenlagun-motak dira zilegi; oso zaila da arau zehatza ematea. Adibidez, badirudi *nobela euskaratzeko lana* zuzenagoa dela, baina *nobela euskaratzearen ondorioa* erabat onargarria da.

-*kol-zko*

“kalitateko haragia/kalitatezko haragia”. Erabaki gabe adibide konkretu hau. Bestela ere arazo korapilatsua da.

f) “Hau *euskara batuan* ari da hizketan”, baina “hizlari hori *batuaz* ari da” ala “*batuan* ari da”? Biak, esango nuke, baina adieraz desberdinekin: lehena, zein gaiz ari da; bigarrena, nola ari da.

Instrumentalean monosilaboen zerrenda eman: gai, jai...

g) Denbora adierazteko *Zortzi ordu egon naiz zure zain bezalakoak ongi al daude? Ala behar du izan zortzi orduan egon...?*

Zortzi ordu egon zain bezalakoak ondo daude (ik. Euskal Gramatika Laburra, absolutibo kasuaz dioena).

Iraupena edo denbora-bitartea adierazten duten adizlagunak singularrean erabiltzea gaizki al dago? *Handik hiru urtera, lau egunean egin zuen lana, denbora gutxian...* Kantitateekin eta magnitudeen unitateekin ere antzeko zer-bait gertatzen da: *200.000 pezetatik gorako soldatak, ni nengoen tokitik lau metrora zegoen.*

Horko horiek guztiak erabat hedatuak daude Hegoaldean behintzat. Bata-sunerako ez da araurik eman (zenbatzaileekin mugagabea erabili behar den arren, denborak/neurriak/pisuak, etab. bestela jokatzan dute). Beraz, besterik esaten ez den bitartean, onartzekoak dira.

h) Noiz erabili behar da instrumentala eta noiz soziationa? *Labanaz hil zuen / labanarekin hil zuen. Buruz errematatu du / buruarekin errematatu du?*

Euskal Gramatika Laburra: "soziationa ere erabiltzen ahal da lasai aski". Hala ere Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki.

i) Hauek guztiak kontutan hartu behar dituzu, ala kontuan hartu behar dituzu?

Kontuan hartu da Hiztegi Batuko batzordearen proposamena, baina erabaki gabe dago.

j) Indiotan ibili, heroietan jolastu...
marnier erara/eran prestatu
lagunetara, medikutara joan

Aztertuko dira galderok, aditz horiek erabakitzean hiztegian.

k) *Denetik, denetarik, baina denetatik?*

l) *Zuretzat, zuretzako* argitu. Berez *-tzat* da adizlaguna eta *-tzako* izen-laguna, baina oso hedatua dago adizlagun bezala erabiltzea. Deklinabideko baturako formak eman zirenetik ez da ezer esan auzi honetaz.

m) Nondik: Hitz arruntekin, *-n* edo *-l* bukaera duten hitzetan. Hobetsia da:

barrendik/barrenetik
ehundik gora/ehunetik gora
hurbildik/hurbiletik
urrungo/urrundik, urruneko/urrunetik

n) Prolatiboa: hitzaren bukaera afrikatua denean.

ardatz - tzat: ardatzat, ardatzat... ardaztako... ?

Euskaltzaindiak ez du deus esan honetaz, guk dakigula. Dena dela, EGLU lean behin agertzen da kasu hori idatzita. Zalantza dugu horrek berekin ote dakarren gomendio-araua. Adibidea: 224. orrialdean: “Jende zenbakaiztat hartua bait da” (sic).

Hala ere, ez dago inolako araurik.

o) Atzeraxeago = atzeragoxe (?)

Baliokideak dira. Esana dago EGLUn -xe- indartzailea bi lekuetan joan daitekeela.

p) *Arte* postposizioaren erabilera: *astelehen arte, astelehena arte, astelehenera arte?*

Euskal Hiztegia: *astelehena arte*. Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki.

6. Izenordainak

— Edozer gauza - edozein gauza - edozer. Hirurak daude ondo.

— Elkar - bata bestea. Elkar maite dute - Bata bestea maite dute (?) / Batak bestea maite dute. Aztertzeko auzia; nolanihi ere *batak bestea maite du* behar du izan.

— Haren, bere, beren, haien, beraien,... zein desberdintasun dute eta nola erabili behar dira?. *Euskal Gramatika Laburra* liburukian (72. orr.) esanaz gain, ez dago ezer arauririk.

— Bera eta berdin. *Kolore bera* dute bi kotxe horiek / *kolore berdina* dute bi kotxe horiek; ideia bera izan dugu / ideia berdina izan dugu... Zein da egokiagoa? *Euskal Gramatika Laburra* liburuan ageri den bezala, *kolore bera, ideia bera*.

— *ber(a)* erakuslea / izenordaina instrumentalean. Euskaltzaindiak *beraz* forma ematen du: *gai beraz hitz egin du, ez nintzen beraz oroitu* esaldi egokiak al dira? Bai, egokiak dira.

— Genitiboa eta aditza sujeto berekoak badira (“*geure* kotxean joango gara”, adibidez), genitiboa indartu behar omen da. Hori beti egin beharra dago? *Gure kotxean joango gara* gaizki al dago?

Ez, ez dago gaizki. Ikus zer dioen EGLUk honetaz.

7. Aposizioak

Axularrek, nafar idazle fina, iragarri zuen...

Axular, nafar idazle finak, iragarri zuen...

Axularrek, nafar idazle finak, iragarri zuen...

Axular nafar idazle finak iragarri zuen...

Ane bere alabari esan zion... (?) [bere alaba Aneri]
 Mosku Errusiako hiriburuan bildu ziren...
 Axular Urdazubin jaiotako idazleak iragarri zuen
 (zernahi joan daiteke era honetako aposizioetan?).

Realeko prentsa arduraduna den Andoni Iraolak adierazi digunez...
 Realeko prentsa arduradun Andoni Iraolak adierazi digunez...
 Andoni Iraola Realeko prentsa arduradunak adierazi digunez...

gu bisitariontzat = guretzat bisitariontzat
 zuek guztiontzat = zuentzat guztiontzat

Aposizioen gaia hobeto aztertu beharrekoa da, batasunerako gomendioak eman aurretik.

8. Sintaxi auziak

a) *-Ere*-ren erabilera. Ahal den guztia: ‘Okerrak zuzentzen’ lanean azaldu zena eta gehixeago ere bai ahal bada. Esaterako: *Lehendakariak esan zuen, baita ere* (beste zerbait esan ondoren), *laster jakinaraziko duela ez dakit zer*.

b) Juntagailuak

“*Edo, ala*. Tratamendu osoa eman, salbuespen gutxiarekin ahal bada”. EGLU IV (Juntagailuak) liburuan, ahalegina egin da.

Gramatika auzietan: esaldi koordinatuetan, *eta* erabiltzen denean, zeinekin konmutatu behar da subjektua bi esaldietako aditzen erregimena ezberdina bada. Esate baterako:

— Jon etorri eta afaldu du /Jonek etorri eta afaldu du

— Jon afaldu eta joan egin zen / Jonek afaldu eta joan egin zen

Esan, bietara esaten da, entonazioaren arabera. Idatzirako, aztertu egin behar da.

“Komunztadura emendiozko perpaus juntatuetan: EGLU IV lanean “Emendiozko juntadurak aditza plural komunztadura hartzeraz behartzen duela esan daiteke oro har”. Hala ere, salbuespen batzuk egiten dira, horien artean izen-sintagma abstratuak juntatzen dituzten perpausak (2.4. atala). Abstratuak soilik? *Bazkaria geuk egingo dugu, zuek ogia eta ardoa ekarri behar duzue, besterik ez esaldia zuzena?* Deskribapenetan adibidez: *Serafin hartza... ugaztuna, 16 cm inguru luzeko gorputza eta 20 cm-ko isats orakorra duena*. (LUR *Hiztegi Entziklopedikoa*). Horrelakoetan singularra nahiz plurala erabil al daiteke?”. Bai, biak erabil daitezke.

“Juntagailuei buruzko azken gomendioen artean, hau agintzen da hitzez hitz: “ez da onartzen juntagaia kasu markarik gabeko izen sintagma izatea eta bigarren kasu markaduna izatea”. Hori dela eta, lehenik jakin nahi genuke go-

mendio-erabaki horrek ere indarra ote duen juntagaiak bi baino gehiago direnean. Alegia, nola idatzi behar genuke:

“Toki Entitateen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko legea” ala “Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Legea”?

EGLU IV liburuan esaten den bezala, ezkerrean izenlaguna eramateak asko errazten du izenak juntatzea, eta ez kasu-sintagmak. Beraz, goiko bi aukerak dira zilegi.

“Delako arauak, bertzalde, juntagaia izena + adjetiboa + adjetiboa denean ere balio du? Erran nahi baita: “Sección de Gestión Técnica y Administrativa” izenekoa zer da, “Kudeaketa Tekniko eta Administratiborako Atala”, ala “Kudeaketa Teknikorako eta Administratiborako Atala”?

Hor ere, eskuinean doazen izenondoak zuzenean junta daitezke. Beraz, *Kudeaketa tekniko eta administratiborako Atala* erabat zuzena da.

“Araua betetzeak, bertzalde, arazoak sortzen dizkigu itzulpenak hartaratuak izenlagunak elkarren ondoan pilatu behar ditugunean (eguneroko ogia, guk erabiltzen ditugun testuetan ohi den hizkera bihurriaren ondorioz). Eta arazoak diogu, ulermen aldetik testuak ilun samarturik gelditzen baitzaizkigu. Konparazione, emandako arauari jarraituz: “Langilieriaren Kudeaketarako eta Administrazioarako Atala” berdin izan daiteke: “Sección de Gestión de Personal y Administración” edo “Sección de Gestión y Administración de Personal”. Aldiz, “Langilieriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Atalak” zilegia balitz, ordain bakarria izanen luke erdaraz: “Sección de Gestión y Administración de Personal”.

Lehen esan bezala, “Langilieriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Atala” zuzena da euskaraz. Baina ohart gaitezen, erdaraz ere “Sección de Gestión y Administración de Personal” esatean ere badela anbiguotasuna, “de Personal” izenlaguna bi izenei, “Gestión y Administración”, ala bigarrena bakarrik, “Administración” dagokion jakiterik ez baitago. Gertatzen dena da erdaraz ohituak gaudela eta ez dugula anbiguotasunik ikusten. Euskaraz ere berdin jokatzeko ikasi beharko genuke.

“Berdintsu gertatzen da kasu honetan: “Segurtasuneko Ikerketaren eta Ikasketen Atala”. Hala behar luke, behintzat, Euskaltzaindiaren azken erabakien ariora. Alabaina, nola jakin kasu horretan “Segurtasuneko” hori “ikerketari” soilik dagokion ala “ikasketei” ere? Modu bakarria erdarazko izenari begiratzea da: “Sección de Estudios de Seguridad y Formación”.

“Segurtasuneko Ikerketa eta Ikasketen Atala” jartzeak ez luke konponduko hemen azaltzen den zalantza. Bestalde, erdal izena ere anbigua da: nola ulertu behar da, “Estudios de Seguridad y (de) Formación”, ala “Sección de Estudios de Seguridad” y “Sección de Formación”? Anbiguotasunak hizkuntza guztietan

daude. Erdaraz, izena eta izana, biak batera hartze ditugu, eta hasieratik ohitzen gara modu bakar batean ulertzen.

“*Eta*-rekin elkartutako izen sintagmetan noiz ken diezaiokegu lehenengo parteari deklinabide marka? Noiz ez? Zergatik?”

EGLU IV liburukian azaldua dago hori. Labur esanda, oro har, pluraleko sintagmetan dugu aukera *guraso eta lagunekin* nahiz *gurasoekin eta lagunekin* esateko. Singularrean, kasu-sintagmak elkartu behar dira: *etxean eta kalean*.

c) Zeren... bait..., zeren. Erabilera argitu.

d) Subjuntiboko adizkien batzuetan *-n* atzizkia hartzen dute eta beste batzuetan *-la*. Noiz erabili *-n* eta noiz *-la*? *Etor dadin ala etor dadila? joan zaitezzen esan dit / joan zaitezela esan dit*. Biak onartzen dira? Noiz bata eta noiz bestea?

e) Konpletiboetan esaldi nagusia ezezkoa denean zein lotura erabili behar dugu? “*-ela / -enik*; esate baterako: *ez dut uste joanen direnik / ez dut uste joanen direla*. Noiz bata eta noiz bestea? Zein tokitan bata eta zeinetan bestea?”

“Erabakitzeokak” zatiaren hasieran esan bezala, galderak eta zalantzak jaso ditugu. Gramatika batzordeak begien aurrean izango ditu bere txostenetan.

-eneko delakoa baztergarria omen; zergatik sartu da forma hori?, ez da inondik ere beharrezkoa?, beti da gaitzesgarria?: *gogoratzen duzu ni uretara erori nintzenekoa* esaldia ondo?

Bai, esaldi hori ondo dago “erori nintzen momentu/une/garai...koa” esan nahi baitu. *-(e)neko* beharrezkoa da erlatiboaren ondoko izena —gehienetan denbora adierazten duena— isilpean uzten denean. Baina oro har ez da beharrezko *liburua erosi dudaneko denda* bezalakoetan; hor nahikoa da *liburua erosi si dadan denda*.

-(e)lako/-en/-enaren + izena: *ezkondu delako berria, hori gaizki dagoe-lako ustea oso zabaldua dago*; baina zerbait larria gertatu den susmoa *dut, ordainduko ez didaten beldur naiz, hemengoa den seinale*; alor honetan ez ote da zalantzarik? Hemen aipatzen diren adibideak guztiak daude ondo.

f) *-nola... -(e)n/bait-* ondoriozko egitura onargarria? (OEHN adibideak badaude).

g) *-la, -larik*. Moduzkoetan *-larik* erabili daiteke?

h) *-nez, -nez gero*. Argitu.

i) *-hain..., -(e)la* ondoriozko egitura onargarria? *hain..., bait-*egitura onargarria?

j) *-zergatik...-(e)n* edo *-(e)n* gabe): onargarria? EGLU III lanean literaturako adibideak agertzen dira, menperagailu zein lokailu gisa. Egitura horrek

duen 'debekua' eta fama txarra desagertzea komeni da? Euskaltzaindiak EGLU III-n azaltzearekin nolabaiteko 'onespena' eman diola dirudi. Hala bada, argi-agi esaterik merezi?

EGLU III-n, horrelako egiturak literaturan badirela besterik ez da adierazi nahi izan. Hortik aurrera, Euskaltzaindiak ez du esan batasunerako gomendatzeak diren ala ez. Aztertuko da.

k) *Bailitzan* ala *bailitzen*? Euskaltzaindiaren testuetan *bailitzan* agertzen da baina batuako lotura *-en* da.

l) *-tearren*, *-tzearren*, *-teagatik*, *-tzeagatik* atzizkien erabilera helburua adieraziz gogorra egiten da. Espelikazioa, adibideak.

m) *Egitekotan*: erabilera. *Negua otan*, *hotzak egongo ginateke*. = *-z gero?*

Erabilerarik zabalduenean, *zerbeza edatekotan*, *edan ezazu holandesa* bezalako perpausak dira ohikoak. Hau da, *-kotan* = etorkizunari buruzko baldintza ("zerbeza edan nahi baduzu" edo horrelako zerbait).

n) *-tean*, *-tzean*, *-terakoan*, *-tzerakoan*. Sinonimoak?

o) *Jakitera* eta *jakin izatera* berdin erabil daitezke? Ba al dute ezberdintasunik?

p) *Ikusiz* ala *ikusiaz*? Literaturan biak erabili dira; batasunerako ez da erabakirik hartu.

r) Gerundioa.

s) Joskera bereziak. Txirritaren bertso batean *alde batera pena artzen det / zu modu hortan utztia*; *lastima egiten zuen / nere ikustea*. Perpaus horietan bi nor sintagma daudela dirudi; zuzenak al dira?

Zuzenak dira; besterik da euskara zainduan lekurik izan dezaketen ala ez; hori aztertzeko dago.

t) *Kategoria-arazoak*. Zer dira *bezala*, *bezain*, *hain*, *etab.*? Adberbioak.

9. Siglak eta laburtzapenak

— Siglak nola idatzi behar dira? Letra larriz sigla osoa ala lehenengo letra bakarrik; esate baterako *HIES*ak jota dago ala *Hies*ak jota dago.

— Laburtzapenen deklinabidea. Siglen, ikurren eta laburduren deklinabidea nola: Mugatua, mugagabea, marratxoarekin, marratxorik gabe, punturik gabe...

10. Hiztegi gintza

a) Eratorpenaren arloan, atzizkiei buruzko arauak.

— *-go* atzizkiaren esanahia? Taldea adierazteko onargarri bihurtu behar al du? Irakaslego, biztanlego, gutxiengo, gehiengo... Edo lanbidea edo kualitatea adierazteko bakarrik erabili, Iparraldean bezala?

LEF batzordeak lanbidea edo kualitatea adierazteko erabiltzea gomendatu du, baina Euskaltzaindiak ez du oraindik ezer erabaki. Luza gabe argituko du zein den erabilera zuzena batasunerako.

— *-kor*, *-koi* eta *-garri* atzizkien erabilera argitu.

— herrien eta etnien izenetan, noiz ‘*-ar*’ (*-tar/dar*) atzizkia eta noiz ez (*kurdu* nahikoa, ala *kurduar*)? *Europar jatorriko animalia*?

— Pertsona-izen berezietatik eratorrietan zilegi al da *-ar* (kantiar, freudiar, etab.).

— “termino berriak sortzeko garaian eratorpenaren bidea oso emankorra bada ere, sarritan zalantza egiten dugu: atzizkiez erreparorik gabe baliatu hitzak behar izan ahala sortzeko ala baliabide horren erabilera neurtu, hitz eratorria gabe hitz-elkarte edo izen-sintagma erabiliz; adibidez, *-(k)ada* atzizkia: *harrikada*, *makilada* eta antzeko hitz jatorren bidetik *ukondokada*, *belaunkada*, *ez-patakada*, *kulatakada* sortu ala izena + *-ukaldi/kolpe* hitz-elkartearen bidea erabili? *-gile* atzizkia erabiliz *euritakogile*, *jostailugile*, *pintzelgile*, *kortsegile*... ala izena + *-egile* hitz-elkartea bultzatu. Badakigu auzi honetan ezin dela araurik eman eta berezkoa duela euskarak atzizkibidea, baina irizpide orokorrak finkatzeak ez liguke kalterik egingo”.

Oso zaila dirudi kontu honetan irizpide orokorrak finkatzea.

b) Loturik / aparte idatzi?

— *Bete* noiz izenari lotuta noiz aparte denborazko izen konposatuetan: urte bete, ordu bete, aste bete...

Aste bete (*Euskal Hiztegia*), ordubete (Hiztegi Batuko batzordea; *Euskal Hiztegia*-n ez da onartzen, *ordu* sarrerara bidaltzen du), urtebete (Hiztegi Batuko batzordea eta *Euskal Hiztegia*)

— *Zahar* eta *berri* izenlagunek arazo bereziak sortzen dituzte; batzuk agian hiztegi batuak argituko dituenak: *euskaldunzahar* ala *euskaldun zahar*, *euskaldunberri* ala *euskaldun berri*; *hasiberri* ala *hasi berri*...

Berez idatzita. Euskaltzaindiak *euskaldun zahar* eta *euskaldun berri* onartu du. Partzipioa + *berri* egiturak bereiz idaztekoak dira, oso eginak daudenak salbu (*jaioberri*).

— *San Ferminak* forma horrela idaztekoa al da? Ez da hobe *Sanferminak*? Agian erabaki eskaeretan sartu behar nuen hau. Egia esateko, jai iragarpenetan eta jaien berri ematean erruz agertzen dira forma hauek: *Sanferminak*, *Sanjoanak*...

c) Hartzailerik gabeko *eman*, *gertatu*-ren orde. Euskaltzaindia: *eman* sarreran, “ez du ‘gertatu’ adierazten (**neska-mutikoen artean ematen diren lis-karrak*).

d) *Ofiziale* iz. eta *ofizial* izond. forma-bereizketa bultzatu behar litzateke, argitasunaren izenean.

Hori da Hiztegi Batuko batzordearen proposamena, baina oraindik erabaki gabe dago.

— *Ingeniari*, *injinero*, *inginiere*, *injinero*... zein batasunerako? Hiztegi Batuko batzordearen proposamena, *ingeniari* eta *injinero*, biak maila berean. Euskaltzaindiak erabaki gabe.

— Txistukariekin zalantzak: *piska* ala *pixka*, *gaiso* ala *gaixo*. Hiztegi Batuko batzordearen proposamena *gaixo* eta *pixka* (*Euskal Hiztegia*-k ere hala eman die sarrera). ...*Kasu*: ‘adibidez’ esateko balio al du? *Euskal Hiztegia*-k ez du halako adierarik jasotzen. Hobeto aztertu beharrekoa.

— *krokodilo*, *orkestra*... metatesi hauek ez al dira gehiegikeriak? Agian batzuei hala irudituko zaie, baina horiek dira nazioarteko formak, baita Iparaldekoak ere. *Kokodrilo* eta *orkesta* espainierarenak bakarrik dira.

— txigorkia: ogi txigortua, ogi txigorra (?). *Euskal Hiztegia*-n *txigortu* aditza bakarrik jasotzen da. Berez *txigorki* ondo osatua dago, eta horren ordaina *ogi txigortua* izan daiteke.

— Nola idatzi *lehen bait lehen*? Hiztegi Batuko batzordearen proposamena, *lehenbailehen*.

— *Ihardun / jardun*? Hiztegi Batuko batzordearen proposamena *jardun*. *Euskal Hiztegia*-k *ihardun* “laguntzailerik gabe jokutzen da” dio; hau da, aditz trinkoari dagokion partizipio bezala ematen du (*dihardu* etab.). Jokutzen den aditzaren partizipioari *jardun* sarrera ematen dio (*jardun du*).

e) 60ko hamarkada, baina 60 urteak (?). Aztertzekoa.

f) Erdal hitzen euskal ordainak:

Vena: *bena* / *zain*?

Músculo: *muskulu* / *gihar*?

Cómplice: *gaizkile*. Complicidad: *gaizkidetasun*

Estilográfica: *idazluma*

Apoarmatu: *galápago* eta *dortoka* (?): *tortuga*

Descongelar: *izotza kendu*

Konbentzitu: *komentzitu*. *Euskal Hiztegia*: *konbentzitu*.

Konbenio: *komenio*

Apuntatu: (keinatu: *Ipar. nolako hedapena? destatu*?)

Alpergura: *galbana* adierazteko

Hospitalidad: abegikortasun
 Mutatu: eta mutazio, mutante?
 Lokalizatu...
 Ligatu (?)
 Distraitua

Euskaltzaindiak oraingoz forma bakarrik erabakitzen du; adiera ere bai tar-teka. *Apuntatu* Heg. markarekin onartu du Euskaltzaindiak. *Apoarmatu* forma ere onartu du, adierarik markatu gabe. *Alpergura* ez da sartu *a* letraren zerrendan, baina ondo osatua dago (beste kontu bat da zein adiera duen). *Izotza kendu* ere egokia izan daiteke adiera horretarako, baina Euskaltzaindiak ez du ezer esan. Ahalegina egingo dugu argibideak emateko.

g) *Itxiko al duzu ahoa, burugabe horrek ?!* *Itxiko al duzu ahoa, burugabe halakoa?!* Ez Euskaltzaindiak eta ez Gramatika batzordeak ez dute ezer esan honetaz. Baina badirudi biak direla onartzekoak; aztertzekoa izango litzateke bietatik bat hobetsi behar den.

h) Euskal onomatopeien zerrendatxo bat ateratzeko premia ere ikusten da (baldin badago, guk behintzat ez dugu ezagutzen).

Ez dago halakorik. Jaso dugu eskaera.

11. Onomastika

a) Euskal Herriko izenez:

— “Nafarroako herrien izenak. 1990ean Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean landutako *Nafarroako herri izendegia*-n *N.t.e.e.c.* oharra-ekin utzi diren kasuetan bi interpretazio sortu dira euskal langileen artean: gaztelaniazko forma aukeratu (Viana, esaterako) edo Euskaltzaindiak 1979an ateratako *Euskal Herriko Udalen izendegiak* zekarrena hartu (Biana eta abar)”.

Hona Onomastika batzordearen erantzuna: “Nafarroako herrien izenez aipatzen duten duda ez da erraza (...) Euskaltzaindiak 1979an egindako izendegi proposamenak, proposamenak baitziren, ez ziren birretsi. Gauza bat da Biana edo holako batzuk euskaraz erabili ahal izatea, grafia hutsezkoak direnean, eta besterik neologismoak direnean, horietan askoz ere erabilera urriagoa egin beharko litzateke, batez ere udalak onartu ez badu. Azken batean, udal baten izenaren erabilera, udal korporazioari baitagokio, bai Euskal Herrian eta bai bestetan ere”.

— *Iruña/Iruñea*, zein erabili behar dugu? Onomastika batzordearen erantzuna: “Arazoa absolutiboan baino ez da agertzen, deklinatzean Udalak berak *Iruña* hobetsi arren, *Iruñeko*, *Iruñean* eta abar erabiltzen baitu. Batzordeak bi maila desberdin daudela ikusten du, baina argi du euskal izen jatorra *Iruñea* dela, *Iruña* erdaldunek erabilitako izena izanik. Udal edo foru administrazioak zer erabaki duten, irizpen akademikoari jaramonik egin gabe, besterik da”.

— *Bidania*-k -a organikoa al du? Bai.

b) Euskal abizenen grafiak:

Elorza/Elortza
 Alzaga/Altzaga
 Ardanza/Ardantza
 Zabalza/Zabaltza
 Iantzi/Yantzi/Igantzi (herria bezala)
 Iabar/Yabar/Ihabar (herria bezala)
 Iaben/Yaben/Ihaben (herria bezala)
 Carricart/Karrikart
 Haritschelhar/Haritxelhar/Haritxelar
 Gorostiague/Gorostiage/Gorostiaga
 Mendiboure...

Onomastika batzordea: “lege prozedurak eskubidea ematen dio hiritar bati, euskal grafian jartzeko (edo katalan grafian nahiz galizierakoan). *Yanci*, *Yabar*, *Yaben* eta *Yurre*-ren kasuan, herri izenak eta deiturak ez dute zertan era berean joan. Onomastika batzordeak ia 4.000 deituraren euskal ordainen Izendegia prestatu du eta laster kaleratuko da. Iparraldeko deiturez, ordea, Onomastika batzordeak adibide batzuk bakarrik jarri ditu, euskarak han ofizialtasunik ez duelako”.

c) Britainiar Museoa (?): Britainiako Museoa. Onomastika batzordea: “Kontuan izanik *Atlantiko itsasoa* ez bezala, *Museo Británico* ez dela jatorriko izena, gaztelaniaz egindako itzulpena baino, eta munduko gainerako hizkuntzek ere itzultzen dutela, itzulpena egin nahi izanez gero, zuzen egin behar da ingelesetik *British Museum* eta ondorioz *Britainiar Museoa* erabili”.

d) Buenos Airesetako: Buenos Airesko. Onomastika batzordea: “Usadio zaharra pluralean ematea bazen ere euskal amerikanoen artean, azken urteotan singularra nagusitu denez, hobe singularrari lehentasuna ematea, plurala zilegi bada ere”.

EUSKARAREN HIZKUNTZ EREDUAZ ETA KALITATEAZ ZENBAIT GOGOETA

Tolosa, 1996-X-19

Xabier Mendiguren Bereziartu

Nire txosten honen helburua bikoitza da: alde batetik azken urteotan euskararen zuzentasun eta egokitasunaren inguruan han-hemenka agertu diren irizkiak biltzen saiatzea, sarrera gisa, eta ondoren, esku artean daukagun egitekoaren konplexutasuna larriki bedereren azaltzea, euskalgintzan zeini zer egitea dagokion iradokiz: hau da, zer dagokion Euskaltzaindiari, eta zer idazle, itzul-tzaile, kazetari eta irakasleoi. Euskalgintzaren zama astunegia eta erantzukizuna garrantzitsuegia baitira Euskaltzaindiaren, edo talde honen edo haren bizkarre-tan soilik uzteko.

ESALDITIK TESTURA

Bi hitzetan aditzera eman beharko banu, azken urteotan euskalgintzan gertatzen ari den aldaketa, berriki argitaratu den liburuaren izenburua (1) auke-ratuko nuke: esalditik testura, perpausetik testura.

1968an Mitxelenak Euskaltzaindiaren eskariz abiarazi zuen arautze-prozesuak onarpen erabatekoa lortu duelarik, aldi berean pixkanaka ohartuz joan gara estandar hutsarekin ez daukagula urrunegi joaterik, nahiz eta abiapuntu gisa ezinbestekoa den. Badirudi komunikatu beharraren premiak hala behar-turik, konturatzen hasiak garela testua “objektu konplexua” dela eta perpausa ez dela aski, eta bien artean alde nabarmenik izan behar duela. Testua komu-nikazio-unitate baldin bada, hizkuntzaren erabilpen-unitate, eta dela aski per-pausa funtsezko desberdintasun horrek izan behar duela nolabaiteko zerikusia hizkuntzaren erabilpenarekin. Horregatik, “hizkuntzaren sistemaren gramati-kak” erabilpena kontuan hartu gabe egingarriak direla ematen duen bitartean, badirudi ezinezkoa dela hizkuntza baten testuak deskribatzea horiek erabil dai-tezkeen egoerekiko erlaziorik gabe (2). Ortografia, deklinabidea, aditza, per-paus bakuna, lokailu eta juntagailuak arautuz joan eta gramatika osoa burutze-

(1) BATZUK: *Esalditik testura*, Donostia, 1995.

(2) BERNARDEZ, Enrique: *Teoría y epistemología del texto*, Cátedra, Madril, 1995, 73 or.

ko perpaus elkartuak eta etorkizuneko hiztegiaren oinarria izango den 25.000 bat hitz finkaturen zerrenda ugari samar bat argitaratzea falta delarik, inoiz baino indar handiagoz agertu zaigu euskararen zuzentasuna eta egokitasunaren auzia. Eta sarri askotan, teoriarik eta abstraktuan eztabaidatu izan diren zenbait auzi (sintaxiarena, adibidez), testugintzan erantzunak hartzen eta planteaketa berrien premiak sortzen hasi dela esan genezake. Adibidez, administrazioko zenbait xedapen, argitaratu diren bezala zeharo ulergaitzak izateak, edo gure kongresuetan eman diren zenbait hitzaldi, bere horretan interpretarien lanerako ezinezkoak gertatzeak, testu horietako sintaxia auzitan jartzen dute, eta gauzak birpentsatzera garamatzate.

Kalitateari buruzko jarduna, gure artean, berri samarra bada ere, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak, bere EIMA proiektuekin, eta Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak ahaletin eta baliabide garrantzizkorik bideratu zuten jadanik joan den hamarkadan helburu horretara. Hala ere, Euskaltzaindiaren Jagon Sailak 1994ko otsailean antolatatu zituen gai horri buruzko bere lehen Jardunaldiak, hezkuntza, administrazioa eta komunikabideen alorrak aztertuz. Aurretik eta ondoren izan da ahots eta libururik, aldez edo moldez, gaiari hautsak harrotu dizkionik.

Gauden hamarkada honetan bereziki indartuz joan den kezka horren lekuko dira ia bata bestearen parean sorturiko estilo-liburu desberdinak (3), baita irakaskuntza-munduari begira agertu diren beste zenbait testu ere (4).

Bestalde, Unibertsitate-mailan gai berak sortu dituen oihartzun eta kezka adierazgarri dira Bittor Hildagok sintaxiaz, Jon Sarasuak kazetari-hizkeraz edo L.M. Larriganek testu-antolatzaileez egin dituzten doktore-tesiak ere (5).

Beraz, badirudi gure artean gero eta kontzientzia argi eta zabalduagoa dugula euskara estandarren baitan egin den araugintzaz eta finkatze-lanaz au-

(3) ARRASATE MUGUERZA, Manu: *Euskarazko albistegiatarako esku-liburua*, EITB. Bilbo, 1991. EUSKALDUNON EGUNKARIA: ESTILO LIBURUA. EGUNKARIA, S.A. DONOSTIA, 1992. Lopetegi, Eskarne: *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1933. HAEE: *Hizkera argiaren bidetik*. HAEEren Argitalpen Zerbitzua. Donostia, 1994. ZUBIMENDI, José Ramón; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1993. ZUBIMENDI, José Ramón: *Jokaera-liburua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1995.

(4) SALABURU, Pello; KINTANA, Xabier: *Euskara hobean hobe*. Argitarapen zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea. ETXEBERRIA, J.L.: *Euskera jatorraren ildotik*, Txigua. Donostia, 1993. IDIAZABAL, Itziar (de): *Hizkuntzaren Psikopedagogia. Testu motak, funtzionamendua eta didaktika*. Labayru. Bilbao, 1990. HABA: *Euskaldunak euskarari jaten*. 1992. BATZUK: *Esalditik testura*, Donostia, 1995.

(5) HIDALGO EIZAGIRRE, Victor: *Hitzen ordena euskaraz*, Doktore-tesia, Donostia, iraila, 1994. SARASUA, Jon: *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari: gaiari egindako gainbegiratu eta eta euskarazko kazetaritzaren tradiziooko lau kazetatan hitz eta esamoldeen hustuketa kualitatiboa* (Iñaki Zabaleta Urkiolak zuzenduriko doktore-tesia), EHU, 1996. LARRINGAN L.M.: *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudiapen-testuan*, Itziar Idiazabal Gorrotxategi Doktorearen zuzendaritzapean, EHU, Gasteiz, 1995.

rrera oraindik egiteko ugari dagoela, eta zenbaitetan tradizio zaharrekotzat edo berriagokotzat eduki izan diren zenbait uste eta iritzi berrikusi beharraz ere.

Baina alde batetik, inoiz ez bezala eta euskara osoa kontuan harturik Euskaltzaindia etorkizuneko gramatika arauemilearen osagaiak prestatzen aurrera doan bitartean, erdaretatik gero eta gehiago itzuli eta moldatzen diren testuen eraginez batik bat, gure tradiziozko gramatikaren izaeraz eta mugez gero eta zalantza gehiago sortu ere sortu da. EIZIE itzultzaile-elkartean duela hiru urte hasi ziren LIM-LIBI mintegia eta ikastaroen inguruan itzultzaile literarioen andana batek, muga-auzitzat har litezkeen eta oraindik ongi finkatu gabe dauden hainbat puntu bildu eta aztertzeari ekin dio, bere eguneroko lanerako erreferentzia gisa. Bistan dago batzuetan orain arteko jokaerak jakiteak soluzioa ematen diela zenbait arazori, baina beste zenbaitetan hizkuntz premia eta gertakari berrien aurreak aurkitzen garela, eta iraganetik beti ezin izaten dela erabilpen horien zuzentasun eta egokitasuna erabaki: larriki batzuen berri ematearren honako puntuak aipatuko nituzke: *ezezkako esaldien joskera-gatazkak, ezezkako konpletiboen joskera-gatazkak, fokalizazioa aditz-lokuzio eta perifrasiatan, hipotaxiaren erabilpena parataxiaren ordeztu, apositiiboaren erabilpen ari buruzko zalantzak, "zein"-ez baliaturiko egituren mugak*. Eta abar.

Aipaturiko itzultzaileen bilera horietan, eta goragoko zenbait testutan, gero eta gehiago hitz egin izan da gramatika-maila gainditu eta testuaren organikitetasuna zaintzeaz (anaforiko, kataforiko, lokailu eta abarren erabilpenaz), eta inguruko erdaretan gero eta ugariagoak diren diskurtsoaren azterketak eta testu-gramatikak gure artean ere lehenbailehen burutu eta plazaratzeaz. Izan ere, kalitatearen auzia, idatzian tipografia eta ortografiatik hasi eta lexikoa eta sintaxia gaindituz testuaren koherentzia eta kohesioraino iristen den fenomeno delako jabeturik baikaude, testu idatziaz baizik ez hitz egiteko.

Horrela, 1994ko Jagon Sailaren Lehen Jardunaldietan oso garbi ez zegoen zuzentasuna eta egokitasunaren arteko bereizkuntza gaur argiago ikusten dugu, eta oraindik orain, Miren Azkaratek Udako Ikastaroetan zehazten zuenez, etorkizunerako eraiki nahi dugun hizkuntz ereduak zuzena izan behar du alde batetik, hau da, gramatika-ahatsik ez duena, eta bestetik, egokia, entzuleak/irakurleak eragozpenik gabe jasoko duena eta dagokion erregistroan emana. Eta hori lortzea da "euskarak hurrengo urteetan duen eronkarik handiena", andre euskaltzainarentzat.

Horrela esanda, argia eta garbia dirudien horrek uste baino zailtasun handiagoak ditu gauzatzeko orduan. Gaurko euskarak zuzena izatekotan tradizioaren araberakoa eta estandarraren arau-gomendioak betetzen dituen izan behar du. Baina, bistan dago, tradizioa ulertzeko modu desberdinak daudela gramatikari eta praxi desberdinen arabera, eta zenbait kasutan iraganeko ereduak ez dituela balio premia berriei bete-betean erantzuteko, edo gutxienez ez dutela argi uzten zer neurritaraino horien baitan hedapen eta aldakuntzak egin daitezkeen, erdaretatik datozkigun erronkei erantzuteko; beraz, esamolde berriak as-

matu beharra dugu, analogiaz, erdaretako ereduak imitatuz, eta abar. Oso zaila da iritzi-berdintasuna lortzea proposamen berri horiei buruz, sentsibilitateak eta premiak desberdinak direlako, eta sarri askotan iraganeko hizkuntz gertakarien ikuspegiari berari buruz ere bat ez gatozelako (ikus, adikidez, Bittor Hildagoren sintaxiari buruzko doktore-tesia) (6).

Bestalde, zenbait puntutan Iparra eta Hegoaren artean tradizio desberdinak ere sortu dira, eguneroko lexikoari dagokionean eta etorkizuneko hiztegegintzari dagokionez batzuek garbizaletasun(keria) hobesten duten bitartean, beste batzuek mailegu eta kalkoen erdibide orekatuari muzin ez egitea gogokoago dutelako.

SINTAXIA ETA ESTILISTIKAREKIKO AUZIAK

“Mitxelenak Arantzazuko txostena” izenpean ezagutu izan den batasunerako proposamenetan (7), Joskerari buruzko VI. eta azken atalean, sail hori besteak baino itxi gabeago utzi beharraz hitz egiten digu. Baina gogora ekartzen dizkigun zenbait puntu garrantzizkotzat jotzen ditut bizi ditugun uneotan argigarri gerta litezkeelako. Mitxelenak, laburbilduz, ideia hauek eskaintzen ditu gai horien inguruan:

— *Euskara bizi delarik eta euskara bizi deino, ez du beti batean irauten eta ez du iraungo.* (Hizkuntza bizia ez da iragana errepikatze soilera mugatzen).

— *Maila edo mota bat baino gehiago daude euskara idatzian. Poesi mintzaera landua dugu aspaldidanik eta orain ere lantzen ari zaizkigunak badiugu; bide bat baino gehiago badugu sail horretan eta ez zaio inori debekatzen bide berrietan barrena abiatzea. Orobat esango nuke, hainbestean ez bada ere, elkar hizketari dagokionez, aho mintzaerari lotuago ageri den elkar hizketari: teatroak, ipuin-eleberriek erakutsi digute zer den eta zer izan daitekeen.* (Erregistro eta hizkuntz maila desberdinen aitortpena).

— *Euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, “gramatikatasunean” landaturik baina “gramatikatasun” soilean oinarriturik ez zaizkigularik.* (Gramatikaz haraindiko hizkuntz gertakarien aitortpena).

— *Sartaldeko prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza. Ibilaldi horiek edozein hizkuntza arinago, zailuago, malguago bihurtu dute.* (Europako hizkuntza garatuetako prosaren ezauzgarri komunak).

(6) HIDALGO EIZAGIRRE, Victor: *Hitzen ordena euskaraz*, Doktore-tesia, Donostia, iraila, 1994.

(7) MITXELENA, L.: “Euskararen batasun bideak” in *Euskera*, 1968, 203-219 or.

— *Euskaldunok* —herri gaietan izan ezik— ez dugu kultura berezirik, mendeko gara, kultura barruti horretan bizi gara. Ezin izan dezakegu askatasunik hizkuntzaren aldetik. latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun eta goazen aurrera bide horretatik. Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batena, nazio artekoa baizik: B.L. Whorf-ek “standard average European” deitu zuena. Euskal idazle gehienek ere ez dute bestela jokatu. (Prosa homologatu baten premia).

— “Euskal usaina”, “euskal kutsua” ongi dago euskal gaiak erabiltzeko, baina hortik kanpora ur garbiaren pare izan behar du behar bezalako prosak: inongo usainik, kolorerik eta zaporerik gabea. (Euskara eta euskal literatura ghettoan eta esentzialismo fixistatan erortzearen arriskuaren salakuntza).

— Hitz ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko gaitak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar izkutua nabarmenduaz. (Edozein hizkuntzak sormenari eta premia berriei erantzuteko behar duen askatasunaren aitortpena).

Eta Mitxelenak goiburu gisako batekin amaitzen du bere txostena “Hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderatu, hizkuntz legeen lokarriak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihurtuz”. Beste era batera esateko, tradizioko hizkuntzari obeditzen ikasi beharra dago, gaurko eta etorkizuneko euskararen baitan agintari izateko; iraganetik altxorra ezagutu eta gordetzeak ez gaitu perlesiak jota eta geure zilborrari begira utzi behar ingurukoekin harremanetan sartzeko gai ez gabela solipsismoan hesituta.

Duela ia hiru hamarkada Errenteriako hizkuntzalariak idatziriko lerro hauek lehen begiratuan ematen dutena baino sakonera handiagoa dute eta gogotarako aski gai ematen digutela esatera ausartuko nintzateke gaur egun ere.

KAZETARI-HIZKERAREN BILA

Azken hamarkadotan euskarazko liburugintza —testugintza— bi eskuetako hatzez zenbatu zitekeen kopurukoa izatetik mila baino gehiago plazaratzera hazi da. Hazkuntza hori kuantitatiboa ez ezik kualitatiboa ere bada. Hala ere, liburu idatziaren alorreko gehikuntza harrigarria izanik ere, hedabideen (telebista, irratia, prentsaren) alorrean gertatu den iraultza izan da, seguraski, euskalgintzan aldaketarik sakonena eta eragingarriena ekarri duena, administrazioan eta irakaskuntzan eman diren urratsak ahaztu gabe.

Literatura, pentsamendua, komunikabideak eta abarretan neurri handi batean itzulpenak izan dira nagusi; erdal ereduak aurrean zirela euskarazkoak sortu behar izan dira. Harritzekoa ez denez lan horietan ari izan direnek ez dute beti behar adina ezagutu iraganeko euskal tradizioa, ezta itzulpengintza egoki

burutzeko ezinbestekoak diren teknika eta prozedurak ere, eta ondorioz ahozko zein idatzizko zenbait testuren ulergarritasunak arazoak sortu izan ditu.

Egoera horren aurrean kritika bat baino gehiago agertu izan da, aldi eta era desberdinetan, eta lehen aipatu ditugun zenbait estilo-liburu dira, aldez edo moldez, horren lekuko argienak. Euskara (gramatikalki) zuzen eta (estilistikoki) egokiaren nahiak bultzaturik antolatu dira Jardunaldiak eta idatzi dira zenbait kritika eta gomendio eta inork gutxik jarriko luke auzitan horiek guztiek eskaini duten laguntza euskara idatziaren kalitatea hobetzeko.

Oraindik orain, euskal kazetaritzaren azterketa sakon eta luzea den Jon Sarasuaren doktore-tesian sail horretako arazo ia guztiak egoki azterturik datoz eta 9. atalean “Hizkuntza egokirako bidelagunak: estilo-liburuak eta zerbait gehiago” izenburupean datoz gure arteko estilo-liburuen aurkezpena eta iruzkina.

Aurreko atalean, komunikazioaren irizpidea behin eta berriz azpimarratzen jardun ondoren, hau da, “desbideraketa eta mimetismo guztien gainetik, komunikazio erraz eta argiaren irizpideak izan behar duela nagusi euskarazko kazetari-hizkera moldatzerakoan”, Sarasuak dio beste aspektu batzuk ere kontuan hartzea eskatzen duela hizkuntzaren **duintasunak, eraikuntzak eta zuzentasunak**. “Orain eta hemen komunikatzeaz gainera, hizkuntza denboran zehar kokatzen ere jakin behar da” (8). Sarasuarentzat, ezin daiteke irizpide bakarra izan “gaur-orain argi eta erraz komunikatzea, nagusia berau izan arren”, batu estandarraren eraikuntzan ere kokatu beharra dauka bere burua kazetaritzak. Eta honela jarraitzen du: “Eraikuntza-tentsioan dago euskara, eta horrek kazetaritzan islada du. (...) Eraikitzeak (eta prozesuaren ideiak) badakigu zer esan nahi duen: aurreratzea, irakastea, bidea egitea. Horra “erraz komunikatze” soilarekin kontraesanean jar daitekeen aspektua.

Bestalde, didaktismoaren aurrean jarrerak ez datoz bat: Zubimendi/Esnalenzat “kazetariaren jarrera sasi-didaktikoa zenbait komunikazio-oztoporen oinarri” den bitartean, Sarasuak jarrera ñabartuagoa ageri du, eta zenbait kasutan “definizioa ematea, terminoaren segidan antonimoa ematea, adibidea jartzea edo azalpena ematea” didaktismoa ala komunikazioa ziurtatzea ote den galdetzen du (1996:179). Azkenean, neurri-kontua, tentu-kontua dela esan ondoren, komunikatu beharra eta hizkuntzaren eraikuntza eta finkatzea biak uztagarri eta egin beharrekotzat ikusten ditu.

Ondoren, “laburbidearen ideia, bidezidor propioaren ideia” garrantzizkotzat jotzen du euskarazko kazetari-hizkerarako; horrek, Sarasuaren ustez, egitura luze-geldotik aldentzea eskatzen du, albo-erdaren bide bera egin gabe, euskararen baliabideak garatuz komunikazio zuzenera eta hizkera samurrera jotzeko (1996:181).

(8) SARASUA: *Op. cit.*, 177 or.

Hala eta guztiz ere, Mitxelenak lehen gogoratzen zigunez, euskarak *maila* edo *mota* bat baino gehiago ditu eta erdarazko prosetan bezala bide berriak ireki beharra daukagu. Horretarako, ezin ahaztu euskarak ezin duela *beti batean irauten* eta orain arte izan ez dituen premia eta erabilpeni erantzun behar diela etorkizunean.

HAEE ETA HIZKERA ARGIA

Administrazioa da euskarak iraganean ez bezala azken urteotan lantzen diharduen eta etorkizunean gero eta euskaldunagoa izatea espero dugun beste alorretako bat.

HAEEK *Hizkera argiaren bidetik* liburua argitaratzean, hizkuntza-aldaeren (geolektoa, kronolektoa, soziolektoa, idiolektoa) fenomenoaren berri ematek hasten da. Ondoren, aldaeren gainera estandarra dagoela adierazten du, hiztun guztiek, idatziz behintzat, elkar uler dezaten. Gero, eginkizun berezietarako aldaeren sailkapena eskaintzen du: lanbide-hizkera, hizkera tekniko, zientzi hizkera eta sinbolo-hizkera, azkenik, administrazioko hizkeraren berezitasuna azpimarratzeko: ez da hiztunen adituen artean soilik erabiltzeko, herritarra ere tartean den heinean, ez dauka zertan hizkera jaso edo jagia izan. Horregatik "hizkuntza erraldoien administrazioko mordoilo ulertezina" gureganatzeari ez deritzo bidezko.

Beraz, administrazioa herritarrengana hurbiltzearen bidetik, administrazio-hizkeraren ezaugarriak eskaini ondoren, "English Plain Language" (9) deitutaren bidetik EEBBetatik hedatuz doan eta Estatuko administrazio gehienak beren lengoai berritzeko egiten ari diren ahaleginen barruan kokatzen du bere burua. Ondorengo sei kapituluetan idatzizko komunikazioa, garbi idazteko bideak, administrazioko itzulpenak, administrazioko idazkiak eta Hiztegia bezalako gaiak lantzen dira.

ULERGARRITASUNAREN MUGAK

Azken urteotako zenbait kazetari-testu eta itzulpenen kritika egitean bi hitz agertu izan dira beste guztien gainera: ulergarritasuna, argitasuna ((lehenengo irakurraldian ulertzea) eta ahozotasuna (10).

(9) BAILEY, Edward P.: *The Plain English Approach to Business Writing*. New York: Oxford University Press, 1990. WYDICK, R.C.: *Plain English for lawyers*. North Carolina: Carolina Academic Press Durham, 1985. EAGLESON, R.D.: *Writing in Plain English*. Canberra: Government Publishing Service, 1990.

(10) I. Sarasolak gaurko itzulpena "oso momentu ona ari dela pasatzen" aitortu ondoren, zenbait testuri lehen irakurraldian ulergarri ez izatea egotzen die, "esaldiaren oreka" behar bezala zaindua ez dutelako. BIGURI, K.: "Ibon Sarasolarekin berbetan" in *Senez*, 16.º, 1995, 19-23 orr.

Zenbaiten kritikak “ulergarritasuna” izan du abiapuntu, idazki-motarik (genero edo azpigenerorik ia bereizi gabe). Ulergaiztasuna edo ulertezintasuna zenbaitetan **sasi-euskaraz** idatzia egotetik, hau da, hizkuntzaren gutxieneko baldintzak betetzen ez zituen euskaraz idatzia egotetik etorri izan zaie irakurleei. Beste zenbait kasutan, berriz, **euskara gordinex** idatzirik egotetik, hau da, lehenengo irakurketan ulertzen ez denaz idatzirik egotetik (11). Beraz, euskara egokia “lehenengoan ulertzen den euskara” baizik ez da horrelakoentzat.

Horrela, besterik gabe, inork gutxi kontra egingo lioke “lehenengoan ulertzen den euskara argiari” eta gutako ia gehienok behin baino gehiagotan biziki desiratu ere egin izan dugu gaitasun horren jabe den testurik orrialde trakets, bihurri eta ulergaitzen bat irakurtzen ari ginela, baina hasiera batean onargarri eta nahigarri diruditen baieztapen horiek, pixka bat aztertuz gero zailtasun eta arazo bat baino gehiago dutela ohartzen gara.

Kazetaritza, orokorrean hartuta, genero berriemaile soiletik interpretaziozko testu edo artikulu editorializatuetaraino doan gama zabalak osatzen du. Beraz, kazetari-hizkeran bertan ere genero eta azpigenero desberdinak daude eta horietako batzuek “lehen irakurraldiko ulergarritasuna” nekezago eskaini lezateke; areago, zenbaitetan ongi neurturiko anbiguitatez idatziak izaten dira.

Aipaturiko eskakizun edo baldintza horrek, berriz, prosazko edo bertsozko literarioan, testu zientifiko tekniko, eta humanistikoetan nekez du sarrera egokirik bere horretan: lehenengo eta behin ulergarritasuna irakurle bakoitzaren araberakoa, eta argitasuna, faktore bat baino gehiagoren ondorioa delako, bazuetan berariaz saihestua ez ezik, testu askotan gaiaren zailtasunak berak eragotzia delako. Pentsa bedi zenbait testu zientifiko, teknologiko edota umorezko duten zailtasun edo “iluntasuna”. Testu publizitario eta umorezko asko ere ez dira lehen irakurraldian ulertzen direnak, hain zuzen ere planteamendu metalinguistikoen gainean eraikiak izaki, hizkuntzaren ohiko mugak gainditzen saiatzen direlako. Horregatik, “ulergarritasuna”, goian aipatu den zentzuan, erabilpen mugatu eta arazotsua duen kontzeptua da testu-mota desberdinak aztertzen hasiz gero, batez ere kontzeptu ia absolutu bihurtu nahi izanez gero behintzat.

Erretorika klasikoan, testuak *aptum (prepon grekoz)* izateko bi gaitasun behar zituen: *puritas* (garbitasuna) eta *perspicuitas* (argitasuna). Lehen bertutearen kontrako erasoak *barbarismo* (atzerritarrismo, dialektalismo, neologis-

(11) ZUBIMENDI, José Ramón; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*. Eusko Jauriaritza. Gasteiz, 1993. *Sasi-euskara*, euskararen gutxieneko baldintzak eta legeak betetzen ez dituenazuzentasun, jatoritasun eta ulergarritasunik gabea da.

Euskara gordina gramatikaren araberako euskara zuzena, baina lehenengoan ulertzen ez dena, gogorra, heldu gabea, irensten gaitza. Ulergaitza den heinean sasi euskara bezain alferrikakoa. Sasi-euskara baino kaltegarriagoa engainagarria delako eta euskarari oinarriak kutsatzen dizkiolako.

Euskara egokia: lehenengoan ulertzen den euskara, 137-153 orr.

moak) eta *arkaismoetatik* etortzen zitzaizkion. Aldiz, bigarren bertutearen kontra, *solezismoak* (soloikismo) egiten ziren, morfologiazko akatsak eta horien artean desarauzko (gehiegiz edo gutxiegi egindako) eraikuntzak salatzen ziren: gehiketa, ezabaketa, truke eta ordezpeneko solezismoak. Gehiketazkoen artean, esaterako, *pleonasmoa*, *perisologia* eta *makrologia* zeuden.

Kintilianorentzat *pleonasmoa* “alferrikako hitzez esaldia zamaturik dagoeanean gertatzen da”.

Perisologia, pleonasmoren antzekoa, “esaten denaren zentzuan inplizitu edo aurrez esanak dauden datuen enuntziario erredundante eta alferrikakoa da”.

Azkenik, *makrologia* “behar baino gehiago hitz egitea” zegoen. Hiru solezismo horiek, zegozkien *licentiae* edo lizentzien bidez positibo bihur zitezkeen, figura erretoriko edo baliabide: *pleonasmok*, hisiazko erredundantzia, *perisologiak* sinonimia, estilistikoki eta semantikoki justifikaturiko metatze eta hedatzeak eta *makrologia* perifrasi edo itzulingurua.

Bestalde, erretorika klasikoak ordezpeneko *metaplasmatzat* hartzen ditu hizkuntzaren jatorriaren kontrako erasoak ere: neologismoak, arkaismoak, atzerritarrismoak eta dialektalismoak. Horiek guztiak legitimaturik zeuden geroa behintzat objektu edo nozio hizkera berezietarako teknizismo gisa (filosofia eta erretorikako helenismoak) hitz berriak sartzearen premiaz edo literaturak hala eskatzen zuelako (errima).

*Puritas*erako bazegoen oinarri gramatikal bat, debekatua eta baimendua bereizten laguntzen zuena; aldiz, *perspicuitas*-a eta bere kontrakoentzat entzule edo irakurlearengana egokitzearen irizpidea erabiltzen zen. Erabateko iluntasuna zen argitasunaren kontrako “akatsik handiena”. Oratoriatik poesiara eta erretorikatik poetikara iraganez gero, jarrerak aldatu egiten ziren iluntasunaren onarpenarekiko. Arrazoi literario eta testu-generoen (erlijioso, profetiko, magiko...) konbentzioengatik iluntasuna onartzeko jarrera irekiagoa zegoen.

Sintaxizko iluntasun erabatekoa, *sinkisi* deitua, esposiziozko prosan akasztzat jotzen zena, poesiaren osagai baliotsu bihurtu zen.

Zatikako iluntasuna *anfibolia* (zentzu-anbiguitatea) eta *anfibologia* (era desberdin eta kontrajarriratan interpreta daitekeen termino edo eraikuntza gramatikalak dituen diskurtso iluna). Kasu horietan ere akats eta lizentzia bezala erabil zitezkeen, bikoitza zen “iluntasun”aren erabilera.

Azkenik *polisemia*, *sinonimia*, *antonimia*, *hiponimia* eta *hiperonimia* bezalako figurak ere ere iluntasun/argitasun-maila erlatibo horretan kokatu behar dira.

Perelman eta Olbrechts-Tytecaentzat (12) “entzuleengana egokitzearen eskakizunek gidatu behar dute diskurtsoaren ordenaren azterketa” eta Locke

(12) PERELMAN, Chaim; OLBRECHTS-TYTECA, Lucie: *Tratado de la argumentación*, Gredos, Madrid, 1989 [1958].

ingeles filosofoak ere hala dio bere testu sonatu batean: “testu edo nozio baten argitasuna inoiz ez dago erabat bermaturik, interpretazioa gertatzen den testuingurua era konbentzionaletan eta nahita zedarritu ezean”. Sarritan, batez ere hizkera berezituari dagokienez, iluntasuna gai konplexu baten aurrean profanoak dituen zailtasunekin nahastu ohi da, eta horregatik zaila gertatzen da gai bat, zehaztasun zientifiko eta tekniko, hau da, esamolderik ahalik eta unibokoenez aurkezten denean ere.

Bice Mortara Garavelli-ri bagagozkio, (1988:156) “diskurtso zaila” eta “argi hitz egiteari” buruzko eztabaidak agerian jartzen dute arazotsua dela era absolutuan tratatzea eta diskurtsoko objektuak komunikazioko elementu guztiekiko (partaideak, ezagutza konpartituak, denbora- eta espazio-egoera, helburuak, auresuposizioak eta abar.) erlazioan aztertzen dituen ikuspuntu pragmatikoa (erretorikoa) zer neurritaraino emankorra den erakusten dute.

Autore italiar berak Italo Calvinoren aipu bat eskaintzen du: “Gauzak sinpleak ez direnean ez dira argiak ere izaten; argitasuna, sinpletasuna kosta ahala kosta nahi izatea, arrunckeria da, eta uzi horrek bihurtzen ditu diskurtsoak generiko, hau da, iruzurti. Aitzitik, gauzarik konplexuenei buruz ahalik eta zehaztasun handienaz pentsatu eta espresatzen ahalegintzea da jarrera jator eta baliagarri bakarra (13)

Italiar idazle sonatuaren zentzu berean, eta itzulpegintzari dagokionez, eza-gunak da Antoine Berman traduktologo frantsesaren ekarpena “Itzulpenaren analitika eta deformazioaren sistematika” izenburupean (1985:68), eta bertan hamahiru joera aipatzen ditu jatorrizko testua itzulpenean desitxuratzeko: ia gehienak “argitzea” eta “ulergarritzea” bezalako eragiketara sailean sar litezke (14).

TESTUAREN ERAKUNTZA

Erregistroa, diskurtsoa

Orain arten esandakotik susma daiteke ulergarritasuna eta hizkuntza beraren kontzeptua zabalegi eta heterogeneoegi gertatzen direla, beste zehazta-

(13) CALVINO, Italo: *Una pietra sopra. Discorsi di letteratura e società*, Torino, Einaudi, 1980.

(14) “L’explicitation peut être la manifestation de quelque chose n’est pas apparent, mais celé ou reprimé, dans l’original. La traduction, par son propre mouvement, met au jour cet élément”. C’est à quoi fait allusion Heidegger pour la philosophie:

“Par la traduction, le travail de la pensée se trouve dans l’esprit d’une autre langue, et subit ainsi une transformation inévitable. Mais cette transformation peut devenir féconde, car elle fait apparaître en une lumière nouvelle la position fondamentale de la question” (Questions, 1968).

(...)

Mais en un sens négatif, l’explicitation vise à rendre “clair” ce qui ne l’est pas et ne peut pas l’être dans l’original. Le passage de la polysémie à la monosémie est un mode de clarification. La traduction paraphrasante ou explicative, un autre. BERMAN, Antoine: “La traduction et la lettre ou l’auberge du lointain” in *Les tours de Babel*, T.E.R., 1985, 70-71 or.

penik gabe bere horretan, hau da, ez direla operatiboki oso baliagarri gertatzen zenbait helburutarako: deskribatzeko, konparatzeko edo pedagogi xedeetarako, adibidez. Beraz, testuinguruaren hiru dimentsioak, testu-egitura osatzen dutenak kontuan izatea ezinbestekoa da: *transakzio komunikatiboa*, *egintza pragmatikoa* eta *elkarregintza semiotikoa*.

Lehenari dagokionez, “azpi-hizkuntza-” edo aldaera-sailkapen bat izatea komenigarria da, eta hizkuntza guztietan hala gertatzen da maila batean edo bestean.

Hizkuntz erabilpena deskribatzeko Halliday, McIntosh eta Strevens-ek (1964) marko bat gomendatu zuten eta bertan bi dimentsio ageri dira. Lehenak *erabiltzailearekin*, hitzuna edo idazlearekin du zerikusia; eta horri dagozkion aldaerek (Corder, 1973) *dialekto* izena hartzen dute. Bigarren dimentsioak *erabiltzenarekin* du zerikusia, eta dagozkion aldaerek *erregistro* izena hartzen dute. Lehenak batez ere bitarteko fonikoz aldatzen diren bitartean, bigarrenak hizkuntz formaz (gramatikaz eta lexikoz) aldatzen dira batik bat. Ikus ondoko laukian:

Hizkuntz bariazioa

Erabiltzailea
dialektoak, etab.

1. Geografikoa
2. Denborazkoa
3. Soziala
4. (Ez) estandarizatua
5. Idiolektala

Erabilpena
erregistroak, etab.


Halliday *et al.* (1964) hizkuntzalarien hitzetan, erregistro kategoria jendeak hizkuntzarekin egiten duenaren berri emateko gordetzen da. Hizkuntz jarduera gertatzen den testuinguru desberdinetan behatzen dugunean, aldeak aurkitzen ditugu egoera-mota desberdinetarako egokitzen hautatzen den lengoia-motan. Bestela esateko, erregistroak gramatika, hiztegi eta abarreko desberdintasun gisa definitzen dira; adibidez, kirol-iruzkin bat edo elizako sermoi bat. Eta erregistro bakoitzean hiru aldaera-mota bereizten dira:

1. *Diskurtso-eremua*
2. *Diskurtso modua*
3. *Diskurtso-tenorea*

Lehenak “gertatzen ari denaren” erreferentzia egiten du, hau da, jarduera-alorrarena, Gregory eta Carrollek (1978) “*zeregin intenzionala*” edo testuaren funtzio soziala deitzen dutena.

Bigarrenak hizkuntza jarduera gertatzen den bitartekoaren erreferentzia egiten du eta erabilitako hizkuntza kodearen izaera jartzen du agerian. Oina-

rrizko bereizkuntza *ahozkoa* eta *idatzizkoa* izaten da. *Kanala* edo komunikaziorako erabiltzen den eroalea *moduaren* alderdi garrantzizkoa izaten da. Ahozko/idatzizko kontrajartzea gainditu eta beste ahalbide komunikatibo batzuetara hedatzen da: telefonozko elkarrizketa, entseia, negozio-gutuna, eta abar. Ikus irudian:




Hirugarrenak, diskurtsoaren *tenoreak*, hiztuna eta entzulearen arteko erlazioa transmititzen du eta ongi hezia-kolokial-intimo bezalako gradazioa izan lezake formala eta informala muturretan dituelarik. *Tenore pertsonala* dei litekeen honetaz aparte Gregory eta Carrollek (1978) *tenore funtzionala* bereizten dute, egoera jakin batean hizkuntzaren erabilpena zertarako den deskribatzen duen kategoria: “Zer egin nahi du hiztunak: pertsuaditu, aholkatu, zuzendu?”

Dena den, erregistroak beren artean bereizteko irizpide formal oso zehatzik ez dagoenez gero, aski zaila izan da beti erregistro jakin baten mugak ongi bereiztea. Horregatik, *erregistro murriztuek*, egoera tipiko edo estereotipatuetan erabiltzen direnek, askozaz nortasun zehaztuagoa dute (protokolo diplomatikoen, adibidez; aldiz, kazetari-hizkera, erregistro irekiak dituen, beste muturrean legoke: aseguru-kontratuak edota meteorologi albisteak, esaterako, tartean aurkitzen dira.

Baina erregistroen analisiak testuinguruaren dimentsio komunikatiboari egiten dizkion ekarpenak garrantzizkoak izanik ere, ez dira aski bere horretan; beste dimentsio bat, *pragmatikoa* deritzana bereizi beharra dago “hitzeekin gau-

zak egitearen” gaitasunari buruzko balioak agerian jartzen dituena. Eta oraindik beste hirugarren bat ere ezin da ahaztu, *semiotiko* deritzana, eta unitate komunikatibo bakoitza, balio pragmatikoa barne duela, zeinu-sistema baten baitako beste zeinu bat gehiago bezala tratatzen duena. Ikus irudian.



Pragmatika hizkuntzaren eta bere burutzapen berbaleko testuinguruaren arteko erlazioen azterketa gisa definitu izan da, edo Stalnaker-ek (1972) nahiago duenez, perpausa zer asmotarako erabiltzen den aztertzen duena bezala; beste zenbaitek mundu errealdaren baldintzen azterketa bezala ikusten du, horien baitan perpaus bat burutzapen berbal egoki gisa erabili ahal izateko.

J. Austin, Oxfordeko filosofoak (1962) hiru egintza-mota desberdin be-reizten zituen hizkuntzaren erabiltzaileak burutzapena egitean: egintza *lokuzio-narioa* (perpaua ongi eratu eta zentzuduna burutzapenaren egintza); egintza *ilo-kuzionarioa* (burutzapenak berekin duen indar komunikatiboa, adibidez: agindu, ohartarazi, arrazoa eman, ukatu...); egintza *perlokuzionarioa* (entzule/irakurlearen baitan burutzapenak duen efektua: hau da, zer neurritaraino har-tzailearen aldartea, ezagutza edo jarrera aldatu diren burutzapen horren inda-rraz).

Hiru egintza horiek *hizketa-egintzak* (hitzegintzak) izenarekin ezagutzen dira. Searleren (1976) ildotik, Traugott eta Pratt (1980) izan dira sailkatu di-tuztenak.

Hizketa-egintza batek ondorio egokia lortzeko behar dituenak arrakasta-baldintzak (*felicity conditions*) izenpean ezagutzen dira. Oso entzunak dira Gri-ce-ren (1975, 1978) komunikazio efektiborako arau edo maximak eta honako bost puntu hauetan laburbiltzen dira: *kooperazioa* (onarturiko asmoaren ara-berakoa izan), *kantitatea* (behar bezain informatzailea izan eta ez gehiago), *kualitatea* (faltsua denik edo ziurtatu gabekorik ez esan), *erlazioa* (muntaduna izan) eta *era* (argia izan, anbiguitate eta nahasmenduei ihes egin).

Dimentsio semiotikoa

Diskurtsoa inguratzen duten supostu, aurre-suposizio eta konbentzioak kul-tura jakin batek duen errealitatea eraiki eta sailkatzeko eraren islada dira, eta hizkuntza bakoitzak bere erara adierazten ditu banaketa horiek. Horregatik kul-tur sistema batetik bestera esanahiak pasatzeko orduan kontuan hartu behar dira bakoitzaren berezitasunak. *Semiotika* edo *semiologia* da zeinuak, bere jatorriz-ko habitatean: gizartean, aztertzen dituen zientzia. Horregatik testua idaztean edo itzulpena burutzean genero, diskurtso eta testu kategoriek determinaturik hartu beharko dira erabakiak, adibidez, metafora erabili/itzuli ala ez, eta de-notazioa edo/eta konnotazioarekin nola jokatu. Agian hemen ongi letorke Ja-kobsonen hiru "itzulpen" mota haiek gogoratzea: semiotika-arteakoa, hizkuntza arteakoa eta hizkuntza barneakoa.

Intertestualitatea eta metatestualitatea

Testuen ulergarritasunak zenbaitetan aurrebaldintza bat aurkezten du, hau da, testu horrek aurreko beste batekiko duen menpekotasuna. Horri deitzen dio-gu *intertestualitate*. Kristevak (1969) erabili zuen lehen aldiz kontzeptua esa-nez zenbait testuk aurretik izan duenari begiratzen diola, bere forma ideolo-gikoki neutroari sustengatzen duen eta esperientziatik, alde z aurretiko in-formaziotik eta abarretik elikatzen den esanahi-bolumen guztia gehituz. Ho-

rixte da intertestualitatearen eginkizuna. Adibidez, “Abandoko arranoa” edo “Sarako erretorea” ulertzeko eduki semantikoa ezagutzea baino zerbait gehiago behar da; diskurtso- edo testu-corpus oso bat, esperientzia behar da.

Testuaren gaitasun dinamikoa den horren tipologia bat ere aurkeztu du Sebeok-ek (1986) eta honako zazpi kategoriak izendatzen ditu: erreferentzia, klixtea, literatur aipua, autozita, konbentzionalismoa, zuhurritza eta bitartekaritza.

Metatestualitatea, berriz, testuak bere buruaz egiten dituen erreferentziaz osatzen da, eta gaur eguneko zenbait literatur testutan osagai garrantzizko bihurtu da (15). Halaber, Barthes, Foucault, Bakhtin eta Derridak egindako ekarpenen ildotik, Th. H. Nelsonek hirurogeigarren urteetan akuinatu eta pixkanaka informatika eta hipermediaren bateratzez mamituz eta zehaztuz joan den *hiper-testu* kontzeptua ere egiazki kontutan hartzekoa da, testu kontzeptua gainditu eta inplikazio didaktiko, filosofiko, teoriko, praktikoa, politiko eta juridiko garrantzizkoak etorkizun hurbilean gizarteratuko dituen heinean (16).

Testu-mota

Azken urteotan askotariko ahaleginak egin diren arren testuen tipologia bat finkatzeko, ia guztiek antzeko arazoekin topo egin dute: testuen funtzioaniztasunarekin. Batzuek “diskurtso-eremua” (kazetaritzakoak, erlijiosoak, zientifikoak...) hartu dute erreferentziatzat, beste batzuek “funtzioa” (literarioak, diaktikoak, poetikoak...).

Ur sakonegitan sartu gabe eta erabilgarritasunari begira honako banaketa hau lagungarri gerta lebiguke:

1. Zientifiko-teknikoak [katalogoa, memoranduma, entseia, txostena] Fisika, kimika, teknologia...
2. Juridiko, administratibo eta komertzialak

(15) Jagellonica Unibertsitateko Hispaniar Filologian Ana Sobolewska, Obabakoak obraren polonierazko itzultzaileak tesina hau aurkeztu zuen: SOBOLEWSKA, A.: *La intertextualidad y la metatextualidad en la composición de la novela Obabakoak de Bernardo Atxaga*, Krakovia, 1992.

(16) “La materia hipertextual, que por definición es abierta, expansible e incompleta, plantea estas nociones [conclusión y producto acabado]. Si se pasa al formato hipertextual una obra convencionalmente considerada completa, por ejemplo, Ulises, ésta se vuelve en el acto «incompleta». Las conexiones electrónicas, que enfatizan el establecimiento de nexos, expanden instantáneamente un texto al proporcionar grandes cantidades de puntos de amarre donde atar otros textos. La inalterabilidad y aislamiento físico de la tecnología del libro, que permiten la estandarización y una relativa facilidad de reproducción, a la fuerza cierran estas posibilidades. El hipertexto las abre”. LANDOW, George P.: *Hipertexto. La convergencia de la teoría crítica contemporánea y la tecnología*, Paidós, Barcelona, 1995, 81. or.

3. Kazetaritzakoak (Albistea → Kronika/ Erreportaia/ Entrebista-Iruzkina: [iritzi-artikuluak, zutabeak, editoriala, sail berezi-tuak])
4. Publizitarioak
5. Kolokialak eta komikiak
6. Prosazko literarioak [ipuina, erlatoa, nobela...]
7. Bertsozko literarioak [bertsoak, poemak, koplak, kantak...]
8. Dramatikoak [antzerkia, filme dramatikoak, sketxak...]
9. Humanistikoak (filosofiko, linguistiko, pedagogiko, historiko, soziologiko, psikologiko eta abar)

Testualitate-arauak

Lehen aipatu dugun *intertestualitatea* bezalako faktoreez aparte, badira jo-kaera komunikatiboa arautzen duten printzipio gutxi batzuk: *eraginkortasuna* (helburu komunikatiboa erabat lortzea) *efizientzia* (helburu komunikatiboa ahalik eta modurik ekonomikoenean lortzea), eta *propietatea* (helburua lortzeko egokitasuna), Beaugrande eta Dressler (1981) teorialarien arabera. Testuak hiru baldintza horiek betetzen baditu *xede erretorikoa* lortu duela esan genezake. Xede erretorikoak testuaren kontestuan egoten dira kokatuak eta gune kontestual nagusikoi bat eratzen dute; horrela testuak horren arabera sailka daitezke, nahiz eta testuak izaeraz hibridoak izan, joera nagusiak gora-behera.

Hiru dira joera nagusienak: testu-mota *argumentatzailea*, testu-mota *aurkeztailea* eta testu-mota *exhortatzaile* edo instruktzio-emailea.

Prosaren diseinua

Testuaren egiturak konposizioaren printzipio hierarkikoen aipamena egiten du. Lehenago esan dugunez, testua perpaus-multzo batez osaturik dago eta guztiek elkarturik xede erretoriko bati zerbitzatzen diote. Testurako lehen hurbiltze batean hitzak, esaldiak, klausulak, eta abar identifikatzen ditugu, orrialdean agertzen diren ordenan; baina testu-elementu horien progresio linealak ez du ematen gertatzen ari den guztiaren berri. Elementu bakoitzak betekizun erretoriko bat du, hau da, bakoitzak harreman diskurtsibo bat du besteekiko, eta harreman horiek testuaren batasuna eratzen duten *sekuentziak* identifikatzeko aukera emanez.

Testuinguruak eragin nabaria du testuen egituran eta kontua da nola aurkitzen duten beren adierazpena egituran eta ehunduran aldagai kontestual des-

berdinek. Hasane (1977) *konfigurazio kontestual* esamoldea proposatu du diskurtso edo genero jakin baten markoan gertatzen den komunikazio-kasu konkretu batean eremu, modu eta tenorearen gama osoaren artetik hautatzen diren baloreak izendatzeko.

Elementu bakoitzak (esaldiak, klausulak,...) urrats bat burutzen du testuaren progresio edo aurrerabidean, eta hurrengo auzia da nola erabakitzen duten testuaren ekoizleek sekuentzia bat noiz dagoen osaturik. Egia esan, ez dago muga aurre-determinaturik baina guztiok jakin ohi dugu intuizioz sekuentzia baten xede erretorikoa bete den ala ez. Bestela esateko, normalena da gehiegi luzatzeari (erredundantzia) eta behar baino lehen eteteari (askieza) ihes egiten ahalegintzea. Sekuentzia batek, labur esateko, bere funtzioak eskatzen duen luzera izaten du. Eta hor sekuentzien arteko bereizkuntza eta gaiaren iragaitza-ekin topo egiten dugu, horrela egituraren goi-mailara, testura iristeko.

Testua batasun koherente eta kohesibo bat da, elkarrekiko muntadunak diren eta xede erretoriko baten zerbitzuan dauden elementuen sekuentzia batez edo gehiagoz burutua.

Diskurtsoaren testura

Testura *hautapen zioduna* edo motibatua da, hau da, testuen ekoizleek beren helburuei ahalik eta ongien zerbitzatzeko asmoarekin egiten dituzte, hizkuntzaren baitan eragina duen marko instituzional batean barruan. Besterik da zenbateraino lortzen duten hori. Horretan eragin erabakigarria du testu-motak.

Bigarren auzia koherentziari buruzkoa da. Esan izan da *koherentzia*, testuak sortua izan ordez, hizkuntzaren erabiltzaileek mantenduriko aurespostu batetik datorrela, izan ere horren eta kooperazio printzipioaren arabera, entitate koherente gisa kontzebitzen baitira. *Koherentzia* Beaugrandek (1980) dioenez, kontzeptuzko lotura ziurtatzen duten prozedura-multzoa da eta honako hauek eskatzen ditu: erlazio logikoak, jazoera, objektu eta situazioen antolakuntza eta giza esperientziaren jarraipena.

Alabaina, oinarritzko koherentzia hori islatzeko moduak, *kohesioa* edo sekuentzien loturak, hizkuntza bakoitzak bereak eta bereziak izaten dituzte azaleko egituraren mailan. Gainera, testu bat koherente izan daiteke, baina kohesibo izan gabe, alderantziz, testu kohesibo bat gerta litekeela koherente ez izatea.

Bestalde, ia ezinezkoa da testu erabat inkoherentea egitea ere, hau da, hartzaileen batek onartuko ez duena. Normalean onarpena testuinguruaren arabera egiten da, baina testuingururik ez badago, hartzaileak sortu egingo du bat testutzat eskaintzen zaionari koherentzia emateko. Hori, jakina, komunikazioaren oinarritzko premisa baten ondorioa da, Gricerengana garamatza eta honela

formulatuko litzateke: ekoizleak mezu linguistikoa bat igortzen badu hartzailea testu horrek zentzua izango duen supostutik abiatuko da, hau da, koherentea izango den ustetik. Testuaren esanahira iristen ez bada, ez du baztertuko, eta bera hura ulertzeko ez dela gai uste izango du, edo, agian, testua gaizki eraikita dagoela.

Tradizioz, eta garaiko hizkuntzari buruzko ideien arabera, koherentzia eta testu kontzeptuak zentzu egonkorrean ulertzen ziren (“testuak koherentzia dauka”), zerbait gauzatua, finkoa bailitzen; azken urteotan, joera-aldaketa bat nabari da ikuspegi dinamiko bat ari da nagusitzen lehengo haren lekuan (Ballmer de. 1985, Beaugrande, 1981). Orain testua eta koherentzia fenomeno dinamiko gisa hartzen dira (“egin egiten dira”). Testua eta diskurtsoaren arteko bereizkuntza ere ildo beretik ulertzen dira.

Beraz, bai kohesioa eta bai koherentzia, testualitatearen betebeharrak dira; komunikazioak funtziona dezan batari eta besteari eutsi beharko zaie.

Puntu honetan, esan beharra daukagu, sistema desberdinen arteko kontrasteak arazo bat baino gehiago sor ditzakeela itzulpenarako, adibidez deixia erabakitzerakoan (this/that/ hau, hori, hura...) eta informazioa irabazi edo galdu egin daitekeela. Gainera, *inferentzia*, *errekurrentzia* eta *korreferentzia*, *proforma* eta *elipsia*, *kolokazioa*, *junturak* eta *proposizioen arteko koherentziak*, *erlazio esplizitu* eta *inplizituak*, eta azkenik, *tema/rema* (mintzagaia/galdegaia) bezalako auziekin topo egiten da.

Testuraren oinarriko aspektu bat, kohesioarekin lotura estua duena, *tema-rema* ezarkera da (17); horri perpausaren ikuspegi funtzionala deitu izan zaio berriki, Firbas eta Halliday bezalako hizkuntzalarien artean. Ikuspegi horren arabera, perpausako elementuek komunikazio-dimentsioiko ikusmuga baten barruan funtzionatzen dute eta horrek hau esan nahi du:

a) Perpausaren lehenik tema ageri dela, eta ondoren iruzkin bat, rema egiten dela.

b) Elementu tematikoak “testuinguruari loturik” daudela, eta ondorioz, rematikoei baino garrantzi komunikatibo gutxiago dutela, definizioz “testuinguruari lotu gabe” baitaude. Baina Firbas (1975), Pragako hizkuntzalariak, *dinamismo komunikatibo* kontzeptua proposatzen du tema-remaren garrantzia erlatibizatu eta testua garatuz doan heinean komunikazioari aurrerantz bultzatzen dituzten diskurtsoak duen gaitasunarentzat.

Azkenik, mezu bat eratzeko klausularen antolakuntzatik sortzen diren beste balio batzuen artean, testuen erabiltzaileek dituzten *aurreangarritasuna* eta *informazioaren berreskuragarritasuna*, *informazioaren erliebea* eta *supostu partekatuak* daude. Nozio horiek teilakatu egiten dira elkarren artean: hiztunek uste badute informazio jakin bat aurreangarria dela, erliebeduna izatea eta en-

(17) Ikus B. HIDALGO: Op. cit. V. Epilogo baterako, 631 or.

tzuleek jakintzat ematea esperoko dute. Puntu horiek ez zaintzeak itzulpen bat baino gehiago bihurtu izan du lauso eta gordin.

AZKEN GOGOETA GISA

Esanak esan, txosten hau bukatzeko zenbait gogoeta egiteari beharrezko deritzot.

Lehen partean euskararen zuzentasun eta egokitasunaren inguruan esandakoan aipamena egin dut eta bigarrenean batez ere testuaren eraikuntzan gaur arte egin izan diren azterketa batzuen berri labur bat ematen saiatu naiz, azterlari batzuk testuaren azterketan kaologia edo katastrofeen teoriak, autoaraukuntzaz eta sistema konplexuez hitz egiten ari diren bitartean, iraganeko erretorika klasikoaren eta berrikiago Europa-Ameriketara egin diren ekarpen batzuk kontuan izan ditzagun.

Araugintza, gramatika-mailan erabakizun dauden auziak, estilistika, erretorika, pragmatika, diskurtsoa, testologia, komunikazioaren teoria eta abar bereizi eta ahal den heinean terminologia konpartitu bat erabiltzen hasi beharra daukagu, arazoak aztertu eta konponbidean jarriko baditugu.

Ez dugu ahaztu behar sail honetako lanak, kalitatearen alorrekoak, hots, zuzentasuna eta egokitasunarenak, euskara eraikitzearekin loturik daudela, eta hor eginkizun amaigabea dugula.

— Esku artean ditugun auziek “argi” edo “jator” idatzi behar dela eta estilistika-maisutzat iraganeko idazle bat edo beste proposatzea baino zerbait gehiago eskatzen dute. Oro har, gaurko euskalgintzak erabilpen jakinen inguruko ahalegin eta ikerketak eskatzen ditu, zeren eta gomendio orokorregiek sinplikerian erorarazteko, eta elementalismoak irten gabe egotera bultzatzeko arriskua baitute. Teknolekto berezi bakoitzetik argot eta jargoiraino euskarak lortu behar dituen ñabardura guztiak lantzen saiatu beharko dugu, baina aldi berean, Mitxelenak duela hiru hamarkada esan zuena ez dugu ahaztu behar: *“euskal usaina”, “euskal kutsua” ongi dago euskal gaiak erabiltzeko, baina hortik kanpora ur garbiaren pare izan behar du behar bezalako prosak eta oraingoz hori lortzen badugu zereginik aski. Hala ere, horrek ez du esan nahi inondik ere iraganeko tradizioa, iparraldekoa zein hegoaldekoa gaur, oro har, ezagutzen dugun baino gehiago eta hobeki ezagutu behar ez dugunik, eta zentzu horretan, ahalegin handiagoa egin beharko genuke irakasle eta idazleok batik bat.*

— Ahozketasunaren alorretik baliabide interesgarri ugari hartu eta erabili daitezke kazetaritzako sail batzuetan, harrobi ukaezina dugu hori eta ohi dugun baino gehiago baliatzea. Telebista, irratiari, bereiziki, erdi-ahozketasunaren eremuan mugitzen gara neurri handi batean, baita irakaskuntzaren zenbait maila eta alorretan ere. Hala ere, *ahozketasuna* eta *ahozkotzea* bereiztea komeni

zaigu; baita *ahozkoa* eta *hitz egina* bereiztea ere. Puntu honetan Euskaltzaindia eta Unibertsitateak euskara estandar mintzatuaren fonetika eta fonologia finkatu eta proposatzea beharrezko da. Halaber, hedabide eta irakaskuntzan, eredu bateratua nondik nora joango den susmatzea posible den heinean eta tradiziozko erreferentziekin orain arte baino arreta handiagoarekin lan egitea.

— Euskalgintza egunero lantzen ari den eremuek eta testu-tipologiaren zabalera, iraganean ez bezala, gaur egun zorionez pertsona bakarraren kontrolari ihes egin diote. Egoera horren aurrean, Lerat-ek dioenez, hizkuntzalaritza derrigortua dago bere **jarduerak desberdintzera** eta bere **printzipioak inoiz baino gehiago bateratzera**.

— Kazetariak kazetaritza eta alor bakoitzeko adituak, hizkuntz prestakuntza on batekin, bere beharretarako hizkera berezia, terminologia eta testuak atondu behar ditu, hizkuntzalarien (Euskaltzaindiaren) gainbegiratu eta aholkaritzaren pean. Eta orain arte eredurik izan ez den sailetan, iraganeko eredu eta baliabideetatik berrietara arrisku guztiarekin jauzi egitearen abentura onartu beharrean gaude. Azken hamar-hamabost urteotako itzulpengintzak, bere gehiegikeria eta akats guztiak gorabehera, nabarmen aberastu du euskara.

— Unibertsitateko ikerkuntzari dagokio, batik bat, erretorika, estilistika, diskurtsoaren analisia, komunikazioaren teoria, testologia eta generoak, pragmatika, terminologia e. a. ikertzea eta euskalgintzan sortzen ari diren bide berrietan argi egitea Euskaltzaindiaren koordinaziopean. Bestalde, sortzen ari den gai desberdinetako euskal terminologiagintzak eta hizkera berezituak koordinazio-lan sistematikoa eta gainbegiratzea eskatzen dituzte. Hori nekez lortuko da Batzorde edo erakunderen bat horretarako berariaz sortu gabe.

— Baina horrek guztiak ez du euskara erabiliaren kalitatea hobetuko baldin eta irakaskuntzak hezkuntzaren lehen urteetatik hasi eta Unibertsitateraino urratsez urrats idazkuntza eta irakurketa egoki antolatu eta ematen ez baditu, horretarako beharrezko testu egokiak eraginez, hau da, hizkuntz erregistro guztiak lantzeko balio dutenak. Ildo horretatik, Euskal Filologietan eta inguruko fakultateetan testuaren hizkuntzalaritzaren inguruko disziplinarrekotasuna bultzatzeak mesede egingo lioke euskararen etorkizunari.

— Komunikabideetako arduradun eta langileen esku dago neurri handi batean egunero hedabideetan erabiltzen den hizkuntzaren kalitatea zaindu eta hobetzea, horretarako behar den oinegotura, prestakuntza eta koordinazioa eskainiz.

— Administrazioa eta agintariak beren ardurapeko sailetan, Euskaltzaindia eta Unibertsitatearekin lan eginez, beren eskuetan daukate jendaurrean agertzen den euskararen kalitatea zaintzearen ardura eta ahaltsuna, inprimakietatik hasi eta kaleko errotuluetaraino. Euskaltzaindiak erabakitzeak ezer gutxi balioko du, administrazio- eta gizarte-erakundeek erabakitako hori betearaztea lortzen ez

badugu. Hizkuntzaren “kontzientzia ekologiko” bat sortzeari ekin beharrean gaude.

— Euskalduntze- eta alfabetatze-lanetan ari diren erakundeek ahalegin berezia egin behar dute eguneroko euskara erabili eta bizitik (ahozkotik zein idatzizkotik) ez urruntzeko, eta ikaslea aurrera doan neurrian tokian tokiko euskalkiaren eta estandarren artean zubia ezartzeko.

— Behin baino gehiagotan esan denez, itzulpengintzak gure artean duen eragina kontuan izanik, ahalegin berezia egin beharko genuke profesional horien eta, oro har, itzulpena egiten duen orori- profesionala izan edo ez- guxieneko prestakuntza eta birprestakuntza eskaintzeko.

— Datozen urteotako euskararen nondik-norakoak eskutatetik ihes egitea nahi ez badugu, ezinbestekoa zaigu urtez urte ugalduz doan testu-kopurua (idatzia eta mintzatua) bildu eta, corpus informatizatu eran, ikerketarako tresna gisara adituen eskuetan jartzea, ikerketa sintaktiko, lexikografiko, estilistiko, traduktologikoak eta abar burutu ahal izateko.

Amaitzeko, Miren Azkarateren hitzak aipatuz “lanak eta erantzukizunak banatu beharrean gara. Batasunerako erabakitzeke dauden puntuak zehaztea, tradizioetik okertzen garenean bide zuzenera ekartzen ahalegintzea, Euskaltzaindiaren egitekoak dira. Baina hizkuntza adierazgarria sortzea, esaterako, guztion ardura da: gidoigileena, komikigileena, txiste-kontatzaileena, gazte jendearena oro har”. Zerrenda hori euskaldun guztiak eta bakoitza barruan hartzeraino luza daiteke. Espero dezagun etorkizunean, eta gaurkoa bezalako saioen eraginez, hori egia bihurtuko dela euskararen mesedetan.

BIBLIOGRAFIA

- ARNTZ, Reiner; PICHT, Heribert: *Introducción a la terminología*, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1995.
- ARRASATE MUGUERZA, Manu: *Euskarazko albistegiatarako esku-liburua*, EITB. Bilbo. 1991.
- BATZUK, *Esalditik testura*, Donostia, 1995.
- BEAUGRANDE, R.; DRESSLER, W.: *Introduction to Text Linguistics*, Londres, Longman, 1981.
- BERNARDEZ, Enrique (ed.): *Lingüística del texto*, Arco, Madrid, 1987.
- BERNARDEZ, Enrique: *Teoría y epistemología del texto*, Cátedra, Madrid, 1995.
- BICE MORTARA GARAVELLI: *Manual de retórica*. Cátedra. Madrid, 1991.
- CABRE, Maria Teresa: *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Editorial Antártida, Empúries, Barcelona, 1993.

- ETXEBERRIA, J.L.: *Euskera jatorraren ildotik*, Txigua. Donostia, 1993.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA: *Estilo liburua*. Egunkaria, s.a. Donostia, 1992.
- HABE: *Euskaldunak euskaraz jaxten*. 1992.
- HAEE: *Hizkera argiaren bidetik*. HAEEren Argitalpen Zerbitzua. Donostia, 1994.
- HALLIDAY, M.A.K.; Hasan, R.: *Language, Context and Text, Aspects of language in a social-semiotic perspective*, Victoria, Deakin University Press, 1985.
- HATIM, Basil; MASON, Ian: *Teoría de la traducción. Una aproximación al discurso*. Ariel Lenguas Modernas, Barcelona, 1995.
- HIDALGO EIZAGIRRE, Victor: *Hitzen ordena euskaraz*, Doktore-tesia, Donostia, iraila, 1994.
- IDIAZABAL, Itziar (de): *Hizkuntzaren Psikopedagogia. Testu motak, funtzionamendua eta didaktika*. Labayru. Bilbao, 1990.
- LANDOW, George P.: *Hipertexto. La convergencia de la teoría crítica contemporánea y la tecnología*, Paidós, Barcelona, 1995.
- LERAT, Pierre: *Les langues spécialisées*, Presses Universitaires de France, Paris, 1995.
- LOPETEGI, Eskarne: *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1933.
- MITXELENA, L.: "Euskararen batasun bideak" in *Euskera*, 1968, 203-219 or.
- ONG, J.W.: *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*. FCE, Mexico, 1987.
- PERELMAN, Chaim; OLBRECHTS-TYTECA, Lucie: *Tratado de la argumentación*, Gredos, Madrid, 1989 [1958].
- REY, A: *La terminologie. Noms et notions* (1979), 2e éd., Paris, 1992.
- SAGER, J.C.: *A Practical course in terminology processing*, Amsterdam, John Benjamins, 1990.
- SALABURU, Pello; KINTANA, Xabier: *Euskara hobean hobe*. Argitarapen zerbitzua-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- SARASUA, Jon: *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari: gaiari egindako gainbegirata eta euskarazko kazetaritzaren tradizioko lau kazetatan hitz eta esamoldeen hustuketa kualitatiboa* (Iñaki Zabaleta Urkiolak zuzenduriko doktore-tesia), EHU, 1996.
- SEARLE, J.R.: *Speech Acts*, Cambridge, Cambridge University Press, 1969.
- UZEI/EUSKALTERM: "La terminología en el contexto de normalización de la lengua vasca". In: *Term Net News*, 22, 1988.
- ZUBIMENDI, José Ramón: *Jokaera-liburua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1995.
- ZUBIMENDI, José Ramón; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1993.